



LEHENGO ETA ORAINGO ATAUN  
“Gerren zipriztinak”

2

Alaitz Imaz Arrondok,  
Inazio Munduate Arruabarrenak  
artxiboetan aurkitutako dokumentuetatik



LEHENGO ETA ORAINGO  
ATAUN

GERREN ZIPRIZTINAK

Alaitz Imaz Arrondo





**ATAUNGO UDALA**

# **Gerren zipriztinak**

Alaitz Imaz Arrondo  
2019

© **Ataungo Udala 2019**

**Egilea:** Alaitz Imaz Arrondo

**Artxibo eta dokumentazio lana:** Inazio Munduate Arruabarrena, Ioana Etxezarreta Odriozola eta Alaitz Imaz Arrondo

**Azaleko irudia:** Xanti Iruretagoiena Elorzak "*Ataun 400. urteurrena*" proiekturako egindako deigarria da.

**Azalaren diseinua:** Garazi Etxeberria Barandiaran

**Zuzenketak:** Bidera zerbitzuak (Berria Taldea)

**Argitaletxea:** Cooperación editorial, S.L.

**ISBN:** 978-84-16925-12-4

**Lege gordailua:** M-11316-2019

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreprodukzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektualaren duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Pena leko 270 art. eta ondo.)

## **ESKERTZA**

*Nire eskerrak adierazi nahi dizkiot Ataungo Udalarri herriko memoria historikoa biltzeko Inazio Munduate Arruabarrenak hasi zuen lanarekin jarraitzeko aukera emateagatik. Ioana Etxezarreta Odriozolari nire aurretik lan honi bere aletxoak jartzeagatik eta laguntzeko prest egoteagatik. Inazioaren emazte eta seme-alabei berak egindako lan guztia nire esku uzteagatik. Udaletxeko lankideei bidean sortutako zalantzak argitzeagatik eta blokeo momentuetan aurrera jarraitzeko indarra emateagatik. Karmele Aierbe Muxikari proiektuarekiko bere ilusioa transmititzeagatik. Joxe Bikuña Agirrerri bere jakintzak helarazteagatik, zalantzak izan ditudan guztietan laguntzeko prest egoteagatik eta lana irakurri eta zuzenketak egiteagatik. Amaitzeko, ez ditut eskerrak eman gabe utzi nahi, modu batera edo bestera, kamera aurrean edo atzean beraien bizipen eta oroitzapenak kontatu dizkidatenak. Bereziki: Joxepa Aierdi Aldasoro, Adelita Apalategi Arratibel, Jexuxa Barandiaran Eskisabel, Sabino Auzmendi Arratibel, Maria Sukia Izaskun, Migel Mari Jauregi Apalategi, Iñaxi Maiza Arratibel, Maitane Aizpurua Urrestarazu, Aitor Aldasoro Sukia, Marijo Galparsoro Auzmendi eta Iñaki Galparsoro Munduate.*

*Eskerrik asko guztioi Ataunen, zuon, historia eta istorioak kontatu eta biltzen laguntzeagatik. Zuen kontakizunekin herriaren historia ezagutzeko aukera emateagatik. Jarraitu horrela, pausoz pauso, zuen herriaren historia sortzen.*

# Hitzaurrea

---

Ataungo alkatea naizenez, niri dagokit herritarren izenean liburu hau ataundarrei eskaintzea. Herritar guztioi, baina bereziki Inazio Munduateri, haren esfortzurik gabe ez baitzen argitaratuko.

Inazio Munduateren borondateari eta lanari esker ditugu Ataungo datuak herritarren esku. Inazioaren helburua zen iragana ezagutzea oraina hobeto ulertzeko, eta, batez ere, etorkizun hobea eraikitzeko.

Iragana ezagutu behar zela nabarmentzen zuen Inaziok behin eta berriz. Hori dela eta, bizitza osoan aritu zen herriaren datuak eta pasarte historikoak biltzen. Hari zor diogu informazioa artxiboetan galdua geratu ordez herritar guztion eskura jartzea.

Ondarea da aurreko belaunaldiengandik oinordetzan hartu eta herriari nortasuna ematen dioten ondasunen multzoa. Ondare hori guztiona izaten jarraitzeko, zaindu egin behar dugu, eta datozen belaunaldiei transmititzeko konpromisoa hartu.

Memoria historikoa herri baten memoria da, kolektibo baten testigantza eta ondarea. Horregatik, guztioi dagokigu memoriari garrantzia ematea. Inaziok oso argi zuen hori eta haren oroimenean argitaratu dugu eskuartean duzun liburua.

Liburu honi Ioana Etxezarreta Odriozolak eman zion hasiera eta Alaitz Imaz Arrondok ekoiztu du. Liburuaren arima, ordea, Inazio Munduate izan zen; horregatik gure errekonozimendua eta esker ona.

Izan zirelako gara eta garelako izango dira.

*Asier Rodriguez Etxeberria*

# Hitzaurrea

---

Urteak aurrera doazen heinean, gertatutako eta jasandako zigor, mesprezu eta jipoiak atzendu edo ahaztu ez daitezen eta zabaldu, idatzi edo kontatu diren hainbat gezur, errealitatearen aldaketa eta zitalkerien aurrean bat minduta, lan xume honekin nahi genuke gure herritarrek ezagutu dezatela garai bakoitzean gertatutakoa.

Lan honetan agertzen duguna, zintzotasun osoarekin egokitu nahi dugu, benetan gertatutakoaren errealitatea agertuz nahiz grina eta susmo gaiztoak baztertuz.

Ulertu ezin bat alboratzeko, agertuko ditugun xehetasunak artxiboetako dokumentuetatik jasoak izatea, gure herritarrek bizi eta ikusitako hainbat jokabide eta oroitzapen ahaztu ezin direnak, eta gaur egunera arte gogoratzen dituzten pasadizo eta ahoz aho igorritako gertaerak biltzen saiatu gara.

Lan honen helburu nagusia, igarotako hainbat gudetan gertatutakoak nolabait herritarrei agertzea da.

Ekin genionean pentsatzen genuen, zuhurtzi eta beldurraren eraginez, isiltasun nagusi batekin aurkituko ginela, baina egin dugun bidean bakar batzuek behinik behin prestatu zaizkigu dakitena agertzeko.

Ez genituzke nahi aitormen hauek inori minik edo haserrerik sortzeko erabili, baizik eta azken urte hauetan jaso dugun informazioa erabat aldatu eta desbideratuta jaso dugula agertzeko. Beti ere, ahoz aho jaso ditugun bizipenak, prentsa, liburu, erregistro eta artxibategietako dokumentuetan oinarrituz.

Sufritutako irentsiak eta faxistek piztutako gerra zibilaren sarraskiak, ondorengo errepresio, gose eta hamarkada luzez barruan ezkutatuta gorde dituzten bizipenak agertu nahi genituzke lan honetan.

Gertatutakoa ezagutu nahian eta hainbat biktimek jasandako mina agertu ondoren, atzera begiratzuz omendu nahi genituzke oroimen honen bidez, berriz halakorik gerta ez dadin.

Gertakari haiek ezagutu eta herritarren artean zabaltzeko asmoz, frankismoak espetxetan zigortuta eta langile batailoietan egondakoen

sendikoetatik jaso ditugun hainbat elkarrizketa, eskaini diguten material, argitaratuta dauden liburu eta artxiboetatik jasotako dokumentuek osatzen dute gure lan xume hau eta gure artetik joan direlako eta denetara ez garelako iritsi, asko dira aipatu ezin ditugun pasarte eta sufrimenduak.

Ez zen nonbait denen gustuko zenbait dokumentu, arrasto edo erabaki agerian uztea. Hori egiztatu dezakegu, batetik, artxibategietako dokumentuetan hutsune nabariak agertzen direlako eta bestetik epe honetako Ataungo Akta liburuan agertzen da agintariren baten aginduz, 2.450 kilo paper Donostiara bidali zirela Ataungo Udaletxetik.

*Inazio Munduate Arruabarrena*

# Aurkibidea

<b>1. ATALA: KOKAPENA, TESTUINGURAKETA.....</b>	<b>11</b>
Herriaren kokapena .....	13
Jentil baratza - Muga.....	14
Ermandadeen sorrera .....	18
Ermandadeak – Leinu-gerrak .....	21
Villafrancarekin anexioa – desanexioa .....	23
Aduanak .....	31
<b>2. ATALA: XVIII. MENDETIK XXI.</b>	
<b>MENDERA GERREK ATAUNEN UTZI DITUZTEN ONDORIOAK .....</b>	<b>37</b>
<b>XVIII. mendeko hainbat gerrate .....</b>	<b>39</b>
<b>Konbentzio gerra (1792-1797).....</b>	<b>43</b>
<b>Independentzia gerra.....</b>	<b>48</b>
Gerraren faseak .....	49
Ataunen izan zituen eraginak .....	52
<b>Karlistaldiak.....</b>	<b>62</b>
Sarrera.....	62
Lehenengo Karlistaldia (1833-1840) .....	62
<i>Zer-nolako eragina izan zuen Ataunen?.....</i>	<i>63</i>
<i>Tomas Zumalakarregi jenerala Ataunen .....</i>	<i>66</i>
Bigarren Karlistaldia (1872-1876).....	67
<i>Santa Kruz apaiza Ataunen .....</i>	<i>70</i>
<b>Kubako gerra (1897-1898).....</b>	<b>73</b>
<b>Emigrazioa .....</b>	<b>75</b>
<b>Primo de Riveraren diktadura (1923-1930).....</b>	<b>81</b>
<b>II. Errepublikak (1931-1936).....</b>	<b>83</b>
Ataundarren topalekuak .....	93
<i>Batzokia .....</i>	<i>93</i>
<i>Circulo Tradicionalista y de las JONS.....</i>	<i>95</i>
<b>1936ko gerra Ataunen.....</b>	<b>99</b>
1936ko Gerra ataundarren hitzetan:.....	103

Gerran ibili ziren ataundarrak .....	111
<i>Hildako erreketek-boluntarioak .....</i>	<i>112</i>
<i>Gerran ibilitako erreketek .....</i>	<i>116</i>
<i>Francok aginduta joan zirenak.....</i>	<i>118</i>
<i>Gerrara Francoren aginduz joan zirenak.....</i>	<i>123</i>
<i>Gudariak .....</i>	<i>125</i>
Elizaren martiriak eta apaizak .....	137
Heriotzak Ataunen .....	153
Ondorioak .....	159
<b>Gerra eta emakumeak. Gogoeta .....</b>	<b>169</b>
<b>1960tik aurrera zer? .....</b>	<b>172</b>
<b>Bukaerako oharra .....</b>	<b>215</b>
<b>BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>217</b>

# **1. Atala: Kokapena, testuinguraketa...**

---



# Herriaren kokapena


---

Gipuzkoako hego-mendebaldean dago Ataun, Nafarroarekin muga eginez. Agauntza ibaiak zeharkatzen du herria alderik alde, eta ibaiaren ibilguan kokatu izan dira historian zehar auzoak nahiz etxeak. Azalerari dagokionez, 59 km<sup>2</sup> ditu Enirio-Aralar eta Intsustiko mankomunitateko partaidetzak kontuan hartu gabe. Ezaugarri horiek herriaren eta herri-tarren izaeran nahiz historian zerikusi handia izan dute.

Ataunen jatorria edo sorburua ezezaguna bada ere, On Joxe Miel Barandiaranek zioen bezala, inguru hauetan gizakiaren presentzia oso zaharra da; gutxienez, orain dela 4.000 urtekoa. Hori adierazten digute bertako leizeetan, kobetan eta abarretan indusketa-bidez aurkitutako giza buru-hezurrek, abere-hondakinek, azagaiek, tresnek, zeramika-ontziek, txanponak eta abarrek.

# Jentil baratza - Muga

*Ataun* izenak bailarako atea edo pasalekua esan nahi du, eta, itxura denez, erromatarren garaitik paseko herri garrantzitsua izan zen. Bera babesteko, *Jentil Baratza* izeneko gaztelua zeukan herri gainean, Arratetan. Iristeko zaila zen gunee batean zegoenez, zaintzarako leku aproposa zen. Zelaigune batean zegoen, eta haren barnean, bizileku nahiz biltegi gisa erabil zitekeen koba bat zegoen. Bertan, gaur egun oraindik, kedarren arrastoak nabari dira, suteren bat pairatu izanaren adierazle.



Ataun ez zen gaztelua zuen herri bakarra. XI. mendean, leku garrantzitsua hartzen joan ziren Gipuzkoako paisaia<sup>1</sup>. Han-hemenka gaztelu ugari eraiki zituzten. Batzuk, Jentil Baratza bezala, toki malkartsuetan, jendea bizi zen guneeetatik urruti: Mendikute Albizturren, Ausa Zaldi-

<sup>1</sup> Torregerai Pagola, E. (Koord); Aragon Ruano, A. (Koord.). (2018)

bian... Beste batzuk, gero hiribildu bihurtu ziren herrixken gainean: Goikobalu Arrasaten, Urgull Donostian eta Hondarribikoa. Batzuek zein besteek, ordea, bazuten ezaugarri komun bat: bide estrategikoak kontrolatzen zituzten Iruñeko nahiz Gaztelako erreinuentzat. Horrez gain, lurralde batekoek nahiz bestekoek egiten zituzten abere-lapurretak kontrolatzeko ere baliagarriak ziren. Helburu horretarako zituzten, besteak beste, Ernioko eta Aralarko gotorlekuak. Labur esanda, aristokratek beren boterea inposatzeko erabili zituzten. Diotenez, gaztelu haiek lapurretak egiteko abiapuntu zein babesleku izan ziren<sup>2</sup>.

Gure herria Gipuzkoako lurretan bazegoen ere, XIII. mendean Nafarroaren menpe egon zen. Gauzak horrela, bertako gaztelu-jaunak urtero 50 *cahiz* gari jasotzen zuen Nafarroako Gobernutik. Ataungo gazteluan, hainbat gaztelu-jaun izan ziren; 1265etik 1350era, gutxienez, hamar. Arduraduna izendatzeaz, garaian garaiko Nafarroako erregea **ardura** tzen zen. Hori dela eta, Nafarroako Agiritegi Orokorrean *Jentil Baratza* gazteluari buruzko informazio asko dago<sup>3</sup>.

1200. urtean, Gipuzkoako egitura politikoa aldatu egin zen. Euskal lurretako familia garrantzitsuenak beren jarrera aldatu, eta Gaztelako erregearen alde egitera igaro ziren<sup>4</sup>. Gipuzkoa, Araba eta Durango Nafarroako erreinuaren parte zirenak Gaztelaren menpe jarri baitziren. Alfontso VIII.ak Gaztelako erregeak, sei hilabeteko kanpaina militar bat irabazi eta gero, 1200eko urtarrilean Gasteiz setiatu eta bereganatzea lortu zuen, Araba osoarekin eta Gipuzkoarekin egin bezala<sup>5</sup>. Horrela, bada, *Ipuzcaia* edo *Guipuscoa* izena zuen lurralde bat bereganatu zuen; Donostia, Hondarribia eta hainbat gazteluz osatua; tartean ziren Ataungo eta Zaldibiakoa<sup>6</sup>. Lurralde horiek Antso Nagusiaren garaitik Iruñearen eraginpean egonak ziren. Ondorioz, historikoki barduliarren eta baskoien artean banatuta zeuden lurren antolamendua aldatu zuen. Banaketa hori Erromatarren garaian Urumea ibaiak, Aralar, Andia eta Urbasa mendien arteko marra bertikal batek egiten zuen.

2 [www.aranzadi.eus/fileadmin/webs/gazteluak/Gazteluak/Jentilbaratza.htm](http://www.aranzadi.eus/fileadmin/webs/gazteluak/Gazteluak/Jentilbaratza.htm)

3 [www.aranzadi.eus/fileadmin/webs/gazteluak/Gazteluak/Jentilbaratza.htm](http://www.aranzadi.eus/fileadmin/webs/gazteluak/Gazteluak/Jentilbaratza.htm)

4 Achón Insausti, J.A. (1986)

5 Orella Unzué, J.L. (1984)

6 Torregarai Pagola, E. (Koord); Aragon Ruano, A. (Koord.). (2018)

Egitura geopolitikoa aldatzearekin batera, lurraldeak mugatzeko ahaleginak egin ziren. Banaketa hark, hasiera batean, arlo politikoan soilik eragin zuen; ez zuen herritarren eguneroko bizian eraginik izan, ez baitzegoen mugarri fisikorik. Horrela, bada, nekazari eta abeltzainak muga gurutzatzen jarraitu zuten, beraien beharren arabera. Baina berehala sortu ziren mugen arteko arazoak: lapurretak, hilketak, suteak... Ondorioz, ordura arte elkartuta egon ziren lurren artean<sup>7</sup> existitzen ez ziren mugen beharra sortu zen. Hala, bi lurraldeen arteko muga fisikoak zehazteaz bat, mekanismo militarrek nahiz legeak jarri zituzten. Liskar haien adibide dira 1261eko maiatzean, bi erresumetako ordezkariak elkartu zirenean Gaztelarrek jaso zituzten kekek. Salaketa haietako batean aipatzen zen lapurtutako sei txerri Ataungo gaztelura eramane eta bertan jan zituztela<sup>8</sup>.

Gaztelak Nafarroaren menpe zeuden lurrak bereganatzeko zer egin zuen ez dakigu; are gehiago, historialariak ere ez dira ados jartzen gertatutakoa azaltzeko garaian, orduko iturriek ez baitute argi uzten<sup>9</sup>. Baina jakina da hainbat gatazka izan ondoren, 1200. urtean Gaztelako eta Nafarroako erreinuek tregoa sinatu zutela eta bakoitzak une hartan zituen lurraldeak beretzat gorde zituela.

Aurrez aipatu bezala, XII. mendean, Araba eta Gipuzkoa Gaztelaren menpe jarri ziren 1200ean sinatutako tregoarene ondorioz, baina ez eskualde guztiak: gertura begira ipiniz gero, Zaldibiako Ausa gaztelua bera, 1200. urtean Nafarroaren esku zegoena, Gaztelaren eskuetara igaro zen, eta handik urte batzuetara, berriro Nafarroaren parte izan zen; azkenik, 1335ean behin betiko geratu zen Gaztelaren menpe. Jentil Baratza, berriz, 1378ra arte izan zen Nafarroako Erreinuekoa. Urte horretan, erregearen aginduz, gaztelua eraitsi egin zuten. XI. mendean eraiki zuten *Athavit* edo *Jentil Baratza* deritzon gaztelua, eta XIV. mendean eraitsi Karlos III.aren aginduz; bitarte horretan, hainbat berrikuntza izan zituen. Besteak beste, eroritako hormak berreraiki zizkieten; garitak eta dorreak konpondu, harria eta estalkietarako haritzezko oholak erabilia, ur putzuak egin zizkieten eta gaztelu-zaintzako etxea<sup>10</sup>.

---

7 Achón Insausti, J.A. (1986)

8 Aranzadiren webgunea

9 Torregarai Pagola, E. (Koord.); Aragon Ruano, A. (Koord.). (2018)

10 Sagredo Garde, Iñaki (2006)

Nafarroaren eta Gipuzkoaren arteko muga banatzea zaila izan zen, interes politiko eta ekonomikoak baitzeuden tartean<sup>11</sup>. Azkenean, muga artifical bat ezarri zen. Hori dela eta, ez da harritzekoa mugako herrietan arazoak sortzea. Batetik, gipuzkoarrei Nafarroako lurak nekazaritzarako zein abeltzaintzarako ondo zetozkielako, eta, bestetik, nafarrek itsasorako irteera behar zutelako. Izan ere, mugan bizi ziren oinaztarrek abeltzaintza zuten jarduera ekonomiko nagusia, eta lur-sail handien beharra izaten zuten, animaliak larrean lasai ibil zitezen. Hori dela eta, lurraldeen arteko muga markatzearen eta nekazaritza sartzearen aurka agertu ziren abeltzainak; batez ere, Ataunen<sup>12</sup>. Aralarren baitzegoen Gipuzkoako eta Nafarroako muga.

Nafarroako erreinuaren eta Gaztelaren menpe zeuden euskal lurraldeen artean muga geografikoa ez ezik, denboraren poderioz, muga sozioekonomikoa ere sendotu zen, eta horrek ere gorabeherak sortu zituen mugaren bi aldeetako herrietan<sup>13</sup>, baita elkarrenaganako gorrotoa ere. Ondorioz, gatazka handiak izan ziren mugako herrietan, eta Ataun ez zen salbuespena izan<sup>14</sup>. Borroka odoltsuak, lapurretak, atxiloketak eta exekuzioak ugariak izan ziren, baita gazteluei egindako erasoak ere. Hori ikusirik, jabetu ziren *villak* ahulak zirela eta elkartuz gero indar gehiago egiteko gai izango zirela. Ondorioz, babestuta egon eta gatazkei amaiera emateko<sup>15</sup>, herriak elkartu eta *Mugako Ermandadeak* sortu zituzten. Horien zereginetan, probintziaren eta monarken bitartekaritza egitea ere bazegoen; hau da, ordenantzak idaztea eta kontu ekonomikoak kudeatzea.

Gure herriak jasaniko erasoak ez ziren soilik fisikoak izan, hizkuntzari ere eragin zioten. Ordura arte lurralde hauetan euskaraz hitz egiten zen, baina, Gaztelako erresumaren politika hedatzailea ezarri zenetik, erasoak ugaritu eta gure hizkuntzaren indarra ahultzen hasi zen.

---

11 Orella Unzué, J.L. (1984)

12 Achón Insausti, J.A. (1986)

13 Orella Unzué, J.L. (1984)

14 Tena Garcia, M.S. (2003)

15 Achón Insausti, J.A. (1986)

## Ermandadeen sorrera

---

Gipuzkoa barnealdea eta Nafarroako erreinua interes handiko lurraldeak ziren Donostiako merkatarientzat eta erregeentzat. Horregatik, Donostia Iruñearekin zein Gasteizekin lotzen zituen bideak seguru izaten ahalegindu ziren. Horrela, bada, bi erreinuen arteko muga osoan Ermandadeak sortu ziren gaizkileen erasoetatik babesteko. Beraz, esan daiteke Ermandade horiek erregeak ziurtatu ezin zuen bakea ziurtatzeko elementuak zirela. Nafarrek itsasorako irteera izan nahi zuten, eta donostiarrek merkataritza bide seguruak nahi zituzten<sup>16</sup>. Izan ere, Gaztela nahiz Nafarroa aldetik produktuak garraiatzen ari zirela, barnealdeko herrietan maiz jasaten zituzten bidelapurren erasoak.

1329an Nafarroako tropak asko gerturatu ziren Gipuzkoako mugara; hori ikusirik, Gipuzkoako hainbat *villari* elkartzeko eskatu zitzaizkien, eta ermandade bat sortzeko; besteren artean, Segurari, Donostiari, Hondarribiari, Hernaniri, Tolosari eta Ordiziari. Helburua zen ezegonkortasunari aurre egitea eta herritarrentzat segurtasuna bermatzea. Nafarroako hainbat herriri ere ermandade hartan parte hartzeko gonbita egin zieten; besteak beste, Arakili, Ameskoako herriei, Araitzi eta Deierriko eta Sakanako herriei.

1359an, Gipuzkoako merio nagusi karguan Beltran Ibañez Gebarakoa ipini zen, Oñatiko jauna bera, eta, horrekin batera, Nafarroaren aldeko politikak bueltatu ziren probintziara. Gebaratarrak oinaztarren aurkariak zirenez, Gipuzkoako *mugako* ermandadeari babesa eskaini zieten, Lazkaoko jaunen aurka egiteko helburuarekin. Bidenabar, Karlos II.a Nafarroako erregea Gipuzkoako muga guztian kokatu ahal izan zen<sup>17</sup>. Ermandade hura bost urterako sinatu zuten, eta helburua zen hura osatzen zuten udalerrietan bakea ziurtatu eta justizia ezartzea<sup>18</sup>. Hala ere, bi aldeek ahaleginak egin arren, ermandadeak ez zuen arrakasta handirik izan, lapurretek jarraitu egin baitzuten. Horren adibide dira

---

16 Tena García, M.S. (2003)

17 Orella Unzué, J.L. (1985)

18 Fernandez Huerta, P.; Maza Otero, M. (1994)

debekatutako produktuak mugaren alde batetik bestera eramateagatik jarritako salaketak; besteak beste, gipuzkoarrek Nafarroara dirua eramaten zutenean jarritakoak.

Gebaratarrak eta oinaztarrak txandakatuz ibili ziren merio karguan, horrekin Gaztelako gorrea eta beren joera politikoak bereganatzen zituzten. Horrela, bada, gebaratarrek nafarrekin kolaboratu zuten, eta, horregatik, oinaztarren eta Lazkaokoan kontrako ermandadea indartu egin zen. Leinuen banaketak villen funtzionamenduan eragin egiten zuen.

Bi lurralderen artean muga ezartzeko garaian, garrantzitsuak ziren errekek eta basoak; hala izan zen Gipuzkoaren eta Nafarroaren kasua ere. Industria aurreko garai haietan, mugek nahiz basoek garrantzi handia izan zuten jarduera ekonomikoan. Izan ere, ingurunean ez zituzten lehengaiak truke bidez lortzen zituzten<sup>19</sup>. Bide horiek irekita izatea bereziki garrantzitsua zen Gipuzkoarentzat, izatez lurralde nahiko antzua baitzen<sup>20</sup>. Horregatik, oso garrantzitsua zen merkatarientzat erreinuen artean giro ona izatea. Horri esker, normal jardun ahalko baitziren beren lanean. Erregeek eta villetako arduradunek ere harreman komertzial onak nahi izaten zituzten, diru-sarrerarik handienak hortik etortzen baitziren. Errege-zergak eta alkabalak portuan bertan ordaintzen ziren. Zerga haiek produktuaren kostua %10 igotzen zuten<sup>21</sup>.

Esan bezala, XII. mendearen erdiaz geroztik Gipuzkoatik Nafarroara —eta alderantziz— garraiatzen zituzten jarraian aipatuko ditugun hainbat produktu. Eta merkantzien garraioan Ataunek berebiziko garrantzia izan zuen; lehengaiak Tolosatik Nafarroarantz San Adriandik barrena edo Ataundik Altsasura eramaten baitzituzten.

XII. mendearen erdiaz geroztik metalak, oihalak, espeziak, larruak eta hainbat elikagai garraiatzen zituzten probintziako bideetan barrena. Nabarmentzekoa da esportatzen zituzten produktuen sinpletasuna eta inportatzen zituztenen aberastasunaren arteko aniztasuna. Inportatzen zituzten produktuen artean ugarienak ehunak ziren, baita josteko beharrezkoak zituzten materialak, bitxiak, larruak, armak, arrantzarako tresnak eta espezieak ere. Erreinuen barnealdeko lurraldeetatik, berriz,

19 Fernandez Huerta, P.; Maza Otero, M. (1994)

20 Fernandez Huerta, P.; Maza Otero, M. (1994)

21 Fernandez Huerta, P.; Maza Otero, M. (1994)

sagardoa eta burdina esportatzen zituzten. Horrez gain, elikagaiak ere eramaten zituzten batetik bestera; Gipuzkoatik Nafarroara arrain freskoa eramaten zuten, bakailaoa eta sardinak batez ere, eta Nafarroatik, berriz, olioia eta gatza.

## Ermandadeak – Leinu-gerrak

---

Ermandadeak erakunde garrantzitsuak izan ziren leinu-gerren amaiera ulertzeko, baita geroko erakundeen sorrera ulertzeko ere. Hiriek Ermandade bat sortu zuten, kolektibo bat, milizia bat eratzen zuena, eta haren helburua bakea ezartzea zen. Horretarako, zigor-arautegi penal bat sortu zuten.

Arautegia beharrezkoa zen bai. Izan ere, muga zeuden lurraldeak indarkeria endemikoko gunek ziren. Batetik oinaztarren eta ganboatarren borrokak zeuden; muga inguruko lurretan lehenak ziren nagusi, eta ganboatarrekin izaten zituzten liskarrak ugariak izan ohi ziren. Bestetik, ganadu lapurretak ere ugariak izaten ziren, baita kontrabandoa ere. Gauzak horrela, Gipuzkoako eta Nafarroako mugari “gaizkileen muga” esaten zioten. Halaber, egoera okertu egiten zen Gaztelaren eta Nafarroaren arteko gerra ofiziala zegoenean. Une haietan, ugari izan ohi zen borroka gogor eta odoltsuak izateagatik atxilotu eta exekutatuturiko jendea ere. XIII. mendean, horiek zirela kausa, Nafarroan urkaturiko bi ataundarren berri dugu.

Ez zen erraza mugako ermandadea ezartzea. 1375ean, esaterako, Lazkaoko jaunak eta haren familiak borrokara deitu zituen Aranaz ibarreko herritarrak, beste borroka batean anaia hil ziotelako. Lazkaoko jaunaren aldekoek irabazi zuten borroka hura, eta, ondorioz, Aranaz ibarrekoek 101 urte eta egun bateko tregoa onartu behar izan zuten<sup>22</sup>. Tregoa haiek apurtzeko, nahikoa izan ohi zen borroka edo lapurreta bat; ez zen arrazoi handirik behar.

Lazkaokoen erronkak muga arteko gerra sortu zuen. Alde batetik, Gipuzkoa eta Araba zeuden, Gaztelaren menpekoak biak, eta, beste alde batetik, Nafarroako erreinua. Hasiera batean, ermandadeko alkateen bidez bakea lortzen saiatu ziren. Horren adibide da 1412ko otsailean Joan II.ak Valladolidetik bidalitako gutuna. Bertan erreginarenekin sinadurapean Gipuzkoako muga bakea eragiteko erabakia ageri da. Azkenean, erregeak ermandadean bere agindua ezartzeko esan zuen, eta gaizkileen

---

22 Orella Unzué, J.L. (1985)

aurka zeuden zigorrik gogorrenak aplikatzeko eskatu zuen; bai zigor penalak eta bai zibilak<sup>23</sup>.

Erresistentziak hasieran mugatuak izan ziren, baina XV. mendean bizkortu egin ziren. Horren adibide da jauntxoan Arrasate erre zutenekoa eta hurrengo urtean erregeak Gipuzkoako ermandadea indartzeko agindua eman zuenekoa. 1456an Gipuzkoako aitonen semeek desafio egin zieten hiriei. Hiriek Henrike IV.a erregearen armadari deitu zioten, eta 1457an jaunek ezin izan zioten eutsi. Erregeak dorre asko eraitsi zituen, eta ahaideak Granadara bidali zituen. Horrela amaitu ziren Gipuzkoan leinu-gerrak.

Triskantzak ez ziren hor amaitu, ordea. 1471ko maiatzaren 15eko errege-zedulan ageri denez<sup>24</sup>, jende asko hil zen Gipuzkoako eta Nafarroako mugako herrietan. Nafarrek heriotzak, indarrez egindako lapurretak eta txikizioak eragin zituzten. Aralarren, esaterako, behin baino gehiagotan sartu ziren indarrez eta animalia asko hil eta lapurtu zituzten. Ia mende bat beranduago ere, 1550. urtearen bueltan, Gipuzkoako eta Nafarroako mugetan, tartean Lizarrusti inguruetan, oso ohikoak izan ziren bide-lapurretak. Hori ikusita, Gipuzkoan sorturiko ermandadeek babesa ematen zieten gipuzkoarrei, alkateei baimena eman baitzieten erasotzaileak zigortu eta beren lurraldeetara entregatzeko<sup>25</sup>.

Leinuen gerrek euskararen historiaren aldetik ere badute interesa, ahozko literatura sortu zelako eta berauetan gerrako parte hartzaileen ikuspuntua agertzen delako. Normalean, bi testu mota agertu ziren leinugerretan. Batetik, eresiak, hildakoen omenez eta mendekua eskatuz idazten zirenak, eta, bestetik, kantu epikoak, gertaerak kontatzen zituztenak, normalean irabazleek idatzi ohi zituztenak.

---

23 Orella Unzué, J.L. (1985)

24 Orella Unzué, J.L. (1985)

25 Fernandez Huerta, P.; Maza Otero, M. (1994)

## Villafrancarekin anexioa – desanexioa

---

Erregearen aginduz gaztelua desegin ondoren, 1399ko apirilaren 8an Ataunek Nafarroarekiko loturak hautsi eta Ordiziarekin anexionatzeko eskriturak sinatu zituen.

Ordurako, Ordiziatik igarotzen zen Gaztelatik San Adrianerantz itsas aldera zihoan galtzada nagusia, eta, Gaztelako errege Alfontso X.aren baimenarekin, 1268. urtetik, *villa* izendatuta zegoen; hala, hiribildu harresidun eta lurralde mugatu bat osatzen zuen. Izendapen horri esker, burujabetzaz gain, beste hainbat etekin eta eskubide lortu zituen Villafrancak. Horien artean, zergak biltzeko eskubidea, eta, orobat, jabetza handiagoa kudeaketa administratiboetan. Gauzak horrela, 1399ko apirilaren 8ko eskritura batean agertzen denez, Arama, Ataun, Beasain, Gaintza, Itsasondo, Legorreta eta Zaldibia Villafrancarekin batu ziren.

Jarraian erantsi dugun taulan ikus daitezke Ataunek, eta aipatu berri ditugun herriek, Ordiziarekin anexionatzeko onartutako baldintzak<sup>26</sup>.

Gaur egungo ikuspuntutik begiratuta eta gertaerak nola izan diren jakinda, bitxia egin zaigu anexio-eskritura idazteko erabilitako terminologia. Besteak beste, gaur egun badakigulako Ataunek Ordiziarekin, edo Villafrancarekin, anexionatuta 216 urte egin zituela. Dokumentuan, ordea, XIV. mendeko ataundarrak bizi osorako lotzen dira Ordiziara: “*entramos por vecinos de vos... para siempre jamas*”<sup>27</sup>. Ez hori bakarrik, beraien nahiz beraien ondorengoen ondasunak Ordiziako agintarien esku uzteko prest ageri ziren. Horrez gain, zin egiten dute Ordiziak eskaini dien babesaren truke fidelak izango direla, ez dutela inongo akordiorik sinatuko beste kontzeju, zaldun eta pertsona batzuekin. Amaitzeko, erregeari eskatzen diote Ordiziako hiritartasuna onartzeko, beraiek helburua lortzeko beren esku zegoen guztia eskaini zutela eta.

---

26 AUA, 07-16

27 AUA, 07-16

**Escritura de unión y vecindad suscrita entre el concejo de Villafranca y las collaciones de Ataun, Beasain, Zaldibia, Gaintza, Itsasondo, Legorreta, Alzaga, Arama y ciertos moradores de la collación de Lazcano** (AUA, 07-16).

(...)

Otorgamos e conocemos que de nuestra propia agradable voluntad e sin premie e sin capción alguna, entramos por vecinos de vos en el dicho concejo de la dicha Villafranca, e que nos e nuestros vienes e todos los que son ó fueren en las dichas collaciones ó en qualquier de ellas e los nuestros subcesores e todos los vienes que son e fueren en las dichas collaciones, sean tenidos de mantener vecindad para siempre jamás en la dicha villa.

(...) entendemos que por la dicha vecindad seremos mejor defendidos (...)

E, así ponemos e establecemos firmemente, según mejor e más cumplidamente pudiéremos, de fecho e de derecho, esta dicha vecindad con vos el dicho concejo e alcalde e ofiziales e homes buenos de la dicha Villafranca en tal manera e postura que, por razón ó contienda que de presente sea ó ser pueda de aquí adelante, non podamos de ella salir ni contradecir en alguna manera nos ni los nuestros subcesores nin los que somos nin fuéremos en las dichas collaciones.

(...)

(...) ponemos todos los nuestros vienes, así muebles como raices, havidos y por haver (...)

(...)

(...) ser obedientes en los llamamientos e juicios e sentencias que fizieren e dieren (...)

(...) vos el dicho concejo que podades fazer estatutos ó composiciones, todos aquellos que fueren servido del dicho señor Rei e pro e mejoramiento de vos el dicho concejo e nuestro, e nos seamos tenidos de guardar e cumplir todo quanto por vos el dicho concejo fuere establecido (...)

(...) con vos contraemos e entramos por vecinos con todos nuestros vienes, muebles y raices, havidos y por haver, pero que la renta del molino de dicho concejo (...) sea provecho común de todos.

(...)

(...) nos fagamos juramento nin trato nin estatuto alguno con ningunos otros concejos nin collaicones, nin cavalleros, in cavildos, in con tora persona ó personas singulares (...)

(...)

E, humildemente suplicamos e pedimos por merced a nuestro señor el Rei que sea la su merced de nos confirmar esta dicha vecindad e de nos dar e mandar su privilegio rogado en esta razón.

(...)

Elkartzearena Gaztelako Henrike II.a erregeak onartu eta baimendu zuen, Tureganoko herrian (Segovia), 1402ko abuztuaren 5ean. Arrazoi ekonomikoez gain, Nafarroatik jasaten zituzten erasoetarako ere babes eskaintzen zien Ordiziak. Izan ere, mugako basoetan justiziatik ihesean zebiltzan herritarrak gordetzen ziren, hala nafarrak nola gaztelarrak.

Ordiziarekin bat eginda, babes hartu zuten ataundar dirudun edo handikiek, Nafarroaren erasoetatik gordeta eta zalapartariekin beldurtuta bizi baitziren. Ordiziarekin elkartu arren, herri bakoitzak bere mugak, jabegoak eta mendien ustiaketa zein gozamen eskubidea gorde zituzten. Baina, hori bai, Villafrancako juntak hartutako erabakiak onartu eta ezarritako zergak ordaindu behar zituzten. Dena ez zen Ordiziako agintarien esku geratzen, ordea. Bertara batu ziren herriek batzarrean hainbat erabaki hartzeko eskubidea gorde zuten. Horregatik, ordura arte ohikoak ziren herri batzarrak egiten jarraitu zuten, eta bertan hartutako erabakiak, gero, bi ordezkari eramaten zituzten Ordiziako batzarrera.

1404an, aipatzen denez, hitzarmena sinatu zuten Ataungo ordezkariak Lazkaoko jaunarekin, eta, ondorioz, herriko lurak bi zati nagusitan banatu ziren:

- Agauntza*, edo hegoaldea: Lazkaoko Jaunaren eta ataundarren artean erdibana.
- Aizkolisasi*, edo iparraldea: bertako lur, mendi, muga zein jabegoak Ataunen zaintzapean geratu ziren.

Banaketa onartu beste erremediorik ez zuten izan herritarrek, baina denak ez zeuden erabakiarekin ados. Lazkaoko Jaunari oinak gelditu behar zitzaizkiola mehatxatuz adierazi zuten euren haserrea hainbatek.

1512an sute handi baten ondorioz Villafranca erabat kiskalita geratu zen, eta, horrek sortutako egoera tamalgarriari aurre egiteko, Gaztela, Aragoi eta Nafarroako erreginak, Joana Eroak, astero azoka egiteko baimena eman zion. Erreginaren opari hori ez zitzaien gustatu Villafrancara batutako zenbait herritarri. Erabakiak iritzi kontrajarriak, eztabaida luzeak eta diru koste handiko auziak sortu zituen, eta, desadostasun horietatik abiatuta, askatzeko egarria zeukaten herriek berjabetasuna lortu zuten. Gertaera honen berri ageri da 1557ko maiatzaren 11n Gipuzkoako Batzar Nagusian egin zen aktan. Bertan aipatzen denez, diru bilketa egin ondoren, herri batzuek beraien burujabetasuna lortu zuten; tartean, Ataunek.

Gauzak horrela, 1615eko otsailean, Ordiziatik banatu eta herri izaera berreskuratu zuen, diru kantitate handia ordainduta. Horrez gain, baita Batzar Nagusietan partaide izateko eskubidea ere. Villafrancaren menpe bi mende igaro ondoren, unibertsitate-titulua albo batera utzi, eta *villa* titulua erosi ahal izan zuten, izan ere, Espainiako Koroaren Ogasunak diru behar larria baitzuten.

Baina zergatik zuen Ataunek Ordiziatik askatzeko horrelako irrika? Bada, jada ez zuelako babes beharrik batetik, eta bestetik, ardoaren salneurriak zirela-eta liskarrak izaten zituztelako. Izan ere, Nafarroatik ekartzen zuten ardoa, baina, aduana Ordizian zegoenez, Ataunek nahiz Legorretak prezio bera ordaindu behar zuten. Ataundarrak ez zeuden horrekin ados, herrian barrena igarotzen baitzen. Azkenean, Ordiziako aduana Ataunera mugitu zuten, Nafarroako mugara.

Ataunek, gainerako herrien antzera, askatasuna lortzeko 9.375 maravedi ordaindu behar izan zituen; biztanle bakoitzeko, 25 dukat. *Villa* izendatzearekin, burujabetza lortzeaz gain, eskubide eta jabetza handiagoak hartu zituzte zerga- eta administrazio-arloetan.

Espainiako Koroaren Ogasunak diru premia larria izatearenak zerikusia zuen Felipe III.a Espainia eta Portugalgo erregearen garaian (1599-1621) izandako gerrekin. Erregetza hartu zuen urterako, esaterako, Ingalaterraren aurkako gerra abian zegoen, eta, urte hartan, 50 itsasontziz osatutako flota bidali zuen erregeak Ingalaterrako itsasertzari erasotzera. Baina itsasontziek ezin izan zuten beraien zeregina bete, Azoreetara iristerako ekaitz batek barku guztiak hondatu baitzituen. Gerra hori 1604ko abuztuan amaitu zen, Felipe III.ak Ingalaterrako Jakob I.a erregearekin Londresko ituna izenpetu zutenean. Hortik aurrera, bi nazioen artean, hobetu egin ziren salerosketa nahiz diplomazia hartu-emanak.

Enirio-Aralar mankomunitatea, egun oraindik indarrean dagoena, garai hartan sortu zen. Aralarko lurren erabilera komuna betidanik eza-gutu bada ere, berari buruzko lehen aipamen idatzia 1390ekoa da. 1400. urtean Henrike III.a erregeak Amezketako jaunari eman zion dohaintzan lur haien erabilera eskubidea. Itxura denez, ordea, erabaki horrek ezin-egona sortu zuen mankomunitateko gainerako herritarrengan. Gauzak horrela, 1409an Ordiziako elizan elkartu ziren bi aldeak; hots Joan Amezketakoa eta mankomunitateko gainerako ordezkariak, eta lehenak Aralarko lurren gaineko eskubideak saldu zizkien.

1609an, errege horrek berak Espainiatik bidali zituen Mauritaniatik etorritako 300.000 *morisko*, eta, horretarako, 30.000 soldadu erabili zituen.

Gerrate batek zein besteak sortu zituen gastuak zirela eta, Espainia zorretan zegoen, eta koroak, egoera hura gainditzeko, diru-sarrera berriak sortu behar izan zituen. Esaterako, zerga berriak ezarri zituen, noblezia tituluak saldu eta hiribildu berrien sorrera baimendu. Neurri horiek Ataungo jauntxoek gogokoak izan ziren, eta interes berezia agertu zuten burujabetasun hori lortzeko. Horrela berriro aginte politiko eta ekonomikoa euren eskuetara itzuliko zelako<sup>28</sup>.

---

28 AUA, 01-01

Burujabetza baimena lortu arren, Ataunek ez zeukan ordaindu beharreko dirutza (83.685 erreal); mailegua eskatu beste erremediorik ez zuen izan. Horri buelta emateko, zalapartaka, eta askorik pentsatu gabe, udalak lurrak saltzeari, zerga berriak ezartzeari eta basoak ustiatzeari ekin zion. Ahalegin guztiak, ordea, ez ziren nahiko izan erregeak ezarritako epean zorrak ordaintzeko, eta luzapena eskatu behar izan zuten. Erregeak ez zuen eragozpenik jarri, baina azkenean, ataundarrek eskatutako bi hilabeteko luzapena luzeago bihurtu zen<sup>29</sup>. Halaber, erregearen beste zenbait zerbitzu ere ordaindu behar zituztenez, Koroari herri-lurrak saltzeko baimena eskatu behar izan zion<sup>30</sup>.

Aipatutako mailegua ordaintzeko, Ataungo Udalak bere jabetza guztiak eskaini bazituen ere, ezusteko zailtasunak sortu zitzaizkionez, ez zen nahikoa izan. Gauzak horrela, azkenean, herrian jabetzak zituzten guztiekin adostasun batera iritsi, eta denen ondasunak hipotekatu behar izan zituzten erregeari ordaintzeko<sup>31</sup>. Udalak, berriz, eskuartean zituen zorrak ordaintzeko, bere hariztiak, pagadiak, gaztainadiak, belardiak, herrian zeuden erroten erdiak —beste erdiak Lazkaoko jaunarenak ziren— eta Telletxe, Telletxe Erdiko eta Sariarte baserriak hipotekatu zituen euren ondasun guztiekin, baina behar hainbateko bermerik ez zutenez, herritarren jabetzakoak ziren baserriak ere, guztira 72, hipotekatu egin behar izan zituzten. Aipatu behar da herriko erroten erdiak ez ezik Aia auzoko baserriak ere hipotekatu gabe gelditu zirela horiek ere Lazkaoko jaunarenak zirelako<sup>32</sup>.

Azkenean, 1615ean, herriaren mugak ondo finkatuta, Ordiziatik banantzea lortu zuten. Hurrengo urtean ezarri ziren herriaren mugarriak, eta orduan izendatu zen lehen alkatea ere: Andres de Telleria. Urte hartan, Ataunen 304 *bizilagun*<sup>33</sup> zeuden, hau da, 1.500 biztanle inguru.

---

29 AUA, 182-16

30 AUA, 182-14

31 AUA, 223-30

32 AUA, 223-30

33 Bizilagunak, gaztelaniazko *vecinos*, familiaburuak ziren; horiekkontatzen ziren herriko zent-sua egiteko garaian. Bizilagun bakoitzeko 4-5 biztanle zeudela kalkulatzeko zuten. Kontaketa-neurri hori 1768ra arte egon zen indarrean.

Andres Telleria alfereza alkate izendatu zuten urte berean, herrian arma eta guzti tropak osatu eta Felipe III.a erregeari harrera egi-tera joan ziren Irunera, probintziako gainerako herrietakoekin batera. Berau izan zen ataundarrek erregeari egin zioten lehen harrera ofiziala<sup>34</sup>.

1665eko irailean, Ataunek bere burujabetza lortuta, udalbatzarra antolatu eta ordenantzak sortzeko prozesuari ekin zioten. Horretarako, San Migel eguneko meza nagusiaren ondoren bildu ziren eliza ondoko kalostran<sup>35</sup>. Herritarrek ez zuten Lazkaoko jaunaren menpe jarraitu nahi; bere menpe egoteak gobernu-arau zorrotzen menpe egotea esan nahi baitzuen. Besteak beste, berak jasotzen zituen elizako hamarrenak, eliz gizonak ere berak aukeratzen zituen, baserritarrei alea bere errotan ehoarazten zien. Neurri horiek guztiak zirela eta, herritar guztiak Lazkaoko jaunarekin beldurtuta eta haserre zeuden. Gehiegikeria horiek amaitzeko, 1665eko irailaren 28an erabaki zuten Lazkaoko jauna albo batera utzi, eta udalbatzarra hamar herritarrez osatzea: alkatea, alkateordea, errejidorea, prokuradorea eta sei ahaldun.

Aukeratutako hamar udal-ordezkaritatik bost, urtero aldatu behar ziren: Ergoiena, Arrondo, Iztator eta Elbarrena auzoetakoak. Horretarako, batzarrera bildutako kapareek (aitoren semeek) hainbat zedula edo txartel prestatzen zituzten, eta horietako bosti *elector* hitza idatzi, eta gainerakoekin batera zilarrezko pitxar batean sartzen zituzten. Ongi nahastu ondoren, hautesle bakoitzak txarteltxo bat ateratzen zuen, eta *elector* izenekoak ateratzen zituztenek (bostek) osatuko zuten *aurre-rantzean* udal-ordezkaritza berria. Hautaketa metodo hari “*txotx ala motx*” deitzen zioten. Alkateak eta errejidoreak gutxienez bi urte egin behar zituzten karguan.

*Este año a los primeros de abril de bis, el Rey Nuestro Señor hizo mando de facer Villa a esta Noble, y dar la Alcaldía con civil, criminal, mero y mixto imperio, con los mismos privilegios que tienen otras villas de esta provincia con voz y boto en las Juntas: Fue electo por primer Alcalde Andrés de Tellería.*

34 AUA, 01-01

35 AUA, 01-01

Bitxikeria modura, aipatu nahi dugu Atungo lehen udaletxea edo kontzeju-etxea 1658an eraiki zutela. Ordura arte, herri-batzarrak San Martin elizako kalostran egiten zituzten. Horren ondorioz, batzar haietan hartutako erabakien berri biltzen duten agiriak Elizako koruko armairuan egon dira gordeta luzaroan. Gaur egun, dokumentu haiek guztiak udaletxeko artxiboan daude jasota.

# Aduanak

---

Aduana-sistemaren egitekoa muga-zerga ezartzea izan zen. Barnealdeko portuei lehen tarifa 1403an ezarri zitzairen. Gero, Felipe II.ak (1556-1598) aduana-sistema berregituratu, eta ordainketa postuak ugaritu zituen. 1714an, Felipe V.ak berriro hainbat aldaketa egin zituen arlo horretan, eta aduanei ezarritako araudi eta aginduak berritu zituen. Horrek eragina izan zuen Arabak eta Gipuzkoak Nafarroarekin zituzten mugetako aduanetan; tartean ziren Zalduondokoak, Aguraingoak, Tolosakoak, Segurakoak eta Ataungoak. Aurrez aipatu bezala, Ataungoa ezarri aurretik, Ordizian egon zen aduana.

Hauek ziren errege-aduana haien zeregin nagusiak: mugak zaintzea, zuzentasun publikoaz arduratzea eta herri bakoitzera sartzen ziren jeneroei eta merkantziei zegozkien zergak biltzea. Nafarroatik ekartzen zituzten produktuek zerga ordaindu behar izaten zuten Ataungo aduanan, baita Gipuzkoatik, Bernoa portuan barrena, Nafarroara eramaten zituztenek ere. Bide ofizialaz gain, Arratetatik Aitzarte eta Intxaustin barrena Allekora iristen zen beste galtzada bat egon zen. Azken bide hori Aralarren Amezketatik zetorren bidearekin elkartzen zen; bi bideak elkartuta, Aralar gurutzatu eta Sakanaraino iristeko moduan ziren.

Ataungo aduanari dagokionez, aurkituriko daturik zaharrenak 1707koak dira. Ordurako aduana Arbelditxo etxean zegoen; gaur egun, Amistrazio esaten zaio. Ergoieneko aduana hori Nafarroatik sartzen ziren elikagaien zergak biltzeko zen. Kokapenari ere eman behar zaio bere garrantzia, edo tartea. Ergoienan eraiki zuten bertan amaitzen zelako errepidea, eta Nafarroara joan nahi zutenek, auzoan zegoen egurrezko zubi bat gurutzatu eta Saratsamenditik aurrera egiten zuten.

Aduanan zergak ordaindu behar izaten ziren, eta kanpoan produktuak erosi eta Atauna bueltan etorritako herritarrak berau saihesten ahalegintzen ziren, zergarik ordaindu beharrik ez izateko. Horren adibide da 1707ko apirilean Bilbotik piperbeltzez, piper-hautsez eta kakaosz kargatuta zetozen bi mandazaini jarritako isuna. Izan ere, Ataungo mugara iritsi eta mugazainak ikusi zituztenean, buelta erdia hartu eta ihesari

ekin zioten, baina mugazainek bahitu eta isuna ordainarazi zizkieten. Mandazainen ordezkariak haien hutsegitea aitortu, eta lortu zuen zigorrra bertan behera utzi eta bi gizonak aske uztea. Hori bai, produktuei zegokien ohiko zerga ordaindu behar izan zuten<sup>36</sup>.

1707tik 1833ra bitartean hamahiru gizonek bete zuten Ataungo aduanako zaindari kargua. Denak ez ziren ataundarrak izan, tartean baziren Idiazabalen eta Lazkaon jaioak ere. Ataungo mugetatik harago joan zenik ere egon zen. XVIII. mende hasieran, Ataungo aduanan zaintzaile lanetan aritu zen batek, F. Burinaga Urrestarazuk, Felipe V.aren alde borrokan zebilela artilleriako sarjentu kargua lortu zuen, eta 1725eko uztailean, Sizilian hil zuten 44 urte zituela.

Aduana zabalik egon zen urteetan, isunak eta zigorrak ere ohikoak izan ziren. 1725eko abenduan, esaterako, bakailaoa eta paperak herrian sartu nahi zituen merkatari bat salatu zuen aduana-zainak<sup>37</sup> eta hurrengo urtean, mikeleteek Iturmendiko bi anaia atzeman zituzten lau zaldirekin azukre-garraioan. Mugazainak ezarri zien zigorra zela eta, auzitan ibili ziren bi aldeak<sup>38</sup>.

Mikeleteek zuten basoak zaintzeko ardura, inor edo ezer ez zedin igaro mugaren alde batetik bestera, eta esan behar da beraien lana fin betetzen zutela. Artxiboan aurkitu dugu horren frog<sup>39</sup>. 1774ko maiaztzean mando bat baimenik gabe eta zergak ordaindu gabe Nafarroara pasatu zela jaso zuten mikeleteek beraien txostenean, eta Aduanako zaintzaileek goi-agintariei eman zieten gertaera haren berri. Gero haiek mandoa mugaren alde batetik bestera igaro zuenari abisua pasa eta zigorra ordainaraz ziezaioten.

1505ean Enirio-Aralargo lurren erabilera zehaztuta geratu bazen ere, historian zehar liskar ugari izan dira erabilera okerra dela eta. 1792an, esaterako, Ataungo eta Beasaingo udal-ordezkariek jakin zuten beraiei zegozkien larreetan zebiltzala Bozue Nagusiko<sup>40</sup> herritarren ardi asko. Gauzak horrela, Beasaingo eta Ataungo alkateak eta herri horietako 30 lagun, armak hartu, eta mendira joan ziren erasotzeko asmoz. Bertan,

---

36 AUA, 69-24

37 AGG/GAO.PT.1887-183. orria

38 AUA, 154-08

39 AUA, 322-02

40 Bozue Nagusia Amezketeta, Abaltzisketa, Orendain, Ikaztegieta eta Baliarrainek osatzen zuten.

ordea, Amezketako 100 gizon armaturekin topo egin zuten. Ataun eta Beasaingoei aurre hartu, eta Amezketakoak izan ziren lehenak erasotzen. Tiroka eraso zuten, eta hamalau pertsona ere atxilotu zituzten; tartean, Ataungo alkatea. Gertaera haien harira, 1798an Enirio-Aralarko larreen erabilera arauak idatzi zituzten.

Aduana ez zen, ordea, merkantzientzat eta animalientzat bakarrik. Herritarrek erkidego barruan batetik bestera ibili nahi bazuten, epaileari (Ataunen kasuan Arrasatekoari) baimena eskatu behar izaten zioten, eta hark pasaporte bat ematen zien<sup>41</sup>. 1808ko abenduaren 4an, Napoleon Bonapartek arau hori bertan behera utzi nahi izan zuen, erkidego barneko aduanak desagerrarazi eta Estatu bakoitzaren mugetan bakarrik gorde<sup>42</sup>.

Mugako zaintza kendu arren, herrietan ordena beharrezkoa zen, eta, 1824ko Batzar Nagusien arabera, alkateek ziurtatu behar zuten honako hauek betetzen zirela<sup>43</sup>:

- Herriko ordena gorde, eta, norbaitek arazoren bat sortuko balu, atxilotu.
- Astero herrira joandako pertsonen berri eman.
- Errege-bideak zainduko zituzten mikeleteak beharrezkoak ziren, baita beste batzuk ere mendian barrena zaintzan aritzeko.

Mendi-zaindari horiek izan ziren mikelete-taldeen aitzindariak, 1839an Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiek sortuak. 300 gizoneko talde osatu, eta haren zeregina zen zuzentasun publikoa zaintzea eta gaizkileen ardura izatea. 1856an, lehenaz gain, beste zeregin batzuk ere ezarri zizkieten. Hala nola probintzien arteko mugazaintzea mendietan eraikitako postuetan, eta Nafarroatik Gipuzkoara sartzen ziren produktuei zerga kobratzea. Gainera, hainbat produkturi *sitse zerga* ezarri zitzaizkion—hots, arantzelarekin produktua garestitzea—, estraperloa ugaritu zen Ataungo eta Etxarri Aranatzeko basoetan. Herritarrek, mugazainen neurriak saihestu nahian, gauez, mendiz eta ezkutuan

41 AUA, 69-24

42 AUA, 15-28

43 AUA, 300-38

produktuak batetik bestera garraiatzen hasi ziren, ibilaldi luzeak eginez. Besteak beste, hain premiazko ziren lehengaiak ekartzen zituzten Sakana aldetik: patata, olio, irina, artoa... Kontrabandoan zebiltzala harrapatuz gero, mikeleteek produktuak kentzeaz gain, bere balioaren halako sei ordainarazten zieten.

Mikelete zerbitzuan sartzeko, hasierako urteetan, baldintza hauek bete behar zituzten:

- Gipuzkoarra izatea; eta, hala izan ezean, Arabakoa edo Bizkaikoa izatea.
- Bi urtez portaera zintzoaren ziurtagiria aurkeztea. Hots, frogatu behar izaten zuten tabernetan nahiz sagardotegietan ez zirela ibiltzen, jateko ez bazen eta karta-jokoetan ez zirela ibiltzen. Horrez gain, bizarra ondo moztuta ibili behar izaten zuten, gutxienez astean bitan.
- Ezkontzen uzten zitzaien.
- 20 urtetik 30era bitarte izatea.
- Gutxienez 1,66 metro neurtu behar zuten.
- Idazten eta irakurtzen jakin.
- Auzirik ez izan.

XIX. mendean, baldintzak aldatuz joan ziren, baita postuari zegozkion betebeharrak ere. 1856an, lehenaz gain, beste ardura batzuk ezarri zizkieten: lapurrak zaintzea, segurtasuna bermatzea eta zergak biltzea. Aldaketok, ordea, ez ziren izan Ataunek Nafarroarekin egiten zuen muga mikeleteek ezagututako aldaketa bakarrak. XIX. mendearen bigarren erdian ireki zuten Lizarrustirainoko errepidea, eta, ondorioz, Ergoienako administrazioa itxi eta Lizarrustin jarri zuten aduana-etxe berria. Lehengaiak batetik bestera garraiatzen zituztenek, ordea, zergarik ordaindu beharrik ez izateko muga mendiz igarotzen zutenaz, 1869an Saratsamendin, Ollangan eta Igaratzen etxeak ireki zituzten mikeleteentzat, dena kontrolpean izan zezaten. Lizarrustiko mikelete-etxe berria eraikitzeko beharrezko ziren lurak Valmedianoko markesari desjabetu zizkieten 1885ean.

Lizarrustiko errepeidea ireki berria zen 1885ean, eta aldundiak ohar bat zabaldu zuen esanez erkidegora sartzen ziren lehengaiak derrigor errepeide horretatik igaro eta zergak ordaindu behar zituztela.

1887an aurkeztu zuen udalak Lizarrusti-gainean mikeleteentzako etxeak nola eraiki behar zen eta lanak enkantean hartzeko zein baldintza<sup>44</sup> bete behar ziren. Etxe berri haren beharra zegoela Amistrazio-etxeke mikeleteak ere adierazi zion Gipuzkoako mikeleteen arduradun nagusiari, gutun bidez<sup>45</sup>:

*“Mikeleteengandik urrun dago Administrazio-etxea, eta, ondorioz, gauez eraso izateko arrisku handia dut. Hori dela eta, nire kexaren bidez eskatu nahi dut zergak biltzeko beste lokal bat hartzeko mikeleteen etxetik gertuago, babestuago egon nadin. Izan ere, orain, gauetan babesik ez dudanez, ezin izaten dut bertan egon eta horrek zerga-bilketan ere eragiten du. Gauzak horrela, Lizarrustin barrena, Ataun Etxarri Aranatzekin lotzen duen errepeidea denez, egokiena litzateke eraikin berria bertan kokatzea”.*

Errepeidea ireki eta Lizarrustin mikeleteentzako eraikuntza egin zutenetik, alde batera utzi zituzten beste hiru etxeak (Ollangakoak, Sarasamendikoak eta Igaratzakoak). Herriko mugak zaintzen egondako mikelete kopuruari dagokionez, datu hauek aurkitu ditugu: San Gregorion zortzi mikelete egon ziren guztira, Saratsamendin bi eta Lizarrustin 28. Noski, denak ez ziren aldi berean egon, aurkitu ditugun datuak 1863tik 1858ra artekoak dira. Horren gain, urte horietan zer-nolako soldatak izan zituzten ere jaso dugu; zehazki, 1920. urtekoak.

MIKELETEEN SOLDATA 1920an	
Sarjentua	Eguneko 6 pezeta
Kaboa	Eguneko 5 pezeta (0,030€)
Korneta-jolea	Eguneko 4,65 pezeta
Mikeleteak	Eguneko 4,5 pezeta (0,027€)

44 AUA, 193-25

45 GAO-JD.IT.989-18

1937ko abuztuaren 25ean argitaratutako dekretuaren bidez kontzertu ekonomikoa indargabetu zutenean desagertu ziren Gipuzkoako eta Bizkaiko mikeleteak mugetatik. Zereginen bat emate-aldera, Foru Aldundiko Aurrezki Kutxen bulegoen ardura eman zieten. 1950ean, erre-pideak zaintzeko eta lege-haustek kontrolatzeko ardura eman zieten. Azkenean, 1967an, betirako desagertu ziren.

Taula honetan bildu ditugu hainbat produkturengatik erkidegoan sartzeko unean aduanan ordaindu behar izaten ziren zergen berri. Hain zuzen ere, 1905<sup>46</sup>eko eta 1958ko<sup>47</sup> zergen zenbatekoak.

<b>ADUANAN ORDAINDU BEHARREKO ZERGAK</b>		
<b>Produktua</b>	<b>1905</b>	<b>1958</b>
Ardoa (litroko)	0,70 pezeta	0,14 pezeta
Ardo gasduna (litroko)	--	2,80 pezeta
Alkohola (litroko)	1 pezeta	1,75 pezeta
Likoreak: pattarra, anisa (litroko)	1 pezeta	1,40 pezeta
Gatza (kiloko)	0,036 pezeta	--
Irina (kiloko)	0,10 pezeta	--
Olioa (litroko)	0,60 pezeta	0,07 pezeta
Garbantzua (kiloko)	0,20 pezeta	0,02 pezeta
Gailetak (kiloko)	--	0,14 pezeta
Haragia (kiloko)	--	0,08 pezeta
Urdaiazpikoak eta hestekiak	--	0,35 pezeta
Kontserbak: tomatea, piperrak...	--	0,07 pezeta
Perfumeria (litroko)	--	1,75 pezeta
Xaboa (kiloko)	--	0,07 pezeta

46 AGG/GAO.JD.L.973

47 AGG/GAO.JDS.776-2

**2. Atala: XVIII. mendetik XXI.  
mendera gerrek Ataunen utzi  
dituzten ondorioak**

---



## XVIII. mendeko hainbat gerrate

---

XVIII mendean hasi eta ehun urtean baino gutxiagoan, lau gerrate gogor jasan zituzten Euskal Herrian: Konbentzio Gerra, Independentzia Gerra eta bi Karlistaldiak. Horiek ez ziren izan, ordea, ataundarrek sufritu zituzten gerra bakarrak. Gerra horien aurretik eta ondoren ere, nabarmenak izan ziren gerren eraginak herrian; bai zuzenean eta bai zeharka. Izan ere, askotan herrian ekintza zuzenik gertatu ez bazen ere, udalak, erregearen aginduz, dirua ordaindu behar izan zuen gerragastuei aurre egiteko. Horretarako, maiz, beren ondasunak saldu beste erremediorik ez zuten izan.

Horrez gain, herritar asko ere hil ziren gerra haietan. Behartuta eramaten baitzituzten soldadu. Horiek soldata kobratzen zuten, eta, gerran hiltzen bazituzten, beraien senideek ordaindu gabe geratutako soldata zatia jasotzeko eskubidea zuten. Hori bai, hileta eta meza-gastuak ordaintzeko erabiliko zen. Artxiboko dokumentuetan ageri da horren berri.

1725eko uztailean, ataundar mutil gazte bat hil zuten Siziliako Erresuman borrokan ari zela<sup>48</sup>. Artxiboko dokumentu batean ageri den gisara, aitari dei egin zioten semeari zegokion dirua kobratzera joan zedin.

XVIII. mendean gerran ibili ziren ataundar denak ez ziren soldadu joan, mandazainak ere izan ziren. 1726ko dokumentu batean<sup>49</sup> agertzen denez, sei ataundarrek<sup>50</sup> eraman zizkieten ekipajeak Ordiziatik Bergarara Burgosko bigarren batailoikoei. Herrira itzuli zirenean, udalak agindu zien garraiolari irabazitako dirua aitortzeko.

Nafarroarekin mugan egoteak betidanik baldintzatu du herriko bizimodua: 1739an, esaterako, Frantziako muga babestu behar zela eta, 18-60 urte bitarteko gizonen zerrenda egiteko agindu zuten. 523 gerrari-gairen zerrenda egin zuten, baina, ordurako, horietako asko itsasoz beste aldera joanda zeuden. Hona hemen auzo bakoitzetik zenbat pertsona sartu zituzten zerrenda horretan eta bakoitzaren lanbidea.

---

48 GAO.PT.1887-137. orria

49 GAO.PT.1887-47. orria

50 1. eranskina

Auzoa	Pertsonak
San Gregorio	57 nekazari eta errotari bat
Ergoiena	47 nekazari
Aia	69 nekazari
Urretxuzearra	68 nekazari
Elbarrena	43 nekazari
Ustatxozearra	11 nekazari eta arotz bat
Aitzarte	34 nekazari eta hiru artzain
Axarresta	20 nekazari eta arotz bat
Murkondo-Arin	49 nekazari eta hiru arotz
Arrondo	20 nekazari, 4 hargin, 2 arotz, 5 perratzaile eta 2 errementari
Astigarraga	20 nekazari, 2 errementari, 5 arotz, 2 zapatari, 3 artzain eta hargin bat
San Martin	13 nekazari, 5 hargin, 2 errotari, 2 administrari, 2 guarda, medikua, organo-jolea eta mandazain bat

Hurrengo urtean ere, 1740an, Gipuzkoako Aldundiak deialdia egin zuen ingelesen erasoak zirela-eta probintziako portuak babesteko boluntarioak elkartzeko. Abuztuan egin zen deialdian 180 bat ataundarrek<sup>51</sup> eman zuten izena; tartean, alkateak eta udal-karguak zituzten hainbat ordezkari. Urte bereko irailean, oraindik beldur ziren ingelesak Gipuzkoari erasoko ote zioten, eta bigarren deialdi hartan beste 35 bat herritar<sup>52</sup> apuntatu ziren. Probintzia babesteko prest agertu ziren boluntarioak denetarikoak ziren: baserritarrak, harginak, errotariak, baita alferrez bat ere. Zerrendan herriko auzo guztietako jendea ageri da, baita etxe bereko senide bat baino gehiago ere (aita-sumeak, anaiak...)<sup>53</sup>.

Aldundiaren asmoa zen izena eman zuten pertsona guztien artean herriz herri 50 kideko konpainiak osatzea. Horretarako, hautagaiek izena ematen zutenean etxean zein arma zituzten eta bolborarik eramango ote zuten edo ez ere aipatu behar izaten zuten. Norberak etxetik eramandako armekin osatzen baitzuten gerrarako artilleria. Behin izena

51 2. eranskina

52 3. eranskina

53 GAO.PT.1899-272 orritik 279 orrira

eman ostean, Aldundiak zozketa bidez hautatu zituen Ataunen izenean Probintzia babestera joango ziren soldaduak<sup>54</sup>.

Ingelesen erasoen beldurrak, ordea, ez ziren amaitu XVIII. mendearen lehen hamarkadetan. Eta 1762an, oraindik, Ingalaterrako armadaren erasoen beldur jarraitzen zuten. Gauzak horrela, Gerrako Diputazioak jarraitzen zuen lurraldearen mugak babestu eta zaintzeko batailoiak osatu nahian. Horrela, bada, Ataungo Udalak herrian bizi ziren 18-60 urte bitarteko gizonzkoen zerrenda<sup>55</sup> prestatu zuen. Guztira 350-400 gizon ez osatutako zerrenda hartatik, zozketa bidez 50 gerra-gizon izendatu zituzten. Horiez gain, agintean izango ziren kapitain, teniente, alferrez, sarjentu, eta abarrak ere izendatu zituzten<sup>56</sup>.

Mugak zaintzeko soldaduak probintziako itsasbazterrean ez ezik, barnealdean ere behar ziren; erreinu ezberdinetako probintzia-mugak zaintzeko. Ataun Nafarroarekin mugan zegoenez, bertatik zetozen liskar eta erasoei aurre egiteko herritar gerra-mutilak egoten ziren. Horiek borondatez ematen zuten izena, eta, udalaren aginduz, bakoitzak etxean zeuzkan armak egoera onean zeudela egiaztatzeko, entsegu edo “instrukzio” jardunaldiak egiten zituzten<sup>57</sup>. Norberak etxean zituen armez gain, udalak ere bazituen hainbat arma eta fusil, eta, tarteka, haiek zaindu eta garbitu behar izaten ziren. Lan horren ardura herriko sarrailagileak zuen<sup>58</sup>.

Taula honetan, 1764, 1773 eta 1775 urteetan egindako alardeetara herritarrek eramandako armen berri jaso dugu.

Eguna	Arma	Kantitatea
1764-06-13	Eskopetak	85
	Trabukoa	1
	Fusila	1
1773-03-31	Eskopetak	67
	Fusilak	8
1775-06-05	Eskopetak	56

54 4. eranskina

55 5. eranskina

56 GAO.PT.1921-200. orria

57 GAO.PT.1932-13. orria

58 AUA, 07-15

XVIII. mendearen hasierako urteetan Ataunen gerrarik izan ez bazen ere, hainbat atandarrek pairatu zituzten guduen eraginak. Artxiboetako dokumentuak arakatuta jakin dugu 1753ko urtarrilean herritar bat<sup>59</sup> A-taungo udaletxeko espetxean zegoela atxilotuta Gasteizko *Regimiento de Infanteriatik* ihes egin zuelakoan. Donostiako Gerrako Komisarioak zera eskatu zuen, atxilotua bere aurrera eramateko, eta bidaiari garraiolari izateko agindua herriko mandazain bati eman zioten. Lanaren truke, beloizko 75 erreal jaso zituen. Aipatutako bidaiari ihesik egin ez zezan, espetxeratuari oinetan errematxatutako oin-burdinak jarri zizkioten.

1761ean Arzate baserriko bi seme<sup>60</sup> ere Espainiako tropetan zebiltzala jaso dugu; bata Espainiako Armadaren itsasontzi batean eta bestea, tertzioetan gerrari.

---

59 GAO.PT.1915-194. orria

60 GAO.PT.1923-128. orria

## Konbentzio gerra (1792-1797)

---

1793an Luis XVI.a exekutatu ostean, Espainiak bere burua libre ikusi zuen, Frantziarekiko loturak apurtu eta gerra egiteko. Berehala hasi zuten Europako monarkien koalizioak (Austria, Prusia, Britainia Handia eta Espainia) eta Frantziako Konbentzioaren gobernuak. Nolabait ordena tradizionala hautsi zutenen aurka egin zuen erregimen zaharreko Espainiak, hau da, erregeen eskubideen alde eta nobleziaren pribilegioen mesedetan, baita Elizaren nagusigoaren alde ere. Horrela, bada, Espainiako tropek Frantziari eraso zioten Kataluniatik, Aragoitik eta Hego Euskal Herritik<sup>61</sup>.

Konbentzio Gerra erabakigarria izan zen euskal probintziek estatuko gainerako herrialdeekin izango zuten harremanen hasiera markatzeko.

Gipuzkoa bi leinutan banatua zegoen, tokiko interesen arabera; garrantzi ezberdineko leinuak ziren. Batean sentimendu erlijioso, monarkiko eta espainiarrak zituzten handiki asko zeuden; tartean, Valmediak markesa. Eta, bestean, entziklopediak liluraturik zituen burges gutxi batzuk, frantsestua<sup>62</sup>.

Frantziaren erasoei aurre egiteko, 1793an, Gipuzkoako Foru Aldundiak lehenbizi armada osatu behar izan zuen, probintziako mutil gazte ezkongabeekin. Boluntarioek osatzen zituzten armada haiek; ataundarrak ere baziren tartean. 1793ko otsailaren 7an Ataungo eskribauaren aurrean 20-30 urteko 23 mutilek<sup>63</sup> eman zuten izena Frantziako muga zaintzeko<sup>64</sup>. Handik gutxira, apirilaren 16an, herri batzarrean erabaki zuten zein joango ziren gerrara. Guztira, 22 gizon gaztek osatutako hiru talde egin zituzten: kapitain, sarjentu, teniente, tanbor-jolea... Lehen taldekoak joan ziren Frantziarekiko mugara borrokara beste bi taldeetakoek alardeetan parte hartu beharko zuten, eta, hala suertatuz gero, gainerako 4.600 mutilekin borrokan parte hartzeko prest egon behar

---

61 <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/konbentzio-gerra-euskal-herrian/ar-154139/#hasiera>

62 Zabala Unzurrunzaga, J.A. (1989)

63 6. eranskina

64 GAO.PT.1946-45. orria

zuten<sup>65</sup>. Hurrengo urteko urtarrilaren 16an, aurrez Frantziako muga zaintzera joan zirenei txanda egiteko, beste 29 gerra-mutil<sup>66</sup> aurkeztu ziren; denak ez ziren Ataunen jaioak, baina bai bertan bizi zirenak<sup>67</sup>.

Giza ekarpenaz gain, Gipuzkoak laguntza materiala ere eman zuen gerra hartarako: janaria, garraioa, egurra... Dohaintza hark ekarritako gastua probintziako udal guztien artean ordaindu zuten.

Euskal Herria gerra haren erdigunean egon zen; borrokaldi ugari gertatu ziren bertan. Hasiera batean, Espainiako armadak hartu zuen iniziatiba, Hendaian eta Saran sartuta. Eraso horri frantziarrek gogor egin zioten, ordea; 1794ko udan, Donostiara sartu ziren tropa frantsesak, eta, poliki-poliki, Gipuzkoa guztia konkistatu, batzarkideak atxilotu eta Ebroraino iritsi, bidean aurkitutako guztia txikituz edo eramanez.

Frantsesak Donostian sartu zirenean, hiriak erresistentzia jarri ordez, ateak ireki zizkien. Adrian de Moncey jeneral frantziarrak agindu baitzien Gipuzkoa Errepublika Independente bihurtuko zela. Gertaera hura zela eta, Godoyk, Karlos IV.aren ministroak, Gipuzkoa lurralde traidore izendatu eta foruak kentzeko ahalegina egin zuen. Frantsesek sarraski izugarriak egin zituzten: apaiz, fraide eta mojak atxilotu, elizak itxi eta urrezko objektuak lapurtu...

Frantziarrak Donostian sartu ziren egun berean, Gipuzkoako Batzarreko bando frantsestuko bi kide Frantziarekin bakea negoziatzen hasi ziren. Negoziaketen ondorioz, hamar eguneko su-etena lortu zuten, eta bien bitartean hitzarmen proiektua idatzi zuten:

1. Erlijio katolikoaren kultu askea errespetatuko zen.
2. Foruak gordeko zituzten.
3. Gipuzkoa probintzia independentea izango zen; 1200era arte bezala.
4. Ez zuten inor behartuko Konbentzio Gerran armak hartzera.
5. Frantziak artikulua hauek errespetatuko zituen.

---

65 AUA, 02-02

66 7. eranskina

67 GAO.PT.1947-15-126. orria

Frantsesek, ordea, ez zuten proposamena onartu. Haien nahia baitzen Gipuzkoa Frantziara anexionatzea. Horretan zebiltzala, Baionan, Gipuzkoako Batzarra atxilotu zuten, eta Arrasateko Batzarreko hemezortzi udalerrietako ordezkariak laguntza eskatu zioten Bizkaiari eta Arabari. Euskal lurraldeen arteko batasuna ikusirik, Monceyk, Gipuzkoa ez ezik, Araba eta Bizkaia ere bereganatu nahi izan zituen Frantziaren menpeko balizko Errepublika independente horretara, baina ez zuen arrakastarik izan; ez gipuzkoarren artean, ez eta Frantziako boteretsuen artean ere<sup>68</sup>.

XVIII. mendearen erdialdera, krisi ekonomiko latz eta luzeak, eta horrek ere izan zuen zerikusirik Konbentzio Gerran, aduanen arazoan oinarrituriko planteamendu foralista abian jarri baitzen.

Euskal lurraldeek kontsumorako produktu gutxi zituztenez, aduanak Ebron egotea ondo zetorkien, ekonomikoki bizi-maila apala izaten jarraitzeko, kontsumorako artikuluegatik ez baitzen zergarik ordaintzen. Aldiz, merkataritza-sektorearentzat aduana Ebron egotea oztopoa zen, horrek zaildu egiten baitzien beraien produktuak estatura zabaltzea. XVIII. mendearen erdi aldera arte, burdinoletan produzitzen zenaren gehiena Europako herrialdeetara eta Hego Amerikako kolonietara saltzen zuten<sup>69</sup>.

Espainiako merkatuan sartzeko zailtasunak ia gaindi ezinak izan ziren, Espainiko Estatuak muga-zerga ezarri baitzien euskal lurraldeei XVIII. mende amaieran. Horrek euskal gizartean bereizketa sortu zuen; merkataritza batetik eta nekazariak bestetik. Erakunde-mailan ere nabaritu zen zatiketa hori. Izan ere, Konbentzioa zela medio eta Gipuzkoako agintariak harturiko jarrera zela medio, bi Aldundi edo Batzar sortu ziren; bata Getarian (merkataritza-sektorearen ordezkari) eta bestea Arrasaten (nekazaritza inguruetaoak). Biak ziren foruen aldekoak, baina lehenak aldatu egin nahi zituen; batez ere, Gaztelarekiko eta mendebaldeko mugetako aduanak kentzea nahi zuten, eta nekazariak, berriz, aduanak bere horretan jarraitzea nahi zuten<sup>70</sup>. Beraz, esan liteke Hego Euskal Herriko probintzietan I. Karlistaldiaren oinarritzko arrazoi izango

68 <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/konbentzio-gerra-euskal-herrian/ar-154139-144609/#144610>

69 Zabala Unzurrunzaga, J.A. (1989)

70 Zabala Unzurrunzaga, J.A. (1989)

zena jada sumatzen hasia zela. Gerra haien atarian Getariako Batzordekoek liberalen alde egin zuten, eta Arrasatekoak karlisten alde.

Ataunen bertan gerra-borrokaldirik izan ez bazen ere, udalari eta herritarrei eragozpen eta gastu ugari sortu zizkien. Batetik, etxe ugaritako mutil gazte sasoikoak joan zirelako gerrara. Ondorioz, etxe-baserrietan langileak falta ziren, baita haien soldatak ere. Hori dela eta, etxe askotan emakumeek atera behar izan zituzten baserriak aurrera. Bestetik, beste edozein gerratan bezala, udalarentzat gastu ekonomiko handia izan zen. Izan ere, udalen gain geratu zen tropa frantsesak janariz, edariz eta egurrez hornitzearena eta behar zituzten bagaje-, ostatu- eta ospitale-zerbitzuak eman eta ordaintzea. Gainera, zerbitzu haiek eskaini behar izateak baserritarrei albo-kalte handiak eragin zizkien. Besteak beste, askotan beraien idiak utzi behar izan zituzten garraiorako, eta horrek kalteak eragiten zizkien nekazaritzako beraien egunerokoan, lanerako idirik gabe geratzen baitziren, inolako kalte-ordainik jaso gabe, gainera. Herriari sortutako zorrak ordaintzeko, maileguak eskatu behar izan zizkieten herritarrei. Besteak beste, Arin Handia baserrikoek 300 dukat utzi zizkieten, urteko 15 dukateko interesekin bueltatzeko. Zor horiek ordainarazteko, udala bere jabegopeko hainbat lur saldu beharrean ere suertatu zen. Ondorioz, ataundar batzuen jabego pribatua handitu egin zen, eta horrekin batera baita ordaindu beharreko zergak ere. Horrek herritarren artean haserrea sortu zuen. Eta, poliki-poliki, herritarren arteko ezberdintasunak gero eta nabarmenago bihurtzen hasi ziren. Batetik, burgesia liberala, frantziarren ideiekin bat egiten zutenak, eta, bestetik, foruzaleak.

Gerrara joan ziren herritarrek beraien armak eramane behar zituzten, eta udalak ere udaletxean zeuden fusilak utzi zituen. Horiek, ordea, gerrara joan aurretik garbitu eta prestatu behar ziren, eta zeregin hura Urdangarin Handiko seme bati eman zioten. Itxura denez, udalak ez zizkion berehalakoan ordaindu gastuak, eta idatzi bat bidali zuen, zegokion zorra ordaindu ziezaiotela.

Dena ez zen txarra izan, ordea. Konbentzio Gerrak ondorio onik ere izan zuen: Foru Aldundiek *Konferentzia* izeneko erakunde politikoa sortu zuten. Ideia aurrez ere lantzen ari baziren ere, 1793ko azaroan hartu zuen forma. Bertan aldundietako ordezkariak hartzen zuten

parte hainbat gairen bueltan erabaki bateratuak hartu eta elkarrekin lan egiteko: zergak, ekonomia, arlo judiziala, hezkuntza, estatuarekin harremanetan jartzeko eta bereziki mehatxupearan zituzten askatasun publikoak defendatzeko<sup>71</sup>.

Azkenik, aipatu behar dugu gerra amaitu zenean, ez zela pozik eta askatasun handirik etorri ez Atauna eta ez Gipuzkoara. Izan ere, frantsesek alde egin ostean, ingelesez, portugesez eta espainiarrez osatutako tropa aliatuak agertu ziren hornigai bila. Hori gutxi ez, eta frantsesek Gipuzkoari berriro erasoko zioten izua zabaldu zen probintzian. Ondorioz, lurraldea babesteko izenean, Espainiako batailoiak hilabete luzez egon ziren Gipuzkoan<sup>72</sup>.

---

71 Zabala Unzurrunzaga, J.A. (1989)

72 Arruabarrena Goikoetxea, A. (2005)

# Independentzia gerra

---

Espainiako errege-familia Frantziara Napoleonekin biltzera irten zenean, madrildarrak asko haserretu ziren, eta 1808ko maiatzaren 2an, frantsesen aurka altxatu ziren, hiriburua okupatua zuten eta. Handik ordu gutxira, Murat jeneralak matxinada zapaldu, eta ehunka herritar fusilatu zituen zigor modura. Fernando VII.ak alde egin zuenean, Gobernu Batzordeari utzi zion agintea, baina horrek ez zuen ezer egin zigorra eragozteko. Baionako abdikazioen eta Madrilgo jazoeren berri jakin zutenean, frantsesen kontrako matxinadak Espainia osoan zabaldu ziren.

1808ko maiatzeko matxinadek gerra ekarri zuten (1808-1814). Bost urte luzez, Espainiako lur guztietan izan ziren borrokak, eta azken emaitza lazgarria izan zen: 300.000 hildako baino gehiago, hondamena eta lapurretak. Herri-gerra izan zen, nazionala ere bai, baina ez iraultzailea. Espainiaren barrukoa baina aldi berean nazioartekoa. Dena dela, herria altxarazi zuen ideia erlijioa eta monarkia babestea zen; hau da, gizartearen ikuspuntu tradizionala zuen oinarrian, eta, beraz, gutxiengo liberalaren kezketatik kanpo zegoen, liberalek nazioa Frantziatik bereizita aldarrikatu eta euren iraultza egin gura zuten eta.

Independentzia Gerrako bost urteak benetako aukera izan ziren herri-mugimendu iraultzailea garatzeko, baina ez zen hala izan, kleroa Erregimen Zaharraren aldekoa zen eta. Baina Elizak, hala eta guztiz ere, ezin izan zuen galarazi Cadizen, gerragatik bakartuta egonik, talde txiki batek bere gustuko legeak ematea eta etorkizuneko iraultza liberalaren oinarriak ipintzea, Espainiaren benetako gizarte-egoera batere aintzat hartu gabe.

Kleroa frantsesen aurka altxarazi zituen nekazariak, eta Jose Bonapartek, ostera, ezin izan zuen gutxiengo ilustratuen babesari lortu, haren anaia Napoleonen konkista-espiritua nabarmenena zen eta. Frantziako tropek okupaturiko Espainia hartan, Jose I.a erregea alferrik ahalegindu zen Baionako estatutuak prestatuturiko berrikuntzei ekiten. Frantsestuen laguntza izan zuen, berrikuntza ilustratuak gura zituzten eta; ez, ostera, neurri iraultzailerik.

Frantsestu asko estatuko funtzionario ziren, oso pragmatikoak, eta nahiago izan zuten agintea zuenari fidel izaten jarraitu; beste batzuk elizgizon ilustratuak ziren, okupatzailearen alde jarriak, Frantziako armada indartsuago eta Erregimen Zaharreko erakundeak ezgai ikusten zituzten eta. Zinezko frantsestuek berrikuntza nahiagatik egin zuten aukera hori; berrikuntzak nahi zituzten heziketan, zuzenbidean eta erlijioan. Gurari berekoak ziren beste espainol apur batzuk, baina beste haiek Cadizko gorteetan bildu zituen frantsesen aurkako borrokak.

Herritarrek gorroto zuten gutxiengo frantsestua. Kolaborazionismoa, beraz, garesti ordaindu zuten, gerra guztietan bezala, herrikideen mendekua eta geroago erbestea jasan zituzten eta.

Matxinadak hasi zirenean, eta, Baionako abdikazioen ondorioz, hutsune handia zabaldu zen agintean, eta Espainiako lurraldea hautsi egin zen. Frantziako armadak hartuta ez zituen eskualdeetako egoera kontrolatzeko, herritarrik ospetsuenek aginte-erakunde berriak ezarri zituzten: probintzia batzordeak.

## **Gerraren faseak**

1808ko ekainean, herri-matxinadak apaltzeko eta Jose Bonaparteren erregimena ezartzeko helburuz, 170.000 gizoneko armada sartu zen Espainian, haizemaile gisa zabalduz, estatuko gunerik garrantzitsuenak harrapatuko zituztelakoan.

Baina espainolen ustekabeko erresistentziak hankaz gora jarri zituen hasieran Napoleonen asmoak. Hiriak erraz hartuko zituztela uste zuten, baina Zaragozak aurre egin zien eta, harrizko hesirik ezean, behin-behineko barrikadak altxatu zituzten. Frantsesak, ostera, makalduta zeuden, Kataluniako indarren laguntza jaso ezinik, Bruch-eko haizpitarlean geldituta zeuden eta.

Gerraren lehen urtea igarota, periferiako inguru batzuk eta erdialdeko mendiguneak bakarrik geratu ziren libre. Bien bitartean, Britainia Handia ere nahasi zen gerran, Napoleon gelditzeko asmoz.

Armada inbaditzailearen aldean espainolak ahulagoak zirenez, borrokan egiteko era berria asmatu zuten, gerrilla. Soldadu izandako gizonen, herritar boluntarioz eta bidelapurrez osaturiko taldeak ziren;

ustekabeen erasotzen zioten arerioari, ingurunea hobeto ezagutzen zutela baliaturik eta herritarren laguntzarekin. Bat-bateko ahaleginez eta aurrez prestatu gabe, herrietan eta hirietan gerrillari taldeak sortu ziren, lehenago borrokagatik ezabaturiko aginte-erakunde politiko eta administratiboak ordeztuko asmoz sortutako batzordeen antzean.

Ataunen ere egin zuten armak hartuta gerrara joateko deia, askatasuna lortzeko eta ametsak egia bihurtzeko. Ez dakigu Ataundik zenbat mutil gazte joan ziren frantsesen aurka borrokatzera, baina badakigu horietako zazpi<sup>73</sup>, behintzat, ez zirela gehiago herrira bueltatu, gerran zebiltzala hil baitzituzten. Gerran hildako soldadu haien gurasoek eta, ezkondua izanez gero, emazteek eskubidea zuten kalte-ordainak jasotzeko; ez gutxi kostata, ordea. Zegozkien laguntzak jasotzeko —gehienetan, belloizko erreal bat—, idatzi bat aurkeztu behar izaten zuten eskaria eginez. Kasuren batean, hildako sarjentu baten amak bizirik eta osasuntsu zegoela frogatu behar izan zuen diru-laguntza jasoko bazuen. Taula honetan bildu ditugu gerran hil ziren hainbat ataundarren datuak:

<b>INDEPENDENTZIA GERRAN HILDAKO ATAUNDARRAK</b>			
<b>IZENA</b>	<b>JAIOTETXEA</b>	<b>NOIZ/NON HIL ZEN</b>	<b>BESTERIK</b>
Pedro Antonio Arratibel Arza (1792)	Sorkoin	1813ko abuztuaren 31n hil zuten Bidasoa ibaiaren ertzeke borrokaldi batean.	Gipuzkoako Infanteria arineko batailoiko soldadua zen.
Jose Domingo Uriarte Astigarraga	Estrada (Arrondo)		Gipuzkoako batailoian kabo zen.
Pedro Migel Imaz Laskurain			Boluntarioen batailoiko soldadua
Martin Arruabarrena Imaz		Gerrako borrokaldi batean hil zen Aragoian.	Gipuzkoako batailoian kabo zen.
Jose Antonio Dorronsoro Urdangarin	Lauziturieta	1813ko abuztuaren 31n hil zuten Bidasoa ibaiaren ertzeke borrokaldi batean.	Gipuzkoako batailoiko sarjentua zen.

73 AUA, 48-07

Andres Jauregi Etxeberria	Jaiotzez, Zaldi-biakoa, baina Ataunera ezkondu zen.	Borrokan zebilela atxilotu eta hil egin zuten aurkariak.	Gipuzkoa batailoiko sarjentua zen.
Jose Inazio Jauregi Etxeberria	Jaiotzez, Zaldi-biakoa, baina Ataunera ezkondu Zen.	Gipuzkoako lehen batailoian zebilela hil zuten.	

Frantsesak hirietan izan ziren nagusi, baina nekazaritza-guneetan gerrillari-taldeak izan ziren jaun eta jabe. Taldeok 1809tik aurrera zabaldu ziren penintsula osoan. Gerrillaren helburua atzealdea izaten zen, soldaduen talde txikiak, hornitze-karabanak eta zauriengatik edo nekeagatik atzean geraturiko soldaduak. Frantsesek ezin izan zuten inoiz amaitu gerrillekin, eraso bakoitzaren ostean herritarren artean sakabanatzen ziren eta. Herritarrek, gero eta zapalduago, babes handia ematen zieten gerrillariei.

Gerrak Espainian zenbat eta hondamen larriagoak eragin, Jose I.a erregeak orduan eta hobeto ikusten zituen bere aldeko frantsestuen ideia bakezaleak, Napoleonen konkista-asmoak baino.

Napoleonek, anaiak espero bezain esaneko jokatzeko ez zuenez, penintsulako gobernuan esku hartzea erabaki zuen, tropei eusteko behar zituen baliabideak bertatik ateratzeko asmoz. 1810ean, Frantziako inperioa sendotu zen urtean, Ebroren iparraldeko probintziak agintari militarren esku utzi zituzten Frantziara gehitzeko. Beste lurralde batzuk ere Frantziako inperioa gehitu zituzten; besteak beste, Holanda, Alemaniako portu batzuk eta Italiako zenbait estatu; tartean, Estatu Pontifikalak.

1812ko udaberrian, gerrak behin betiko norabidea hartu zuen. Hasieran, ibilaldi militarra zirudien arren, Napoleonentzat itzelezko arazo bihurtu zen: Espainian tropen multzo handia eduki behar zuen, baina berak Errusiako frontean behar zituen. Espainiatik soldaduak ateraz gero, frantsesen hondamendia etor zitekeen; egiatan, hala izan zen: 1812ko uztailean Wellington jenerala, Ingalaterrako, Portugalgo eta Espainiako hainbat troparen buru eta gerrillari-taldeen laguntzaz, Arapilesen —Salamancatik hurbil— frantsesei garaitu zitzairen. Andaluziatik ere bota zituen, eta, Madrilen sartu zenean, Jose I.a hiritik irte-narazi zuen. Kontraerasoan, frantsesek lehengo posizioak hartu zituzten

berriro, baina Wellingtonen kanpaina arrakastatsuak agerian utzi zuen frantsesei gailentzeko estrategia egokia. 1813ko udaberrian, jeneral ingelesak ostera ere jo zuen eraso, eta frantsesek ezin izan zuten gelditu. Madrildik irten eta Gasteizera joan ziren, tropak oso murriztuta zituztela. Gasteizko borrokan britainiarrek eta espainiarrek elkarrekin bat egin, eta portugaldarren laguntzarekin frantziarrei izugarrizko egurra eman zieten; Jose Bonaparterekin jardun zuten frantsesek burumakur alde egin zuten Frantziarantz. Bidean, ordea, parean jarritako guztia suntsitu zuten, baita Ataunen ere. 1813ko ekainean, Arbizun borroka bat izan eta Ataunen barrena etxeranzko bidea hartu zutenean, bidegabekeria, lapurreta eta bortxaketa ugari egin zituzten. Besteak beste, 315 ardi, 18 abelburu, 88 kutxa eta arropa asko lapurtu zituzten. Horrez gain, Agerre baserrikoek ere gogor pairatu zuten gerra hura; bi bandoetako soldaduek maiz arpilatu baitzuten.

Gobernadorea zen ordenaren eta ekonomiaren arduradun gorena, eta Napoleonen agindu zuzenei bakarrik egiten zien jaramon. Ezarri zituen neurrien artean, eztabaidarik handienekoa Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiak kentzeak sortu zuen. Baina gerrilla-taldeen lanari esker, erakunde frantsesak ezin izan ziren finkatu, eta 1813an, frantsesek galdu egin zuten Gasteizko borrokan. Hori izan zen Napoleonen agintearen amaiera. Handik gutxira, Wellington dukearen agintepean zeuden tropek Donostia hartu zuten; hiriak su hartu eta hondamen handia jasan zuen. Gaur egun Abuztuak 31 izena duen kalea ez beste guztia suntsituta geratu zen.

## **Ataunen izan zituen eraginak**

1808ko azaroaren 12an Napoleon Bonapartek Burgosko kanpamentutik bidali zuen dekretuan<sup>74</sup> aipatzen denez, hainbat duke eta markesekiko desadostasun eta haserrea adierazi zuen; tartean, Valmedianoko markesarekiko. Itxura denez, hainbat handiki beraien botereaz baliatu ziren erregearen aurka joateko, eta herritar xeheak bide zuzenetik desbideratu eta nahasmenera bideratu zituzten. Hori dela eta, Valmedianoko markesa eta gainerakoak Espainiakoeta Frantziako koroaren etsai izendatu zituen, eta ondasunak eta jabegoak konfiskatu zizkieten.

---

<sup>74</sup> AUA, 15-28

Urte bereko abenduaren 4an, Napoleon Bonapartek beste dekretu bat bidali zuen bere menpeko udaletara, tartean Ataungora. Bertan zioenez, hurrengo urteko urtarrilean probintziaz probintzia zeuden aduanak kendu eta lurraldeen arteko mugetan bakarrik ezarriko ziren.

Napoleon Bonapartek Thouvenot jenerala izendatu zuen Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako gobernadore kargurako. Aldaketa horrek Ataunen ere izan zuen isla; 1810eko apirilaren 8an udal-ordezkarri guztiak aldatu zituzten jeneral berriaren aginduz<sup>75</sup>. Zapatari etxeko Juan Migel Aranburu Zabala alkate kargutik kendu, eta Antonione Garakoko Franzisko Antonio Mujika izendatu zuten; eta Arzubiko Juan Manuel Balda Arrizurieta eta Arin-Etxeberriko Felipe Zurutuza Arratibel, berriz, udalbatzarako. Alkate berriak, ordea, Ordiziako aduanan administratzaile lan egin nahi zuenez, berehala utzi zuen kargua, eta, haren ordez, Dormategiko Xabier Dorronsoro Dorronsoro izendatu zuen jeneralak.

Thouvenoten zeregina, batez ere, dirua biltzea zen, armadak bere jardunak aurrera atera zezan. Bere helburua betetzeko, zerga berriak ezarri zizkien udalei. Horrek Ataungo udala, lehenaz gain, zulo handiagoan sartu zuen. Independentzia Gerrak sortutako gastuei aurre egiteko, honako zerga<sup>76</sup> hauek ezarri zizkien 1810ean eguneroko produktuei:

<b>1810EAN EZARRITAKO ZERGAK*</b>	
<b>PRODUKTUA</b>	<b>ORDAINDU BEHARREKOA</b>
Pattar <i>verga</i> (neurria) bakoitzeko	8 erreal
Olio arroba bakoitzeko	6 erreal
Balearen haragi <i>verga</i> bakoitzeko	1 erreal
Xaboi arroba bakoitzeko	8 erreal
Gatz hanega bakoitzeko	4 erreal
Bakailao kintal bakoitzeko	10 erreal
Sardina barrika bakoitzeko	6 erreal
Txokolate ehotze bakoitzeko	10 erreal

75 AUA, 04-01

76 AUA, 04-01

\* AUA, 04-01

Itxura denez, ordea, zerga berri haietatik ez zuten soldadu frantse- sen gastuak ordaintzeko behar beste diru atera, eta, ondorioz, 1810eko otsailaren 2an Ataungo Udalak enkantera atera behar izan zituen bere jabetzako hainbat baserri. Besteren artean, San Gregorioko Larruntza baserria enkantean salgai jarri behar izan zuen.

Enkanteak igandeko meza nagusiaren ondoren egiten ziren uda- letxeko arkupeetan. Aguazilak kandela bat pizten zuen, eta hura itzali arte edonork egin zezakeen eskaintza; inork eskaintzarik egin ezean, udalak beste enkante bat antolatzen zuen. Sarri gertatu ohi zen hori, gainera, askotan salgai jarritako etxe, lur-sail edo dena delako batek ez zuen herritarren arretarik pizten.

Ez zen hori gertatu, ordea, Larruntza baserriarekin; Arrondo auzoko Etxeandi baserriko Felipe Urdangarinek 14.000 erreal eskaini zituen baserriaren truk, eta berari eman zioten jabetza. Gastuak ordaintzeko adina diru ez zen nonbait, eta San Gregorioko Olea base- rria ere salgai jartzea erabaki zuen udalbatzak. Enkantera bi aldiz atera zuten, baina, erostunik azaldu ez zenez, 1810eko otsailaren 24an hirugarren enkantea egitea erabaki zuten; kasu hartan ere, erostunik ez. Enkantea amaitu zenean, ordea, Baberoetxe Zaharreko Bartolome Urdangarin Dorronsorok 12.000 erreal eskaini zituen. Gauzak horrela, alkateak aguazilari berriro kandela pizteko agindua eman zion, baina, beste eskaintzarik ez zegoenez, jabetza berari eman zioten aipatutako diru-kopuruan.

Larruntza eta Olea baserria saldu arren, udalak artean ez zuen Inde- pendentzia gerrak sortu zizkion zorrak ordaintzeko lain, eta, ondorioz, Aiako Erroiondo baserria ere saldu egin behar izan zuen. 1810eko mar- txoko enkantean, 16.000 errealekoa izan zen eskaintzarik onena, eta Juan Antonio Begiristaini eman zioten jabegoa.

Hiru baserri haiez gain, hainbat herri-lur ere saldu behar izan zituen udalak. Bitxikeria bezala, esan gabe doa lur haiek erosi zituzte- nei ordainketa dirutan beharrean artatxikitan egitea onartu ziela uda- lak<sup>77</sup>. Bidenabar, San Martin parroikiko patronatuak ere bere aletxoak jarri zuen herriak zituen gastuei aurre egin ziezaiei. 1811ko maiatzean, apaizak meza emateko erabiltzen zituen jantzietako bat eskaini zuten,

---

<sup>77</sup> AUA, 49-26

eta, enkantean herritarrei salduta, 2.430 erreal irabazi zituzten<sup>78</sup>. Horrez gain, urte bereko ekainean, Eleizaldeko Andres Antonio Iturmendi Imaz apaizak Santiago etxea —gerora Sakristauene eta Ospital izenak ere hartu dituen— erosi zion udalari 5.000 errealen truke.

Gerrak sortutako gastuak gora eta behera aritu gara azken lerroetan. Askok galdetuko diozue zeuen buruei Ataunen borrokaldirik izan ez bazen zein gastu izan ote zituen udalak, zergatik ote zegoen hain zorpetuta. Bada, 1810ean hasi eta 1814ra arte, Napoleon Bonaparteren gobernu taldeak bere menpeko udal guztiak behartu zituen tropa frantsesei mantenu-gastuak ordaintzera.

1811n Ataungo herriak tropa frantsesei nahiz boluntario erregezaleen tropei mantenuaren zati bat ziurtatu behar izan zien. Hilero, Ataunek—eta probintziako gainerako herriek ere bai, noski— tropei oinarrizko elikagaiak nahiz jantziak ziurtatu behar izan zizkieten. Ondorengo taulan, Ataungo Udalak apirilean eta abuztuan soldaduei emandako produktuen bilduma egin dugu. Baina kontuan izan behar da urteko gainerako hamar hilabeteetan ere antzeko dohaintzak egin behar izan zituztela. Beraz, gerrak berez sortzen dituen ezinei eta urritasunei tropen mantenu-gastuak gehitu behar zaizkie, eta horrek herriko ekonomia are eta gehiago zaildu zuen. Taulan ikus daitekeenez, gainera, hilabeteek aurrera egin ahala, tropen beharrak handiagoak ziren, eta dohaintzak ere nabarmen egin behar izan zuen gora.

1811n TROPEI EMANDAKO HORNIGAIK*		
Produktua	Apirila	Abuztua
Ogia	327 libra	1781 libra
Haragia	152 libra	764 libra
Ardoa	220 “quarto”	911 “quarto”
Txokolatea	--	88 ontza
Aguardienta	4 “quarto”	63 “quarto”
Garia	64 anega	--
Garagarra	68 anega	272 anega

<sup>78</sup> AUA, 173-27

\* AUA, 49-16

Artoa	--	28 anega
Alpargatak	44 pare	3 pare
Abarkak	4 pare	--
Zapatak	2 pare	--
Tabakoa	--	2 libra

1813an ere, udalek tropak mantentzen jarraitu behar izan zuten. Urte haietan probintziako aduana Ordizian zegoen, eta, ondorioz, Ataungo Udalak Ordiziar ordaintzen zion tropen mantenua. Batetik, ordainketa diruz egiten zuten, eta, bestetik, generoa ere eman behar izaten zuten. 1813. urteko bigarren seihilekoari dagokionez, 34.799,26 erreal ordaindu zituen Ataunek. Horrez gain, soldaduek eta animaliek jan ere egin behar zutenez, elikagaiak ere eman behar izan zituzten. Abuztuan, esaterako, garia eta haragia eman zituzten, eta irailean, horiez gain, lastoa ere bai; oloa emandako hilabeteak ere baziren<sup>79</sup>.

1814an, Gipuzkoako Aldundiaren aginduz, Lazkaon kantonatuta zeuden tropei lastoa, egurra eta argia egiteko gaiak<sup>80</sup> eman zizkieten.

Voluntarios de Guipuzcoa 3  
 Bate por una fanega y medio de  
 cebada de la Compañia del Finien  
 te Coronel de D. n Gaspar Jaurregui  
 para los Caballos Campo de honor  
 de Guipuzcoa Ataun dia 21 de  
 Agosto de 1811  
 Genio de Lara

79 AUA, 49-24

80 AUA, 49-27

Gerrako soldaduen mantenu-gastuez gain, bestelako gastuak ere sortu zitzaizkion udalari. Gerrak zirauen bitartean, herriko itzainek, udalaren aginduz, garraio-lan asko egin behar izan zituzten soldaduen fardelak batetik bestera eramaten. Joan-etorri haien gastuak udalaren gain ziren, eta, mandazainak kobratu gabe denbora luzean egoten zirenez, zor zitzaiena ordaintzeko eskari asko gelditu dira idatzirik artxiboan. Argazkiko dokumentua da horren adibide: 1811ko abuztuan herritar batek udalean zor ziotena ordaintzeko eskabidea ikus dezakegu. Ez da kasu bakana, ordea. Gerrate hartan udalak ordaindutako errezibo asko daude. Gainera, zer edo zenbat ordaindu zuten ikusteaz gain, balio digute ideia bat egiteko garai hartako gizartea nolakoa zen eta diruaketa produktuek nolako balio zuten. Ordainagiri horiei esker, badakigu 1811n ardi batek bederatzi pezeta balio zuela<sup>81</sup>.

1813an, Donjuaneneko Jose Joakin Azurmendi Saraseta alkate zegoela, hiru herritarri beraien behi eta gurdiak hartuta Irunera joateko deia egin zitzaien. Amilletako Joseph Eskisabel Dorronsorori bi behi eta guardiarekin joateko eskatu zieten, eta Aralegi Berriko Jose Antonio Barandiaran Barandiarani eta Imazeneko Maria Mikaela Eskisabel Etxeberriari, berriz, gurdiak bakarrik eskatu zizkieten. Eskatu bezala Irunera joan, bertan egonaldi bat egin eta hiru atandarrek etxera bueltatzeko asmoa agertu zutenean, gurdiak bertan utzarazi zizkieten. Ondorioz, herrira itzuli zirenean Irunen utzi behar izan zituzten gurdien balioa ordaintzeko eskatu zioten udalari<sup>82</sup>.

Gerrak iraun bitartean, atandar bat baino gehiago atxilotu zituzten, eta haiei zegozkien espetxe-gastuak ere udalak ordaindu behar izan zituen. Horren adibide dira artxiboan aurkitu ditugun datu hauek<sup>83</sup>:

---

81 AUA, 173-27

82 AUA, 61-09

83 AUA, 173-25

*Correspondencia de Placencia sobre prisión de Ezcurdia y Beguiristain. Gastos ocurridos con motivo de la Prisión hecha en Placencia de las personas de Juan Antonio Ezcurdia Mugica (1783-05-02 Eleizalde-Aia) y Esteban Beguiristain Urrestarazu (1777-08-25 Ustatxo erdikoa), en el año 1811 y pagados por la villa de Ataun:*

<i>-Por gastos de presos en Vergara a Pedro Aszensio Larraza Ajarresta (1759-05-24 Iturralde), según su recibo</i>	<i>190.-reales</i>
<i>-Con motivo de traslación a Vitoria de dichos presos se pagaron en Vitoria</i>	<i>860.-reales</i>
<i>-A un propio que vino de aquella ciudad</i>	<i>160.-reales</i>
<i>-Al comisionado de la villa y propio que dirigió a Salbatierra</i>	<i>440.-reales</i>
<i>-A otro propio que se dirigió a dicha ciudad</i>	<i>160.-reales</i>
<i>-Pago la villa a Ezcurdia y Beguiristain a cuenta de viajes de sus mujeres</i>	<i>320.-reales</i>
	<hr/> <i>2.130 reales</i>

*Los referidos Ezcurdia y Beguiristain estuvieron arrestados en Vergara 13 días y antes uno en Placencia, y en Vitoria 19 días y atendiendo a las vejaciones que padecieron y los viajes que hicieron sus mujeres a Vitoria, pretenden a tres pesos por día.*

<i>36 días en Placencia, Vergara y Vitoria a 3 pesos pondrá</i>	<i>3.240.-reales</i>
---	----------------------

*En todo .....*

*5.370.-reales*

*D. Manuel de Iraola, presbítero de Placencia entregó a Pedro de Mugica y Ezcurdia .....*  
*1.820.-reales*

<i>Restan a deber .....</i>	<hr/> <i>3.550.-reales</i>
-----------------------------	----------------------------

*Para la cantidad precedente pagó D. Manuel de Iraola, Presbítero, dos mil reales, siendo los mil para los adelantos hechos para la....., doscientos treinta y quatro reales para Juan Antonio de Ezcurdia y los setecientos sesenta y seis reales restantes para Esteban de Beguiristain, en 21 de febrero de 1.815.*

*2.000.-reales*

<i>Queda a deber .....</i>	<i>1.990.-reales</i>
----------------------------	----------------------

Aurreko atalean aipatu dugun gisara, gerra garaian lapurretak oso ohikoak eta ugariak izan ziren. Herritarrek lapurtutakoaren balorazioa egin, eta udalari eskatu ohi zioten lapurretei zegozkien gastuen zenbaketkoa. 1809 eta 1810 urteetako eskari bat baino gehiago aurkitu ditugu artxiboan. Udalbatza elkartu eta eskaera horiek ordain zitzakeen aztertzen zuen, edo nola ordaindu. Ondorengo bi dokumentuen bidez, aipatu berri duguna ekarri nahi izan dugu lerro hauetara; lehenean, Zapatari etxeko Juan Migel Aranburu Zabala albaitariak alkatearen aurrean egingadako zerrenda bat dator, lapurtutako gauzena, eta kalte-ordainen eskaera ageri da; eta bigarrenean, berriz, udalbatzarrak Juan Migel Aranbururi emandako erantzuna.

Hona hemen Juan Migel Aranburuk udal-ordezkariei bidali zien idatzia, etxean egin zizkieten bi lapurreten<sup>84</sup> berri emanaz:

*D. Juan Miguel Aranburu Zabala, Presidente del Alcalde de la Villa de Ataun hace presente a los Sres. comisionados de la misma para la graduación y abono de los perjuicios que ha experimentado en los saqueos del once de septiembre y veinte y siete de Diciembre últimos.*

*Qué además de los efectos, alhajas y dinero que supuso robados en el primero y se hallan anotados en la razón que acompaña regulados para dichos Señores comisionados en Once mil seiscientos noventa y dos reales, omitió otros varios de bastante consideración por no haber advertido su falta hasta mucho tiempo después y son los que siguen:*

<i>Cinco mudas de camas completas, cuio valor conceptualado es</i>	<i>651 reales</i>
<i>Una colgadura de cama de algodón con encajes</i>	<i>240 reales</i>
<i>Ocho sobrecamas, quatro de ellas de algodón fino</i>	<i>500 reales</i>
<i>Un mantel grande de mesa</i>	<i>36 reales</i>
<i>Diez servilletas, algunas de ellas de Flandes</i>	<i>75 reales</i>
<i>Seis camisuelas finas</i>	<i>468 reales</i>
<i>Diez tocas y algunos pañuelos de musolina</i>	<i>286 reales</i>
<i>Un chaleco de seda y notro de Colonia</i>	<i>85 reales</i>
<i>Un par de calzones de paño fino</i>	<i>101 reales</i>
<i>Un capote asimismo de paño fino</i>	<i>300 reales</i>
<i>Un sombrero de cartón</i>	<i>80 reales</i>
<i>Quatro pares de zapatos, dos de ellos de paño</i>	<i>78 reales</i>
<i>Un par de manteles de ofrecer zera y pan</i>	<i>60 reales</i>
<i>Una caja con sus zera</i>	<i>22 reales</i>
<i>Nueve pares de cubiertos de plata</i>	<i>900 reales</i>
<i>Dos pares de evillas y chamanteras de plata</i>	<i>240 reales</i>
<i>Unos rosarios de plata con medallas y unos con broches</i>	<i>120 reales</i>
<i>Dinero que robaron a su madre</i>	<i>4.300 reales</i>

<i>Tres guarda piezas, dos de ellos ingleses</i>	<i>300 reales</i>
<i>Tres chaquetas de muger</i>	<i>200 reales</i>
<i>Un ceñidor de seda encarnado</i>	<i>100 reale</i>
<i>Dos carteras y tintero</i>	<i>50 reales</i>
<i>Una escopeta de caza buena</i>	<i>300 reales</i>

*Dichas partidas componen una de 9.792 reales de vellón, importe de los efectos mencionados y robados en dicho día once de septiembre sin que hubiese podido manifestar a los Sres. Comisionados por haber advertido su falta mucho después y para ahorrar a su consideración como así mismo la razón de los efectos y dineros que le fueron robados el 27 de Diciembre y es como sigue:*

<i>Quatro camisas de muger cuio valor conceptua de</i>	<i>100 reales</i>
<i>Quatro camisas suias</i>	<i>150 reales</i>
<i>Tres pañuelos de retortas, otros tres de percal y uno de seda</i>	<i>144 reales</i>
<i>Quatro tocas y quatro camisas de niños</i>	<i>144 reales</i>
<i>Corte de chaleco y su forro, sin coser</i>	<i>100 reales</i>
<i>Un par de calzones</i>	<i>100 reales</i>
<i>Un par de botines suios y otro del Regidor Munduate</i>	<i>40 reales</i>
<i>Un vestido de pana cruzada del criado</i>	<i>300 reales</i>
<i>Quatro camisas del mismo</i>	<i>64 reales</i>
<i>Dos pares de medias de algodón y un sombrero del dicho</i>	<i>90 reales</i>
<i>Un vestido de Olandilla, dos pañuelos y mantilla de la criada</i>	<i>120 reales</i>
<i>Ocho capones y tres gallinas</i>	<i>104 reales</i>
<i>Media arroba de vino</i>	<i>12 reales</i>
<i>Seis quesos y tres longanizas</i>	<i>46 reales</i>
<i>Dinero robado a su madre</i>	<i>960 reales</i>
<i>476 reales del 3% con su bolsa y nota del dinero</i>	<i>488 reales</i>
<i>Dinero propio suio</i>	<i>250 reales</i>
<i>Una mesa grande y 2 cajones que hicieron pedazos</i>	<i>320 reales</i>
<i>Una arca de cobre que asimismo hicieron pedazos</i>	<i>200 reales</i>

*De forma que las mencionadas partidas importan Tres mil setecientos treinta y dos reales de vellón que unidos a los nueve mil setecientos noventa y dos expresados hacen la cantidad de trece mil quinientos veinte y quatro reales de vellón.*

*Ataun, 14 de febrero de 1.810  
Juan Miguel Aranburu Zabala*

Udalbatzarra lapurretak zirela-eta egindako eskaera aztertzeko bildu zen. Dokumentuan<sup>85</sup> irakur daitekeenez, Ataungo Udala prest zegoen lehen lapurretak familiari sortu zizkion gastuak ordaintzeko, baina bigarren lapurretari zegozkion gastuak ordaindu edo ez, ez zuen hain argi; batzarraren ustez, ez zuten behar beste gaitasun erabakia hartzeko.

*Enterados lo comisionados en la razón que arriba se expresa presentada por dicho Juan Miguel Aranburu en los efectos y dinero que supone le robaron en el saqueo que experimentó el 27 de diciembre último, conceptúan se le pueden abonar los tres mil setecientos treinta y dos reales de vellón en que se graduan.*

*Y en quanto a la razón adicional a los efectos, alhajas y dinero que le robaron el 11 de septiembre, no se conceptúan con facultad bastante para su abono sobre lo que la Villa podría disponer lo que juzgue por conbeniente.*

*Ataun y Febrero 15 en 1.810*

*Francisco Antonio Muxica*

*Joaquin Thomas Beguiristain*

*Juan Manuel Balda*

*Juan Antonio Uzelaieta*

85 AUA-167-21

# Karlistaldiak

---

## Sarrera

XIX. mendera arte Euskal Herrian nekazaritza, artisautza eta burdintza ziren iturri ekonomiko nagusiak, baina, industrializazioa indarra hartzen hasi ahala, ordura arteko sistema ekonomikoa gainbehera erori zen, eta hiriguneak eraldatzen hasi ziren. Bi karlistaldien artean gertatu zen hori. Gerra haiek etena markatu zuten gizarte tradizionalaren eta liberalaren artean. Esan izan da gerra haiek Espainiako monarkiaren ondorengotzarengatik sortu zirela, baina Euskal Herrian foruek ere zeresan handia izan zuten.

## Lehenengo Karlistaldia (1833-1840)

XVIII. mendearen hasieran Felipe V.a Espainiako erregeak lege salikoa ezarri zuen, emakumeek tronua har zezaten galarazteko. Baina, handik mende batera, 1832an, Fernando VII.a errege hil zorian zegoela, oinordekotza-legea aldatzea lortu zuen. Semerik izan ez zuenez, bera hil ondoren, alaba Elisabetek erregina izateko aukera izan zezan. Elisabet adin-txikikoa zenez, aita hil zenean, haren ama Maria Kristinak hartu zuen erreginaorde-kargua liberalen babesarekin. Karlistak, ordea, aurka zituen. Horiek Fernando VII.aren anaia Karlos Maria Isidoro nahi baitzuten errege. Horrela, bada, bi anaien jarraitzaileen artean Gerra Zibila hasi zen 1833an.

Euskal Herrian gerra piztu zenean, hiritarrak liberalen alde jarri ziren; nekazariak, berriz, karlisten alde. Gipuzkoa osoa, Donostia salbu, karlisten aldekoa zen. Gerran, oro har, liberalak indartsuagoak izan ziren arren, karlistek Tomas Zumalakarregi Imaz buru zutela —haren ama Ataungo Urbitarte edo Tabla etxekoa zen—, gauza handiak lortu zituzten.

Lehen Karlistaldiak utzitako ondorioak aztertuta, esan daiteke botere hegemonikoaren interesak atera zirela irabazle eta ez herritarrenak;

bazterretan hildako eta zor ugari geratu baitziren. Gerra haietan jokoan euskal foroak zeudela eta horiek karlistek bermatzen zituztela esan izan da, baina Espainia mailan, ez karlistek ez eta liberalek ere ez zuten inongo interesik euskal foruak gordetzeko; foruen aurka zeuden biak. Batzuen zein besteen artean, ez zegoen desadostasun politiko handirik, eta hori argien 1839ko abuztuaren 30ean ikusi zen, Bergaran, Maroto eta Espartero jeneralek antzezturiko besarkadan. Batzuek zein besteek Espainia osoan estatu-zentralismoa ezartzeko bideak irekitzea nahi zuten.

Euskal Herrian Karlismaldia azaltzeko garaian bando ona eta txarra, euskaltzalea eta ez-euskaltzalea banatzeko joera egon da. Baina esan behar da karlistak soilik ez zirela foruzale eta euskaltzaleak; euskal liberalen artean ere bazeuden joera horiek defendatzen zituztenak.

### ***Zer-nolako eragina izan zuen Ataunen?***

Lehen Karlismaldiaren hasierako urte eta erdian karlista eta liberalen gatazka ugari izan ziren Goierrin. Ezin dugu esan Ataunen borrokaldirik gertatu ote zen, baina irudika dezakegu herrian giroa ez zela oso atsegina izango; tentsioa, beldurra eta miseria-giroa nabarmenduko ziren.

Gipuzkoako herri gehienetan bezalatsu, gerra karlista hark herritarrei nahiz udalari gastu handiak ekarri zizkien. Izan ere, herritarren esku geratzen ziren soldaduen mantenua, bagaje-zerbitzua eta beste.

Udalak ez zuen dirurik gastu haiek denak ordaintzeko. Are gehiago, XX. mende hasieran, ia 100.000 errealeko zorra zuen. Horrela, bada, herri-lurren zerrenda egin zuten, eta ondoren lurra saldu, dirua lortzeko eta zor haiei irtenbidea emateko. Ez zen nahikoa, ordea. Hortaz, Urdangarín Txiki baserria eta Artzate errekatik Arrateta errekarara bitarteko zuhaitzak ere saltzea erabaki zuten. Dirudienek, Ataungo udal-ordezkariek ez zuten arazo haiei irtenbidea emateko eta erabakiak hartzeko ahalmenik; hori dela eta, zortzi herritar dirudun ere deitu zituzten udalbatzarrerara.

Borrokara joan edo ez, herritarrei galera izugarriak sortzen zizkien edozein gerrak, eta Karlismaldia ez zen gutxiago izan. Gerrako Diputazioak hala aginduz gero, herritarrek beharturik zeuden soldaduei beraien zerbitzuak ematera, eta maiz, idiak hartu eta haien garraiolari aritu behar izaten zuten. Izan ere, urte haietan instituzio hori zen bizitza politiko, ekonomiko eta militarren arduradun. Horrek galera handiak eragin

zizkien baserritarrei. Batetik, bidaiari zebiltzan bitartean ezin baitzuten beraien soroetan lan egin, eta, bestetik, bidaiari horietan idiak nekatu eta zauritu egiten baitziren, gero lanerako balio ez zutelako. Hori gertatu zitzaion Eskisabel baserriko seme bati. Bere idiekin gerrarako bagaje-zerbitzua egiten ari zela, idia balaz zauritu zuten, eta, ondorioz, elbarri zeukan. Lanerako jada ez zionez balio, udalera joan zen diru-laguntzaren eske<sup>86</sup>.

Bagaje-zerbitzu haietan, garia, artoa, haragia, lastoa, egurrak eta beste garraiatzen zituzten soldaduen mantenurako. Ataundik Ordiziara bidaiari haietako bat egiten ari zirela, 1835eko ekainaren 3an, Zumalakarregik Ordizia hartzea lortu zuen; ordura arte liberalen menpe zegoena. Hainbat ataundar itzain Ordizian ziren egun hartan, eta tropek atxilotuta eduki zituzten. Guztien artean, 34 gau eta egun igaro zituzten atxilotuta. Askatu zituztenean, Ataungo Udalera joan ziren guztiak zegokien konpentsazio-eske; gau bakoitzeko, 30 erreal ordaintzea<sup>87</sup> izendatua zegoen.

Gerra hartan armak hartu eta borrokan ibili zen ataundarrik ere; batzuk behartuta joan ziren, eta beste batzuk, berriz, beraien borondatez, ideiak defendatzera. Horietako bat izan zen Barberoetxezar etxeko Bartolome Urdangarin Dorronsoro tenientea. Karlos V.aren errege izateko eskubideak defendatzera joan zen gerrara, baina ez zuen Atauna itzultzeko zorterik izan. Izan ere, Nafarroako Gorriti herrian zeudela, liberalek atxilotu eta Tolosara eraman zuten fusilatzen. Urdangarinekin gerran zebilen batek gertaera haren berri jaso, eta udalera bidali zuen gutun batean<sup>88</sup>:

***Ilustre Ayuntamiento de la Noble Villa de Ataun  
Felipe Ignacio de Elizalde, natural de esta Villa, con la más profunda veneración y respeto, expone a V.U. que moviendo voluntario de defender los indisputables sagrados derechos de nuestro soberano Seños D. Carlos 5º (Q.D.G.) resolvió el exponerse a alistarse voluntariamente en el servicio de las armas de S.M. como lo verificó a una con otros com-***

---

86 AUA, 07-07

87 AUA, 06-19

88 AUA, 07-07

*pañeros de dicha Villa bajo el mando de D. Bartolome de Urdangarin, Aldcalde que fué de esta referida Villa, en fecha de 23 de marzo de 1.834 y hallándose de Gefe dicho Urdangarin con su Compañia de partida fué sorprendido por el enemigo dentro de una casa y a pesar de la tenaz resistencia que hizo hasta dar fin con todas las municiones por último tubo que sucumbir con su Compañia a la Superioridad de las fuerzas enemigas.*

*Ya luego que los hicieron prisioneros ene l lugar de Gorriti y al exponente le quitaron hasta ocho onzas de oro, los que sacó de su casa, y a más unos reales que tenía para su gasto, y fué a la villa de Tolosa conducio prisionero y confinados a la ciudad de Santander.*

*En ella permanecieron sufriendo con resignación todos los trabajos e incomodidades inseparables de la gesgracia que les caió.*

*Suplica a Vd. Sentidamente que considerando la desgracia del suplicante meritorio, se digne tener la presente para remunerar con aquella gracia que Vd. Juzgue oportuna y regulado a casa, se mantiene en ella sosteniendo el trabajo de su oficio de que vivirá eternamente.....*

*Ataun, 2 de mayo de 1.836*

*Felipe Ignacio de Elizalde*

Urdangarinnek bere ideien alde bizia eman zuenez, bere alargunari bizi zen artean egunero ogia eta haragi-errazioa izendatu zion Ataungo Udalak 1837ko apirilean.

Baina Urdangarin ez zen Lehen Karlitaldian borrokan ibili eta hil zen herritar bakarra izan<sup>89</sup>. Guk aurkitu ditugun datuen arabera, 32<sup>90</sup> lagunek galdu zuten bizia Espainiaren ondorengotza-arazoaren harira anaien artean sortutako gerra hartan.

89 AUA, 53-05

90 8. eranskina

### **Tomas Zumalakarregi jenerala Ataunen**

1833ko urrian, Zumalakarregi jeneralari jakinarazi ziotenean Bizkaiko hondartza batean burdinazko kanoi bat zegoela utzita berehala Nafarroara eramateko agindu zuen.

Agindu hura betez, sei idi parek bultzatuta eta hainbat mendi, haran, errekazulo, malkar eta aldapa igo ondoren, Urbasara eraman, eta bertan lurperatu zuten egun batean benetan baliatzeko garaia iritsi arte.

Hondartzan zegoela, lizuntasun eta herdoilez estalita ikusi zutenean, antzinakoa edo zaharra zela igarri eta susmatuta *aitona* deitura ezarri zioten soldaduek betirako.

Urbasa bidean, Ataungo San Gregorio auzora iritsi ziren igande bezpera batean, eta bertan, gaua igaro zuten auzotarrekin batera.

Lagun arte horretan zen Jose Antonio Olanar Izuzkiza, jaiotzez zumaragarra eta auzo horretako erretore jauna; Txominek eta Gorriak eza-guna zuten hilabete batean Nafarroako bosgarren batailoian fusilero ibili zenetik.

Zumalakarregi jenerala izan zen bere burutik zaletasun haiek kendu zizkiona, eta berriro ere sotana jantzarazi eta lehengo bidean jarraitzera bidali zuena.

Konbenzituta, soldadu ameslari bihurtu zen gerora, elizatik guda-tearen jardunei jarraituz.

Igande gauean abiatu ziren berriro kanoiarekin, baso arteko malda trakets eta aldapatsuetan gora.

Egon zitezken gidari onenak zituzten laguntzaileen artean, auzoko gizon eta emakume ugari euren ahalmen osoarekin, eta horien artean erretorea bere sakristauarekin arrastaka zihoan lerari uztartuta.

Goizeko hirurak ziren Lizarrusti-gailurrera iritsi zirenean, eta, agurtu ondoren, auzotarrak bakoitza bere etxera itzuli ziren.

Nafarroarantz zihoazela, soldaduak "*hemen gaude! kanoi bat dakargu!*" oihuka hasi ziren, eta berehala Burunda aldetik jaso zuten urrutiko erantzuna, "biba Karlos bosgarrena!".

Bi alderditakoak batuta, Urbasara igo zuten kanoia.

Aipatu dugun *aitona* kanoiarekin eta Reina jaunak bere lagunekin funditutako obusekin, 1835ko maiatzean Zumalakarregik Los Arcos herriari eraso zion.

Kanoi horri esker lortu zituzten ondoren ere Irurtzongo, Etxarri Aranatzeko eta Trebiñuko gazteluak beste batzuen artean.

Baina *aitona* hainbat bonbardaketarekin, erasaten hasi zen muturra pitzatuz eta burdinazko bi txirrindola edo aro jarri behar izan zioten.

Bilbo inguratuta zeukala, Zumalakarregik jakin zuen Gipuzkoako baserri batean burdinazko beste bi kanoi aurkitu zituztela; bata 24koa eta bestea 36koa.

Segituan agindu zuen biak eramateko, eta, handik aurrera, *aitona* Bergaran utzi zuten ohorezko bakardadean betirako.

## **Bigarren Karlismaldia (1872-1876)**

Lau urte iraun zuen II. Karlismaldia, 1872tik 1876ra. Oraingoan ere, lehenengoan gertatu zen gisara, anaien arteko gerra izan zen; berriro ere Espainiari zegokion kausa bat zela medio. Gerra hori Euskal Herrian eta Katalunian gertatu zen batez ere, eta Santa Kruz apaizak garrantzi berezia izan zuen.

Karlistak, armak hartuta, Madrilgo gobernuko estatu-ordezkarri liberalen aurka altxa ziren, baina esan behar da liberalak armatuago zeudela. Beraien menpe baitzeuden armada, Guardia Zibila eta, Gipuzkoaren kasuan, baita mikelleteak ere.

Gerra hasi eta berehala, 24.000 gizonen osatutako batailoia lortu zuten, eta bi urtean karlistek kontrolatu zituzten Foru Aldundiak. Gerrara joan ziren soldatu horien artean ataundarrak ere baziren. Gerrako Diputazioak soldadu-talde bat osatzeko agindua eman zuen, eta Ataungo 43 kiderekin<sup>91</sup> eta Lazkaoko beste hamaseirekin batailoi bat osatu zuten, Aldakotxoko Benito Dorronsoro Imaz kapitain zutela. Bestalde, elbarrituta zeudelako gerrara joan gabe gelditu ziren lau mutil herrian, eta, esaten zutena egia zela frogatzeko, bi medikuk azterketak egin zizkieten.

1875eko lehen hilabeteetan berriro soldadu beharrean ziren itxura denez, eta Gerrako Diputazioak soldaduei dei egin zien borondatez tertzioak osatzera agertzeko. Ataungo Udalak baldintzak betetzen zituzten zerrenda egin, eta bakoitzari joan nahi ote zuen galdetuta, honako hamabost lagun hauen izenak bidali zizkion Foru Aldundiari:

91 9. eranskina

Izen abizenak	Jaiotetxea	Kargua
Dorronsoro Imaz, Benito	Aldekoetxea	Kapitan
Apalategi Aierdi, Pedro Manuel	S. Gregorio	Teniente
Auzmendi Aranburu, Jose Inazio	Larratzea	Tenienteorde
Aldasoro Barandiaran, Andres	S. Gregorio	1. sarjentua
Arruabarrena Munduate, Inazio A.	Irran	2. sarjentua
Maiza Irastorza, Antonio Maria	Lopetxe	3. sarjentua
Goikoetxea, Jose		2. sarjentua
Barandiaran Rezola, Juan Felipe	Aitzio	1. kaboa
Goikoetxea Apalategi, Pedro Anton	S. Gregorio	1. kaboa
Apalategi Arratibel, Felipe	S. Gregorio	1. kaboa
Imaz Barandiaran, Antonio	Urdarano	1. kaboa
Goikoetxea Urdangarin, Martin A.	Garagarza	2. kaboa
Barandiaran Apalategi, Jose Anton	Amilleta	2. kaboa
Arratibel Aierbe, Ambrosio	S. Gregorio	2. kaboa
Armendariz Arratibel, Pedro Jose	Intxausti zarra	2. kaboa

Batailoiak eta ekipamenduak herrian bertan prestatzen ziren, eta gastuak udalak berak ordaintzen zituen gerra-gastuetarako zeukan diru kutxatik. Esan beharra dago I. Karlistaldia amaitu zenean udala diruz oso urri geratu zela eta gastuei aurre egiteko zerga berriak ezarri behar izan zituela. Diru hori besteak beste soldaduen mantenuak ordaintzeko zen: ogi, ardo, haragi, babarrun eta urdai.

Herritik kanpo ere, karlista ataundar batek dirua lortzeko zeresan handia izan zuen: Miguel Dorronsoro Zeberio. Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu izan zen, eta 1873ko otsailean, Oiartzunen emandako mitin ospetsu batean, hauxe eskatu zien karlisten lurretan bizi ziren liberaliei:

- Udaletxeek, zortzi eguneko epean, herriko familia liberalen zerrenda osatu beharko zuten; herrian bizi edo ez.
- Bakoitzaren gaitasun ekonomikoaren arabera, 200-20.000 erreal bitarteko kuota ordaindu beharko zuen familia bakoitzak; probintziarako armamentua lortzeko.

Armamentuaz gain, soldaduen elikaduraz ere arduratzen zen Dorronsoro. Foru Aldundiak idatzi bat zabaldu zuen zein izango ziren bi hilabeteen tropa karlisten eguneroko errazioak.

- Ogia: libra eta erdi → Balioa: 0,90 erreal
- Haragia: libra bat (behiarena edo zikiroarena) → Balioa: 2 erreal
- Urdaia: 4 ontza (gazia edo zaharra) → Balioa: erreal bat
- Babarrunak: 8 ontza → Balioa: zazpi zentimo
- Ardoa: litro bat (kutsatu gabe) → Balioa: 75 zentimo

Bere agintean, neurri gogor eta zorrotzak hartu behar izan zituen Dorronsoro jaunak. Beste batzuen artean, honako hauek aipatuko ditugu:

- 1) Salerosketen garraioa antolatu zuen.
- 2) Tabako-saltzearen araudia ezarri zuen.
- 3) Errepide-zaintza eta -konponketak auzolanean egiteko eskatu zuen udaletxe guztietara.
- 4) Irakaskuntzarako, Tolosan egongo zen Batzordea izendatu zuen, eta aurretik ideia liberalengatik aldentutako irakasleei (maisur eta maistra) eskola publiko eta partikularrak irekitzea galarazi.
- 5) Ahalegin bereziak egin zituen euskara gehiagotzeko, eskolak maisu euskaldunekin zuzenduta egon zitezen, eta galarazi euskararik ez zekiten maisuak.

Aipamen nagusiak egin dizkigute, baina urte zail eta neketsu haietako zenbait goi-karguren berri ez digute askorik azaldu. Horietan aurkitzen da Dorronsoro jaunaren jarduna. Euskal Herriko lau probintzietako Diputatu Nagusi zeudenetatik gehiena bera nabarmendu zen.

Eskribau burutsua, karlista porrokatua, zuzena bere jokaeran eta indartsuen aurrean ere erraz makurtu eta kokiltzen ez zena.

Haren ideiak hainbat liburutan idatzi zituzten. Hona hemen batzuk:

- ***Breve reseña de los hechos y razones principales que prueban la identidad del glorioso Martir San Martin de Loinaz y Amenabarro, hijo de Beasain.***

(1862an argitaratua lehen aldiz eta 1896an bigarrenez. Argitaraldia, martiri hau Beasaingoa zela eta ez Bergarakoa argudiatuz).

- ***Lo que fueron los Reyes de España y lo que ha sido y es el liberalismo para con los Fueros de Guipuzcoa*** (1870ean).
- ***Breves palabras sobre dos afirmaciones que la Diputación Foral ha estampado en el recurso elevado al Gobierno solicitando la aprobación del acuerdo de la Junta de Fuenterrabia y la de sus actos en el arreglo del Culto y Clero.***

Inprimategia: Pablo Martínez, 40 orri, Azpeitiko inprimategian, 1870ko urtarrilaren 12an.

Jokabide horren ondorioz, bertso sail eder bat dago, Antonio Zabalak *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak* izenburuarekin argitaratuak". ISBN: 84-89080-58.55 SS- 693/97

- ***Guipuzcoanos*** 1869an argitaratua.
- ***Memoria leida a la Junta General por el señor Miguel Dorronoro, Diputado General, en el ejercicio que acaba de ser en esta provincia de Guipuzcoa.***

1875ean argitaratua aurreko urteko berri nagusiak agertuz.

### ***Santa Kruz apaiza Ataunen***

Manuel Inazio Santa Kruz Loidi gerrilari ospetsua Elduaienen jaio zen, 1842ko martxoaren 23an, eta "Santa Kruz apaiza" esaten zioten. Hernialdeko erretore zela, 1868ko iraultzan nabarmendu zen, Elisabet II.a Espainiako erregina bota zutenean, bere kontrako jarrerarengatik.

1872an, muga pasatu eta taldetxo armatu baten buru egin ondoren, berehala karlisten buruzagirik agerietako bat bihurtu zen, batez ere bere ausardiagatik, eta liberal eta monarkiko isabeldarrak adierazten zutenaren aurka borrokatu zen. Santa Kruz apaiza izan zen borrokaldi haietan liderrik esanguratsuenetako bat.

Gerrilari hura Ataunen ere behin baino gehiagotan izan zen. Guk dakigunez, lehenengoz, 1872ko maiatzaren 4an; gerrako lehen ekitaldietako batean. Ekitaldi laburra izan omen zen, pare bat hilabete iraun zuena. Karlosek Frantziako erbestea utzi, eta, Beratik altxamendurako deia egin zuenean, konpainia hartako kide gisa sartu zen apaiz gerrillaria. Itxura denez, Gipuzkoako eta Nafarroako mendietan barrena hainbat

egun ibili ondoren, tartean Aia auzoan, 1872ko maiatzaren 4an Segurara iritsi omen ziren, baina, bertan liberalen batailoi bat zegoenez, ihes egin eta gauerako Lizarrustira joan ziren, hortik Nafarroara pasatzeko.

Nafarroako Gares herriko Cruz Ochoa de Zabalegi Paternina apaiz, legelari eta politikoa izan zenak agertzen digunez, beste pare bat aldiz ere izan zen Ataunen. Honela agertzen du bere pasadizoa:

***Gu Ataunen geundela jakitea, [Santa Kruzez eta bere buruaz ari da] nahikoa izan zen liberalek, usu eta arin Villafrancara alde egiteko.***

Beste pasarte batean honela dio:

***“Ataundik ateratzekoan, egundañoko txaloak, aupak eta oihuak egin zizkioten.***

***Lazkaora joan zen petroleo billa eta hango herritarrez inguratuta, Beasain aldera jo zuen. Illunabarra zen Beasainen sartu zenean eta berotasun osoarekin hartu zuten. Jesus batean, estazioa kiskaldu eta lehen baino jendepilo handiagoarekin, Lazkaon gelditu gabe, Ataunera sartu giñan gaberako”.***

Azken pasadizo hori 1873ko ekainaren 16an gertatu zen. Pasadizoan kontatzen den gisara, karlistek Beasaingo tren-geltokiari su eman zioten, eta horrekin batera bertan zeuden 21 bagoi eta 152 barrika-ardo ere erre zituzten. Geltokia zaintzen-zuten mikeleteek Santa Kruz apaiza Beasainen zebilela entzun zutenean, Ordiziako gotorlekura joanak omen ziren babes bila, eta, beraz, ez zuen batere oztoporik izan bere nahia betetzeko. Geltokiari su eman ondoren, Santa Kruz apaiza eta haren 80 bat soldaduak, Ochoa de Zabalegik kontatzen duen bezala, Atauna joan ziren gaua babesean pasatzera<sup>92</sup>.

Baina hura ez zen Santa Kruz Ataunen egon zen aldi bakarra. Hila-bete lehenago, gutxi gorabehera, maiatzaren 30ean Araozen, Arantzazun eta Zalduondon barrena ibili ondoren, Ataungo San Gregoriora etorri

<sup>92</sup> Beasaingo paperak (2008)

ziren gaua pasatzeko. Bertan, auzotarrek txaloka hartu omen zituzten, eta hurrengo goizean Aralar zeharkatuz Baraibarrera joan ziren santakruztarrak.

## Kubako gerra (1897-1898)

---

XIX. mendean kubatar independentistek gerra egin zuten Espainiaren aurka.

Mende hasieran, Espainiaren kolonia ziren Kuba, Puerto Rico eta Filipinak, baina amaierarako irlekin bakarrik kontatzen zuen, eta azkenean ezer gabe geratu zen; kolonia guztiak galdu zituen.

Kubako Gerra deitzen bazaio ere, Kuba eta Filipinetako gerra izan zen. Nahiz eta uharte haiek elkarrengandik milaka kilometrora egon, gerra bakarra izan zen bai Espainiarentzat bai eta Amerikarentzat ere.

Gerra hartara zihoazen hainbat soldadu Ataundik pasatu ziren Kubara bidean jarri aurretik, eta horrek herriari gastuak sortu zizkion; soldadu haiei ogiak eman eta gurdiak mugitzeko zaldiak utzi behar izan zizkieten Madrilgo Ehiztarien Konpainiari eta Valentziako Infanteriako Erregimentuari 1897ko urrian. Lehenei goizean, San Gregorion 107 ogianoa eman zizkieten, eta arratsaldean, valentziarrei, San Martinen, 83.

Hura izan zen foruak galdu ondoren, Hego Euskal Herriko mutilak soldaduskara joan ziren lehen gerra. Horrela, bada, ataundarrek ere joan behar izan zuten, baina guztiak ez ziren bueltatu; horietako bederatzigerran bertan hil ziren. Gazte haien omenez, udalbatzarrak erabaki zuen 1897ko San Martin festetan dirurik ez gastatzea eta festetarako izendatutako dirua gazte haien guraso eta alargunei banatzea.

Hona hemen gerrate hartan hildakoak:

Izen abizenak	Jaiotza data	Jaiotetxea
Aierbe Osinalde, Martin Antonio	1836-06-26	Mantxintxu
Aranzasti Urdangarin, Mateo	1844-01-30	Erroiondo zarra
Auzmendi Bazterrika, Diego Antonio	1836-01-10	Arbilleta
Beldarrain Urdangarin, Jose Migel	1845-01-30	Etxe aundi (Arrondoia)
Dorronsoror Dorronsoro, Manuel	1846-01-04	Sariarte garakoa
Galparsoro Goikoetxea, Jose Maria	1849-10-05	Urezandi
Goitia Aristimuño, Jose Joakin	1827-08-01	Olaberria – Añarrin bizi zen

Imaz Barandiaran, Antonio	1849-05-23	Urdarano
Lanz Apalategi, Jose Antonio	1853-06-22	Aranburu

Garai hartan, Guardia Zibilak Ataunen kuartel bat eraikitzeko asmoa zuen, eta 1898ko ekainean, zazpi guardia zibil bizitzeko etxe bat eskatu zion udalari Gipuzkoako komandantziako buruzagiak. Ataungo zinegotziek, batzartu ondoren, aho-batez erabaki zuten konpromiso berriak hartzeko dirurik gabe aurkitzen zirela adieraztea.

Kubako gerrak sortutako gastuak zirela batetik, eta XX. mende hasierako gainerako gerrek sortutakoak, bestetik, Ataungo Udala diru-premia larrian aurkitzen zen; ez zuen bere beharrei aurre egiteko beste diru. Eskasia hari aurre egiteko, zerga berri bat ezarri zuen udalak herrian zeuden negozioen jabeentzat.

Horretarako, zerrenda bat prestatu zuten XX. mendearen hasieran herrian zeuden zerbitzuen eta haien arduradunen izenekin<sup>93</sup>: *Matrícula Industrial*<sup>94</sup>.

---

93 AGG/GAO.JDIT.2948/2949/2950 eta 3166-1

94 10. eranskina

# Emigrazioa

---

Ataunen nekazaritza, artzaintza eta basogintza beste lanbiderik ez zegoenez, hainbat familiak urte zail ugari igaro zituzten. Hori dela eta, langintza ezberdinetako herritar ugari jaioterria utzi, eta Ameriketarako bidea hartu zuten; batez ere, XVI. mendetik XX.era. Ez zen irtenbide bakarra izan; askok apaiz fraile edo lekaime sartuta egin zioten aurre goseari, eta hori eskola pixka bat hartzeko bidea ere bazen.

1752an Galiziako El Ferrol del Caudillo hirian jendea behar zuten itsas portua eraikitzeko, eta Ataundik 27 pertsona<sup>95</sup> hara joateko prest agertu ziren: 6 hargin, 16 arotz, 2 mihizatzaile eta eskultore bat.

XVI. mendean Amerika kontinente berria eskuratu eta konkistatzeari ekin ziotenean, euskaldunak nabarmendu ziren hango hazkundera eta zabalkundera.

1582ko urtarrilaren 27an Espainiako erregeak zabalduetako aginduz, euskal itsasontziek zeukaten lehentasuna Indietarako abiaburuan.

1689an, andaluziarren atzetik, euskalduna zen Mexikon zegoen bigarren komunitatea, eta salerosketarako ahalmena eta burokrazia handitu zirenean, kudeaketarako prestaketa teknikorik onena agertu zutenez, euskaldunak nagusitu ziren.

## **Sevillako Artxibo Historikoan aurkitutako datuen arabera, ugari izan ziren Ataundik Ameriketarako bidea hartu zutenak:**

- 1610: Perura joateko paperak egiten ari zen mutil bat.
- 1690: Ataunen jaio eta Cadizen merkatari zebilen bat paperak egiten ari zen.
- 1706: Mexikora joateko paperak egiten ari zen.
- 1708: Mexikora joateko baimen- eta espediente-paperak lortzen.
- 1709: Boliviara joateko paperak egiten ari zen.
- 1730: Perura joateko paperak egiten ari zen.

---

95 11. eranskina

- XVIII. mendearren bigarren erdia: Ataungo batek Habanan salerosketa-denda zuen.
- 1790: Habanan salerosketa-denda zuen ataundar bat aberastu egin zen, eta ilobari deitu zion harengana joateko.
- 1802: Bi anaia Mexikora joan ziren, San Luis de Potosira.
- 1802: Mexikora joan zen osabaren arazoak konpontzera.
- 1809: Mexikoko Veracruzera kargatzaile joateko paperak, espediente eta bidaiari-baimena lortzen ari zen.
- 1810: Itsasontzian joateko paperak prestatzen ari ziren bi anaia.
- 1826: Habanara joateko paperak egiten.

XIX. mendean Euskal Herria lur jota zegoen, bizimodua aurrera ateratzeko zailtasun handiak zituzten baserrietan, eta, ondorioz, etxeetako gazteek baserrietatik joan eta handik kanpo aurkitu behar izan zuten bizimodua.

Karlistaldiek berebiziko garrantzia izan zuten euskaldun askok Amerikarako bidea hartzeko garaian. Izan ere, gerra haien ondorioz landa munduaren eta hiriaren arteko lehian, nekazariak galtzaile atera ziren. Gauzak horrela, askok nahiago izan zuten Ameriketara joan eta beraien lur propioetan nekazaritzarekin jarraitu, liberalen menpeko lantegietan jardun baino.

Horrez gain, Industria Iraultzarekin, osasuna hobetu eta hilkortasun tasa jaitsi zen, eta populazioak asko egin zuen gora euskal lurretan. Horrek baserrien eta lurren banaketan arazoak sortu zituen. Normalean, seme zaharrenak jasotzen zituen familiako jabetzak oinordetzan, eta gainerakoek baserrietik kanpo aurkitu behar izaten zuten irtenbidea: beste baserri batera ezkondu, apaiz edo moja sartu edo lan bila kanpora. Kanporako bidea hautatu zuten ataundar gehienak Argentinara joan ziren, eta erabakia hartzen lagundu zieten honako puntu hauek:

- Aurretik joandako senideek ekonomikoki ondo bizi zirela esaten zieten, eta horrek tentatu egiten zituen. Horrez gain, hara joateko gonbidapena ere egiten zieten.
- Ez zuten joan nahi soldaduskara.

- Jaiotetxean edo baserrian gorriak ikusten ari zirela eta, bizimodu hobearen bila joan ziren asko. Haietako askok familiei dirua bidaltzen zieten.
- Hego Ameriketara, Argentinara, behinik behin, lanerako jendea eskatzen zuten; eskulana zegoen. Gainera, euskaldunek langile onaren fama zuten, eta urte batzuetan Argentinako gobernuak euskaldunei lurra oparitu zizkien hara bizitzera joatearen truke.

Ataundik ozeanoa gurutzatuta bizimodu hobe baten bila joandakoen kopurua handia da. 150<sup>96</sup> bat lagunengatik datuak aurkitu ditugu. Batez ere, gizon gazte eta ezkongabeak joaten baziren ere, Ataundik 32 neska gazte ere joan ziren. Aipagarria da etxe guztietatik gutxienez bi senide joaten zirela, baina hiru eta lau joandakoak ere asko dira.

Helmuga nagusia Argentina izan zuten; gehienak Buenos Airesko portuan lurreratu ziren, baina Santa Fe probintziako Rosariora joan zenik ere egon zen. Beste herrialde batzuetara ere joaten ziren, hala nola Txilera, Kuba (Habana), Mexikora, Venezuelara, Puerto Ricora, Miami (Florida) eta Filipinetara.

Esan beharra dago 150 lagunengatik datuak topatu baditugu ere, oso litekeena dela jende gehiago joan izana. Izan ere, Buenos Airesko Puerto Madurora edo Rosarioko portura iristen ziren askok izena aldatzen zuten; bizimodu berri batekin hasi nahian edo herritik ihesean egin zutelako. Ezin dugu ziurtatu gainerako herrialdeetan horrelakorik gertatzen ote zen, baina badakigu Argentinan horrela egiten zutela.

Guk aukera izan dugu 1892. urtean Sorotxoeta baserritik Argentinara joandako Jose Ramon Galparsoro Mujikaren<sup>97</sup> senideak topatzeko, eta lerro hauetan duzue haiei egindako elkarrizketa.



DATOS PERSONALES		DOMICILIO	
Nacionalidad	ESPAÑOL	Calle	Blanca N. 317
Nacido el día	23 de MARZO de 1853	Localidad	Necochea
in	MURUM Prov. de GUAYMA	Fecha	20-10-96
Nacido	ESPAÑA Est. civil CASADO	Sello	NEGRO
Matr. ind.	D. M. Segun	Calle	
Carta de ciudadanía N.º		Localidad	
oficio	Profesion a	Fecha	
Ocupación	COMERCIANTE Inscripción	Sello	
Observaciones	BAZARRIA	Calle	
		Localidad	
		Fecha	
		Sello	

96 12. eranskina

97 13. eranskina: Jose Ramon Mujika Galparsororen senideek bidali dizkiguten dokumentuak.

**Nombre y apellidos:** Patricia Lafforque Galparsoro y Alfonso Ardanaz Galparsoro (hijo de Patricia)

**Lugar de residencia:** Necochea (Buenos Aires, Argentina)

**Parientes que se fueron de Ataun, del caserío Sorotxoeta a Argentina:**

- **Galparsoro Mujika, Jose Ramón (1873-03-28):** Buenos Aires
- **Galparsoro Mujika, Jose Francisco (1880-02-17):** Buenos Aires
- **Galparsoro Mujika, Tomás (1882-07-07):** Necochea

**-¿De quién descende vos?**

Patricia: Mi abuelo era Jose Ramón.

**-¿Cuándo se fue su abuelo de Ataun a Argentina? Dos de sus hermanos también tomaron el mismo camino, ¿sabe por qué emigraron?**

Alfonso: Mi bisabuelo llegó a la Argentina en 1892 (tenía 19 años). Antes estuvo en Paraguay. Allí compro ganado. Después de muchos años mis abuelos viajaron al Paraguay, a vender ese ganado.

Se vino para no entrar en el servicio militar. 14 años después recibe un Indulto del Rey.

**-Al estar a tantos kilómetros de casa, se puede imaginar que sería de gran apoyo tener a otros dos hermanos cerca, a parte de otros tantos vascos que vivirían alrededor. ¿Sabes si tenían alguna red de socialización, punto de encuentro...? (¿Puede ser el Centro Vasco?)**

Alfonso: Su hermano Tomás María Fermín vino a Necochea. Tenía un hotel. De Jose Francisco no tenemos recuerdos, datos.

Mi bisabuelo compro también un hotel "Gran Hotel". Después de muchos años su hermano Tomás se radicó en la ciudad de Mar del Plata.

Solían juntarse en el hotel con vascos amigos. El centro vasco se creó después. El bisabuelo vino a Necochea porque acá estaba un tío al que llamaban "el vasco ataun". Este tío tuvo los primeros hornos de ladrillos de Necochea.

**-¿Os conto algo sobre su pueblo natal, Ataun?**

Patricia: No recordamos que nos contara cuentos de su pueblo natal Ataun. Lo que recordamos es que llamo a su novia María Antonia Aguirre Arostegui de Zegama, después de unos años, para casarse con ella en Necochea.

**-¿Sabes a que se dedicaba en Ataun y cuál fue su oficio una vez allá en Argentina?**

En Ataun eran labradores. En Argentina criadores de ganado. Administraba campos de hacienda de la zona, que también eran de vascos. Era comerciante, tenía un hotel.

**-¿Habéis estado en el País Vasco? ¿Han tenido la ocasión de venir a Ataun? ¿Qué significa Ataun, o el País Vasco para vosotros?**

Alfonso: He estado dos veces en el país vasco. Pero no he ido a conocer Ataun.

El país vasco para nosotros es nuestro segundo país. Nuestra segunda casa. La casa de mi "familia" porque de ahí venimos...

**-¿Mantenéis algún contacto con Ataun, o con el País Vasco?**

Contacto con Ataun no. Pero sí con Usurbil (Guipúzcoa) dónde vive mi hermana Natalia hace casi 13 años y dónde tengo mis dos sobrinos vascos.

**-Formáis parte del Centro Vasco de Necochea, ¿Qué significa eso para vos?**

Formar parte del centro vasco para mí es lo mejor que tengo. Mi segunda casa. Dónde voy siempre con ganas y dónde siempre la paso bien. Dónde todo es una familia y todos nos llevamos muy bien.

Beste herritar batzuk ere, lehorreko krisiari itsasoan aurkitu zioten irtenbidea, baina kasu honetan, lanean; itsasoko lana ezagutu ez arren ataundar ugari joan ziren XX. mendearen hasieran balea eta bakailoak arrantzatza. Ternuara, Saint Pierre de Miquelon<sup>98</sup>, Groenlandia, Labrador eta inguruko itsaso izoztuetara joaten ziren bakailao-arrantzara; lau-sei hilabete pasatzen zituzten itsaso izoztu haietan lurrik ukitu gabe.

Hasiera batean islandiarrek edo frantziarrek lagundu zieten euskaldunei, baina berehala ikasi zituzten ofizioaren nondik norakoak, eta beraien kabuz moldatzeko gai izan ziren euskaldunak. Garaiko itsasontzirik onenetakoak izaten zituzten: egurrezkoak, handiak eta sendoak. Ikatzarekin sortutako lurrunez mugitzen zirenez, janaria eta norberaren gauzez gain, 600 tona ikatz eta 140 tona ur eramaten zituzten galdara martxan jarri eta edateko. Horrez gain, euskal marinelek sagardoa ere eramaten zuten, eta, diotenez, horixe izan zen euskaldunek eskorbutoa ez harrapatzearen arrazoia.

<sup>98</sup> Bitxikeria gisa aipatu, bertako bandera eta armarria 4 irudiz osatuak daudela: itsasontzi bat eta 3 bandera. Ontzia hondo urdinean dago, eta zerua eta itsasoko urak irudikatzen ditu. Banderaren ezkerrean goitik behera bertako herritarren jatorria adierazten duten banderak azaltzen dira: ikurrina, eta Britainiako eta Normandiako banderak, hurrenez hurren. Gainera, ikurrina auto batean era ofizialean ikus daitekeen munduko leku bakarra da.

Baina nolatan joan ziren ataundarrak lehorretik itsasora lanera? Itxura denez, Debako kapitain sonatu bat Lazkaon bizi zen, eta zerikusi handia izan zuen Ataungo hainbat gaztek —guk 23ren<sup>99</sup> datuak aurkitu ditugu— itsasorako bidea har zezaten. Horrez gain, soldatak eta itsasora joateagatik soldaduskatik libratzeak ere zerikusi handia izan zuen gazte haien erabakian.

1930eko krisiaren ondorioz, ordea, emigrazioa murrizten joan zen.

---

99 14. eranskina

## Primo de Riveraren diktadura (1923-1930)

---

1923an, oso giro nahasia zegoen Espainian eta Hego Euskal Herrian. Agintean Alfontso XIII.a erregea zegoen, armadaren eta elizaren babesarekin. Baina gizartean aldaketa ugari ari ziren sortzen; batetik, industrializazioa eta, bestetik, ideologia ezkertiarak. Erregeak ez zuen lortzen gizartea ordura arte bezala menpean egotea berak nahi zuen bezala, eta, horri buelta eman nahian, Miguel Primo de Rivera kapitain jeneralak, 1923ko irailaren 23an, estatu-kolpea jo zuen. Erregeak Primo de Riveraren diktadura hura begi onez ikusi zuen, eta gobernu berria osatzeko agindua eman zion.

Primo de Riverak ezarritako gobernu militarren lehen zeregina zentsuraren bidez alderdi politikoak eta sindikatuak bertan behera uztea izan zen. Ondorioz, militarrek hartu zituzten gobernu zibilean hutsik geratu ziren karguak. Horrek udaletan ere eragina izan zuen: udalbatzak —herriarrek aukeratuak zirenak— desegin, eta berriak probintziako gobernadoreek hautatutako pertsonekin osatu zituzten. 1923ko urrian aldatu zen Ataunen udalbatza. Pablo Peralto Pintor, Beasaingo Guardia Zibil kaboa buru zela, herriko alkatea eta zinegotziak agintetik kentzea erabaki zen. Ordura arteko zinegotziak jakinean jarri ondoren, alkate berria aukeratzeko prozesuari ekion zioten boto bidez. Arratetako Franzisko Irastorza Eskisabel jaunak 8 boto jaso zituen, eta Miraballesko Jose Manuel Altolagirre Arrese jaunak, bat. Horrela, bada, militarrek Irastorza alkatetarako aldarrikatu ondoren gainerako zinegotziak hautatu zituzten.

Aldaketak ez ziren soilik udalean gertatu, herriko bizitza osoan izan zuten eragina, baita herriko eskoletan ere. Une hartan, Ataunen bost eskola zeuden auzoetan banatuta, eta haietako irakasle guztiei agindu zitzaien haurrek egunero gurtu beharko zutela Espainiako bandera nazionala *Viva España* esanez. Horrez gain, eskolaren batean banderarik ez bazegoen, berehala erosteko agindu zitzaien.

1929. urtean, mundu osoan krisi ekonomikoa izan zen, eta, horrekin batera, Espainiako ikastetxe nagusietako irakasleak, jakintsuak



1931-04-14an *Euzkadi* egunkarian argitaratua.

eta oposizio artileriako militar batzuk diktadorearen eta erregearen aurka mobilizatzen hasi ziren, errepublika aldarrikatuz. Horrek guztiak Primo de Riveraren diktadura egoera latz eta zailan jarri zuen, eta azkenean, 1930eko urtarrilaren 26an Primo de Riverak etsi

eta agintea utzi zuen, kapitain jeneralaren babesik ez zuelako. Errepublikaren aldarrikapenak ez ziren bertan behera geratu, ordea; gero eta babes handiagoa zuten gizartean. Diktadorea agintetik desagertzearekin batera, Alfontso XIII.a saiatu zen monarkia konstituzionala indarrean jartzen, baina bere aurkako erasoak ugaritu besterik ez ziren egin, diktadura ezartzen lagundu baitzuen.

## II. Errepublika (1931-1936)

---

Primo de Riveraren diktaduraren amaiera nola suertatu zen azaltzean esan dugun bezala, Alfontso XIII.a saiatu zen Errepublikazaleen presioei iskin egin eta monarkia konstituzionala indarrean jartzen. Horretarako, 1931ko apirilaren 12an udal-hauteskundeak egin zituen; Gipuzkoan ez ziren herri guztietan egin, 24tan bakarrik. Erregearen zorigaitzerako, errepublikarrek eta sozialistek 39.501 zinegotzi lortu zituzten hauteskunde haietan Espainiako Estatu osoan, eta kontserbadoreek 34.238<sup>100</sup>. Gainera, errepublikaren aldekoak hirietan nagusitu ziren, eta eskuinaren aldeko zinegotzi asko eta asko herri txikietakoak ziren; beraz, Espainian eragiten jarraitzeko ahalmen gutxiarekin geratu zen. Eraitza kaskar horien ondorioz, Alfontso XIII.ak legitimitatea galdu eta erbestera alde egin behar izan zuen.

Errepublikarrak nagusitu ziren, beraz, Espainiako Estatuko hirietan, eta, poliki-poliki, II. Errepublika aldarrikatzen hasi ziren; lehena, 1931ko apirilaren 14an, Eibar izan zen. Egoera politiko hori aldarrikatzearen helburua zen estatuarentzat beste funtzionamendu molde bat abian jartzea, eta, horretarako, beste batzuen artean, honako proposamen hauek egin zituzten:

- Gobernu demokratikoa eratzea
- Zentralismoa baztertu eta estatu dezentralizatua lortzea
- Armada berriztatzea
- Elizari boterea kendu eta estatu akonfesionala eraikitzea
- Gizarteko lege aurrerakoiak ezartzea
- Emakume eta gizonentzat sufragio unibertsala ezartzea

II. Errepublika ezarri zenean, 1931ko apirilean, Txataniñeneko Franzisko Maria Dorronsoro Barandiaran zen alkate Ataunen. Hilaren 27an, udal-ordezkariek 30 zentimetroko bandera errepublikarra erostea erabaki zuten 45 pezeta ordainduta<sup>101</sup>.

---

100 Arruabarrena Goikoetxea, A. (2005)


101 AUA, 509-01



Autonomia-estatutua lortzeko aukera handiak zeudenez, EAJk Euskal Herriko alkateei dei egin zien Lizarran bildu eta bideari ekiteko. Horrela, bada, 1931ko ekainaren 14an Lizarran elkartu ziren Euskal Herri osoko 548 udal-ordezkeri, eta 427 alkatek izenpetu zuten bertan prestatuturiko eskabidea. Aipatzekoa da, herri txikietako ordezkariak zirela guztiak; herri handietakoak ez ziren agertu. Bilkura hura gauzatzeko, Manuel Irujo diputatuak prestatu zituen Lizarrako antzokia eta mitina egiteko zezen-plaza. Bertan idatzi zuten *Euskal estatuaren estatutua*<sup>102</sup>, eta ondorengo bi argazkiak bertatik atereak dira. Lehena, estatutu haren lehen orria da, eta estatutua noiz eta non onartu zuten ageri da. Bigarren argazkian

102 Euskal Eria. Publicación defensora y propagadora de las libertades vascas (1932)

estatutuaren 5. titulua ageri da, eta lerro hauetara ekarri nahi izan dugu Euskal Herriko eta euskal eskole-tako hizkuntzari buruzko erabakiak ageri baitira, hau da: bateko zein besteko hizkuntza ofiziala euskara izango zela. Izan ere, Errepublikak garaiko gobernuak garrantzi handia ematen zion hezkuntza herritar guztiei zabaltzeari.



Atauni dagokionez, ez dugu aurkitu 1931ko apirilaren 12an udal-hauteskundeak egin izanaren zantzurik; beraz, pentsa dezakegu Gipuzkoako beste hainbat herritan bezala, Ataungo zinegotziak ere hauteskundelegearen 29. artikulua aplikatuz izendatu zituztela.

Garai hartan herria politikoki bi alderdi nagusitan banatuta zegoen (nazionalistak eta karlistak). Ez ziren, ordea, herriko joera politiko bakarrik. ANV alderdiak ere bazuen presentzia, eta komunista batzuk ere baziren, nahiz eta batzuek zein besteek indarrak oso mugatuak izan. Bi alderdi nagusien artekoa zen, beraz, lehia gure herrian, eta ahal zuten guztia egiten zuten alderdikide berriak lortzeko.

1932ko otsailaren 13an, Ataungo alkateak eta zinegotziek egindako batzarrean, urtarrilaren 1ean gobernadore zibilak bidalitako agiria irakurrri<sup>103</sup> zuten. Idatzi haren bidez, gobernadoreak agindu zuen udaletxeetan egon zitezkeen sinbolo erlijioso guztiak kentzeko, Konstituzioak estatuaren akonfesionalitatea aldarrikatzen baitzuen, eta, horren ordez, estatuburuaren argazkia ipintzeko. Zinegotziek, agiriaren berri izan orduko, agindua betetzeko erabakia hartu zuten. Baina hori bai, agerian utzi zuten Jesusen Bihotzaren irudia kentzeak gaitzespena sortzen zuela, herri katolikoa izanik herritarren sentimenduak mindu zituen erabakia izan zela.

1933ko apirilaren 23an udal-hauteskundeak egin zituzten, eta nazionalistak atera ziren garaile. Nazionalistek 1580 boto lortu zituz-

103 AUA, 509-01

ten, eta Karlitek 1024<sup>104</sup>. Hauek izan ziren emakumeek boto eskubidea izan zuten lehen hauteskundeak. Horrela geratu ziren hauteskunderen emaitzak:

Kandidatuak	Bizilekua	Bozkak S. Martinen	Bozkak S. Gregorion	Bozkak Aian	Bozkak guztira
<b>Nazionalistak</b>					
<b>Flabio Larrakoetxea Barandiaran</b>	Zaindegi	292			292
<b>Martin Dorronsoro Barandiaran</b>	Arresenea	292			292
<b>Jose Manuel Aierbe Otegi</b>	Mantxintxu	292			292
<b>Inazio Aierdi Goikoetxea</b>	Munduate/ Arrate		190	48	238
<b>Jose Fko. Munduate Imaz</b>	Artzate berria		172	48	220
<b>Nikolas Zurutuza Mujika</b>	Arratinea		178	48	226
<b>Bizente Eskisabel Urbiztondo</b>	Arteditxulo		20		20
<b>Karlista Tradizionalistak</b>					
<b>Pedro Zurutuza Elizalde</b>	Iturralde	184			184
<b>Jose Antonio Aiestaran Loinaz</b>	Errota berri	188			188
<b>Juan Urdangarin Aierbe</b>	Dorronsoro	185			185
<b>Jose Antonio Arratibel Imaz</b>	Urbitate (Ergoiena)		95	66	161
<b>Franzisko Agirre Bazterrika</b>	Aiaugalde aundia		87	70	157
<b>Migel Zurutuza Arratibel</b>	Ugalde		83	66	149

1933ko apirilaren 23ko hauteskunde haietan, karlistek inoizko emaitzarik onenak lortu zituzten Ataunen, baina, halere, ez zen nahikoa izan irabazteko. Nazionalistek sei zinegotzi lortu zituzten, eta karlistek, berriz, lau. Abertzaleek bereziki herritar arrunten, behartsuen eta gazteen botoak jaso zituzten.

Iluntze hartan, gazteak Arrondoko Anbune tabernan garaipena festa giroan ospatzen ari zirela, karlisten zerrendaburuak, nazionalisten poza eramanez, tiro bat bota zien etxeko leihotik. Zorionez, ez zen zauriturik izan.

Irakurri auxer

## Gaurko hauteskundeak

Eri askotan, gaur, Ayuntamiento berik aukeratzeko hauteskunde elektzioak dira.

Beñere bada, ta gaur, inortok ere, bere burua katolikotzat daukanak beintzat, ez du gelditu bere botorik eman gabe.

b Oraingo ontan emakumeak ere badute botoa; beraz ez dedila at bakarik ere botorik eman gabe gelditu.

Ez dezala inortok ere esan nere botoagatik berdintsu izango da, nik botoa eman edo ez eman ez du ezertxo er esan nai. Bai jauna, gizonetza bazera, ta bai andrea emakumezkoa bazera, asko esan nai du zure boto bakarik ere; batetik zure Jainkotasuna ta Euskaltzaletasuna ortantxe erakusteko eguna etofi zaizulako; bestetik, Elizak berak Aita Santutik asi ta, ala nai dulako; irugafen, gure etsaiak gure botoa ez eman zai-zai daudelako Ayuntamientoetan artu ta Eliza ta Eliz usai guztiak al-baldin badituzte zanpatzeko.

Eta ez ba esan, emen nik eman edo ez eman garrantzirik ez du, nolanaite ere eskuikoak aterako dira-ta. Ala balitz ere botoa eman bere da gure etsaiak jakin dezaten asko gerala Jaungoikoaren aldekoak.

Beraz ez aztu: Gaur gizona bazera botoa eman esku aldera. Emakumea bazera eman botoa esku aldera. Gazte edo zafak bazerare eman botoa esku aldera, *garrantzi aundiya du zure botoak* eta gainera Jaungoikoak ala nai du.

ARGIA'ren irakurle guztiok, eman gaur botoa eskuikoan alde, eta al badezue besteai ere eskuikoan alde eman erazi.

1933ko apirilaren 23ko *Zeruko Argia* astekearian horrela eman zuten hauteskundeen berri.

Ataungo joera nazionalista nahiko orokorra zen Goierrin ere. 1933ko udal-hauteskundeetan, eskualdeko 23 herrietatik hamalautan EAJ izan zen nagusi. Baina ezin da ahaztu sei herritan eskuinak zuela indarra (karlistak eta monarkikoak). Hauteskunde orokorretan, berriz, jeltza-leek oraindik eta emaitza hobek ateratu zituzten: 23tik 17 herritan izan ziren garaile<sup>105</sup>.

Dorronsoroeneko Flabio Larrakoetxea Barandiaranek alkate kargua hartu eta berehala, udaleko funtzionamendua erabat aldatu zen; aurrekoen bidea alboratu eta euskal kontzertu ekonomikoaren, udal askatasunaren eta euskal udalen batuketarako bidean lanean hasteko asmoz ziren. Baina asmoak ez ziren luze iraun. Izan ere, karguak hartu eta denbora gutxira gobernadore zibilak nazionalistak kargutik kendu zituen Euskal eskubide historikoak berreskuratzen jardun zutelako, eta, beraien ordean, karlisten zerrendako hautagaiak izendatu zituen alkate eta zinegotzi.

1934. urtea EAJren ibilbide politikoan inflexio-puntua izan zen. Elizari erabat lotuta zegoen eskuina amaitu zen urte horretan, eta ezkertiar errepublikazaleengana zein sozialistengana gerturatu zen EAJ. Euskal gizartea pairatzen ari zen tentsioaren adierazle baino ez da aldaketa hori. Urte hartan, udal-kargu askok adierazi zuten dimisioa; isunak jaso zituztenak ere ugari izan ziren, baita atxilotuak ere.

Gorabehera haien punturik gorena 1934ko irailaren 2an Zumarragan izan zen batzar sonatu batean. Bertan Prieto ministro ohia, EAJren parlamentariak eta Kataluniako hamalau parlamentarik parte hartu zuten, Espainiako Gobernuak euskal lurretan egiten zuen errepresioa salatzeke. Batzar hark garrantzi politikorik ez bazuen ere, sortu zuen oihartzuna nahiz balio sinbolikoa izugarriak izan ziren. Izan ere, lehen aldia zen euskal lurretan nazionalistak eta sozialistak elkartu eta bide berean lanean hasi zirena.

Batzarraren oihartzuna Madrileraino iritsi zen, eta gobernuak indar-polizialei agindu zien Zumarragara zihoan orori bidea eragozteko. Horrela jasota geratu zen egun hartako Madrilgo *Ahora*<sup>106</sup> egunkarian.

---

105 Arruabarrena Goikoetxea, A. (2005)

106 1934ko irailaren 2ko *Ahora* egunkaria



Zumarragako batzar hartara joateko deia zinegotzi abertzaleei egin zieten, eta, deiari erantzunez, Ataungo ordezkariak ere bertan izan ziren. Ez zitzairen merke atera, ordea, beraien karguak uzteko eskatu baitziren gobernadore zibilak. Esan eta egin. Zumarragan izan ziren udal-ordezkariak beraien dimisioa aurkezteaz gain, bertaratzerik izan ez zuten alderdikideei, gutun bidez, beraien karguak uzteko eskatu zieten. Honela zioen eskutitzak:

***“Ataun a 7 de septiembre de 1.934***

**[bakoitzaren izen-abizenak]**

***Concejal del Ayuntamiento de esta Villa de Ataun***

***Estimado compañero:***

***En vista de gravísima situación por que atraviesa el País a consecuencia del sistema represivo que el poder central utiliza en contra del normal desenvolvimiento de los Concejales Vascos, causando ofensa al Fuero Municipal y a las libertades administrativas reconocidas desde tiempo inmemorial en este país, con esta fecha presentamos ante el Gobernador Civil de la Provincia nuestra dimisión del cargo de concejales que nos confirió el pueblo y sería de mi mayor agrado y de mis compañeros del Partido Nacionalista Vasco el de que Vd. también nos imitara en esta nuestra actitud de dimisión.***

***Aprovecho gustoso la ocasión para testimoniarle mis saldos en nombre de la mayoría nacionalista a que pertenezco y manifestarle nuestro agradecimiento por la cooperación que hemos encontrado en Vd. en el desenvolvimiento de la misión administrativa formando parte de la Corporación Municipal de esta Villa y a la que desde hoy dejamos de pertenecer.***

***Firmado: Manuel Ayerbe Otegui***

Dimisioen ondoren udalbatza bertan behera geratu zenez, 1934ko urrian, gobernadore zibilak izendatu zituen udal-ordezkarri berriak. Errotaberriko Jose Antonio Aiestaran Loinaz izendatu zuen alkate, honako bost zinegotzi hauekin batera: Fermin Arana Navarro (Txomiñone), Domingo Jauregi Apalategi (Aiako errota), Jose Urdangarin Aierbe (Andietxe), Migel Zurutuza Arratibel (Etxe Zuri), Jose Antonio Apalategi Garmendia (Aministrazio) eta Juan Goikoetxea Eskisabel (Barberonea).

1936ko otsailaren 23an, Jose Antonio Aiestaran Loinaz alkate zegoela, Ataungo udaletxean ezohiko batzarrera deia egin zuen gobernadore zibilak. Bileran hartara joateko deia egin zieten 1934an kargutik kendutako alkateari eta zinegotziei. Bileran, gobernadore zibilak barkamena eskatu zien bi urte lehenago izan zuen jarrera desegokiagatik, eta, barkamena eskatu ondoren, amnistiatuak zeudela adierazi zien. Horrela, bada, berriro alkate- eta zinegotzi-karguak har zitzaketela jakinarazi zien. Egun hartako aktan<sup>107</sup>, honela jaso zuten erabakiaren berri:

***Acta municipal de la sesión extraordinaria del 23-02-1936***

***“Comparece el Alcalde Jose Antonio Ayestaran Loinaz para dar cumplimiento del telefonema del Excmo. Sr. Gobernador de esta Provincia.***

***Comparecieron los sres. Concejales amnistiados a que se refiere dicho telegrama, Flabio Larrakoetxea Barandiaran, Martín Dorronsoro -Barandiaran, Jose Manuel Aierbe Otegi, Inazio Aierdi Goikoetxea, Nikolas Zurutuza Mujika y Jose Manuel Munduate Imaz.***

---

107 AUA, 509-03

***Seguidamente el Alcalde les posesionó de sus respectivos cargos, los cuales quedan en sus respectivos puestos en la forma constituida el 10-05-1933.***

***Una vez reintegrados a sus puestos, el Sr. Alcalde cedió su puesto al que lo era anteriormente, Flabio Larrakoetxea Barandiaran.***

***A continuación el alcalde propuso a sus compañeros, se cursaran telegramas a los Sres. Presidente del Consejo de Ministros (Sr. Azaña) y al Gobernador de la Provincia, felicitando su buena disposición al reintegrar a sus puestos los Ayuntamientos Vascos obrando de esta forma en recta justicia, y exponer los deseos de que lo antes posible den la legalidad a las Diputaciones Provinciales Vascas y sea un hecho la aspiración del País Vasco en cuanto al Estatuto presentado a las Cortes e informado favorablemente”.***

Gobernadore Zibilak bere erabakiaren berri eman ondoren, une hartako alkateak, Jose Antonio Aiestaran Loinazek, Flabio Larrakoetxea Barandiaran eta haren taldeari zegozkien karguak eskuordetu zituen.

Espainiako Gerra Zibila ate joka zen garai haietan, matxinada piztu zela zabaldu zen herrietan, eta errepidean ere asko ugaritu ziren kanpotarren joan-etorriak. Hori ikusita, nazionalistek defentsarako zaintza-batzordea osatu zuten. Herriko hainbat gaztek eskopetak hartu, eta, txandaka, gauez, herria zaintzeko ardura hartu zuten. Horrez gain, telefonoaren ardura ere abertzaleek hartu zuten.

Gerra bezperako egun haietako batean, Beasaingo ezkertiar batzuk Ataungo Zirkuluan ospe handia zuen karlista atxilotzera etorri ziren, Bidarte Handiko Daniel Intxausti Dorronsoro, eta bahituta eraman zuten. Atxiloketa hura ikusirik, Flabio Larrakotxea alkatea eta hainbat zinegotzi Beasaina joan ziren Intxaustiren askatasuna eskatzera. Ez zuten lortu presoak une hartan bertan askatzerik, baina bai Beasaindik inora ez mugitzea. Azkenean, Francoren gudariak Beasainen sartu ziren egunean utzi zuten aske.

Larrakotxea Euskal Estatutuen defendatzaile sutua zen, eta, ondorioz, Gerra Zibila hastekotan zela susmoak zabaldu zirenean, kargua utzi eta Ataundik ihes egin behar izan zuen. Haren ordeaz, Arreseneko

Martin Dorronsoro Barandiaranek hartu zuen herriko alkate-kargua. Probintziako gobernadoreak gertaeraren berri izan zuenean, armadako tenienteari eta Beasaingo Guardia Zibilen komandanteari agindu zien Ataungo udalbatza berria osatzeko. Horretarako, 1936ko uztailaren 30ean ezohiko bilera egin zuten, eta bertan, aipatutako bi militarren aginduz, pentsaera eskuindarra zuten honako hauek hautatu zituzten udalbatzar berria osatzeko:

Franzisko Maria Dorronsoro Barandiaran	Txatañenea
Jose Antonio Apalategi Garmendia	Aministrazio (Ergoiena)
Fermin Arana Navarro	Txomiñone
Jose Andres Urdangarin Barandiaran	Kalakasenea
Migel Zurutuza Arratibel	Etxe zuri (S.G.)
Jose Inazio Munduate Agirre	Artzate aundia

Ordezkarri berriak izendatu ondoren, Guardia Zibilen komandanteak hitzaldi batean adierazi zien Espainiari laguntzeko eta militarren aginduei jarraitzeko. Eta, horrez gain, Espainia deuseztatzea beste helbururik ez zutenei ekiteko, Espainiaren defentsan ari ziren militarrei lagunduz. Ezohiko udalbatzarra amaitzeko, alkate izendatu berriak *¡Viva España!*, *¡Viva Cristo Rey!* eta *¡Viva Euskal Herria!* oihukatu zuen<sup>108</sup>.

Udal-ordezkarri berriek karguari zin egin, eta hartu zuten lehen erabakietakoa bat Francoren armadari diruz laguntzea izan zen. Horrela, bada, 1936ko abuztuaren 9an, herrian diru-bilketa egin eta 2.157 pezeta lortu zituzten. Gerra bete-betean zeudela, eta, bizi-mailak nahiz soldatak gaur egungoen antzik ez zutela kontuan izanda, diru-kantitate handia lortu zuten ataundarrek armadari emateko.

---


108 AUA, 511-01

## Ataundarren topalekuak

### Batzokia

Batzokiak EAJko kideen topalekuak baziren ere, euskal kulturaren arloko hainbat ekitalditarako lokal gisa ere funtzionatu zuten; gutxienez, 1936ko gerrara arte. Ataunek ere izan zuen berea, 1931. urtean irekia eta Miraballes tabernan egindako bileretatik sortua. Nazionalisten elkarte edo biltoki hura Goikoetxea-enea etxearen lehen solairuan zegoen, eta, batzar tokiaz gain, gainerako ekintzetarako areto bat ere bazuen. Sastegiko Jose Erauskinek Inazio Munduate Dorronsorori kontatua da 1938 inguruan boxeo ekitaldia ikusi zuela Batzokian. Boxeolariak ataundarrak omen ziren: Santiagone txikiko Remijio Zurutuza Imaz eta Amundaingo Agustin Imaz Goena.

Batzokiak batzar aretoa eta erabileran anitzerako beste gela bat izateaz gain, aldameneko Bide Gain etxearen estalpea ere egokitu zuten. Bertan herriko gazte nazionalistek ekintza ugari antolatzen zituzten: antzerkiak, dantza emanaldiak... Ekintza horietarako udalari oholtza uzteko eskatzen zioten, eta alkateak inongo eragozpenik jarri gabe uzten zien, musutruk; sarretetatik jasotako diruaren zergak udal-kutxan ordaintzen baitzituzten<sup>109</sup>.



Batzokia sortzeko, 25 bat lagun inguru hasi ziren biltzen, eta, bilera haietatik sortu bazen ere, bultzatzaile eta laguntzaile ugari izan zituzten, bai mutil eta bai neska. Elkartearen inaugurazio-ospakizunak 1931ko ekainaren 7an egin zituzten, eta egun hartarako prestatutako egitaraua honela agertu zen ekainaren 5eko *El Día*<sup>110</sup> egunkarian.

Batzokiko batzordeak ekitaldi ugari antolatzen zituen eta horien berri herritarrei zabaltzeko *El Día*<sup>111</sup> egunkarian argitaratzen zituzten.

Esan bezala, Batzokiaren sorrera-prozesuan emakumeek ere parte hartu zuten, eta, horretaz gain ere, behin martxa hartu ondoren, beraien bilera nahiz ekintzak antolatzen hasi ziren ziren. Udalean agintzen zeudenek, karlistek, ez zituzten batere gogoko Batzokikoek antolatzen zituzten ekintzak, baina, debekatzeko ahalmenik ez zutenenez, aguantatu beste erremediorik ez zitzaien geratzen.



1934ko uztailaren 22an, esaterako, Jesus Elozegi Irazustak ateratako argazkietan ikus daitekeen bezala, dantzari-txiki jaialdia eta emakumeen mitin nazionalista antolatu zituzten. Eta beraien berri bezperako *El Día* egunkarian eman zuten<sup>112</sup>. Jai-giroa ziurtatzeko egitarau zabala prestatu zuten:

110 *El día*: Ataungo Euzko Jayak. 1931-07-06

111 15. eranskina

112 16. eranskina

**Egitaraua:**

**Goizeko 7etan, Martin Deunaren txadonean jaupa ixila eta jaunartze orokorra.**

**8 etan, Batzoki´ko txistulariak biribilketa joko dute.**

**11etan, Jaupa Nagusia joaten dirala Agintariak eta jaun agurgarriak.**

**Jaupa ondoren, Emakume Abertzale´n Bazkuntza berri eta ikurriñaren onspena.**

**12 etan, Euzko etxe´ko ezpatadantzariak aterako dute aurrelua eta gorulariak egingo dituzte euren dantzak.**

**Arratsalde´ko 1ean, Otarrantza (bazkaria)**

**4etan, Dantzaldi nagusia, erriko ezpatadantzari, gorulari eta beste amar talde dantzatzen dirala.**

**5etan, Itzaldi aberkoaia, mintzatzen dirala izlari ospetxu oek:**

- **Urzelai´tar, Julene (Andereñoa)**
- **Linazasoro´tar Karla (Altzeta)**
- **Irujo´tar Imanol (Gipuzkoa´ko aldun jauna)**
- **Ernandorena´tar Todor (Gipuzko Buru Batzareko lendakari jauna)**
- **Eta beste izlari bat izparringietan agertuko dan bezela.**

**Ondoren, eusko dantzaketa enparantzan.**

**7 etan, Antzoki berrian, Lazkano´ko antzeslan itxalotuak aurkeztuko dute “Neska zarra” deritzayon antzerki polita.**

**Oarra: Otorruntzako senaurria izango da 7 lauerleko, eta bertara etorri nai duanak aitzera eman dezala Emakume Abertzale Batzan edo Euzko Etxen, il onen 19´ko osteguna eta arratserako.**

“Idartza”

**Círculo Tradicionalista y de las JONS**

Ataunen karlistek indar eta babes handia zuten, eta, nazionalisten antzera, Ataungo ardatz politikoaren inguruan erabakiak hartzeko leku baten beharra zutenez, *Círculo Tradicionalista y de las JONS* elkarte osatu

zuten. Sortzaileen artean karlistak, falangistak, frankistak, erreketek eta monarkikoak zeuden; hau da, nazionalista eta errepublikazaleen — herriko agintea zutenak horiek— aurkako guztiak. Hasieratik 90 bazkide ziren, eta inaugurazio egunean osatu zuten elkartearen lehen batzordea bederatzi ordezkariarekin.

San Martin auzoko Antonione Azpikoa etxean batzarrak egiteko gela bat eta taberna prestatu ondoren, 1933ko otsailaren 23an egin zituzten zirkuluaren inaugurazio-ekitaldiak. Eguna girotzeko ekitaldi andana antolatzeaz gain, omenaldia egin zioten Bidarte Handin jaiotako Migel Dorronsoro Zeberiori, *Patricio Ataunes* esaten ziotenari, abokatu karlista eta Diputatu Nagusia izan zelako. Horrela bada, omenaldi hura aitzakiatzat hartuta, zirkuluaren inaugurazio-egunean hainbat politikari karlista ospetsu etorri ziren Ataunera. Beste batzuen artean, hauek:

- Juan Olazabal jauna, Probintziako Batzordearen ordezkarietan.
- Jose Garmendia jauna, Probintziako Batzordeko idazkaria.
- Marin jauna, Bilboko karlista gazteen lehendakaria.
- Zuazola jauna, Arabako Probintziako Batzordeko bokala.
- Echanoce jauna, Diputatu ohia.
- Ortiz de Estrada, *El Pensamiento Alaves* egunkariako zuzendaria.
- Elizagarate, Arabako Batzordeko Idazkaritza Teknikoko burua

Elkarteko akta-liburuan jasota dagoenez, eguna girotzeko egitarau zabala antolatu zuten.

***Eguneko egitaraua:***

***Goizeko 7'etan, Meza Santua eta bertara hurbiltzeko aurrez deituak zeudenez, herriko karlista tradizio-zale guztiak agertu ziren.***

***Ondoren jaso zuten onbidezko jaunartzea. "Pan de los Fuertes" deitu ziotena.***

***9 etan, Azkoitiako Tradiziozalen Zirkuluko dantzari taldea iritsi zen eta txistulari eta tamborileroen atzetik, herriko karriketan zehar ibili ziren.***

*10,30 etan, Azkoitiako dantzari taldeak, euskal dantzaren erakustaldia eman zuen.*

*11 etan, Gipuzkoako Diputatu Nagusi izan zen Migel Dorronsoro Zeberio jaunaren aldeko Meza Nagusiara joateko, Zirkulu aurrean prestatu ziren bere jarraitzaile taldeak.*

*Meza ondorenean, berriro Zirkulura bildu ziren karlista taldeak bertako gelan, Jesusen Biotzaren irudia tronu jartze eta bedeinkapena ikusteko.*

*Irudia, Elkarteko areto handienean jarri zuten eta bitartean etxe barruak jendez bete ostean errepidean itxaro zuten hainbat karlistek "Kristo gure errege" abestia kantatuz.*

*Bedeinkapena, herriko erretore zen Jose Antonio Goikoetxeaandia erretore jaunak egin ondoren, 12,30 etan denak, Migel Dorronsoro Zeberio jauna jaio eta hil zen Bidarte aundira bideratu ziren.*

*Etxe atarian zeudela eta agintariak balkoi gainera igo ondoren, etxearen aurreko horman ezarrita zegoen oroitarrria estaltzen zuen ohiala kendu zutenean, txaloka ekin zioten.*

*Segidan, Antonio Pagoaga eta Victor Pradera jaunek, egunari zegozkion aipamenak luzatuz euren hitzaldiak eskeini zituzten.*

*1,30etan, otordua egin zen Gabilleneko baratza eta zelaian. 130 lagun bildu ziren bertara, mahai buruan agintari, diputatu ohi eta mitinean parte hartu zuten hizlariak zirelarik.*

*Arratsaldeko 4,30 etan, Mitin edo batzar nagusiari ekin zioten, Antonio Pagoaga, Jauregi jauna, Marin jauna eta azkenean berriro Victor Pradera jauna mintzatu zen bertan.*

*Hizlari denak, egunak eta ospatu ziren ekintzak merezi-tako neurrian mintzatu ziren.*

*Eguneko ospaketa goraiatzeko, mitinen bukaeran, Tolosako "La Margarita" izeneko Zirkuluko Musika Bandak borobildu zuen eguna bere saioarekin.*

*Bazkari osoaren balioak, 851,50 pezeta suposatu zuen.*

Elkartearen sortzaile gehienak familia onetakoak ziren. Hau da, etxe-jabeak, dirudunak, erlijiosoak... Asko etxe bat baino gehiagoren jabeak ziren, eta, ondorioz, maizterrak izaten zituzten. Maizter haien egoera ez zen erraza izaten sarri, nagusien menpe egoten zirenez beldurrez bizi zirelako. Gainera, gehienetan ikasketaz ere maila handiagoa izaten zuten, eta, ondorioz, maizterrek maiz jabeen bitartekaritza behar izaten zuten hainbat gestio egiteko. Jauntxoekiko menpekotasun osoa zuten, beraz. Hori hauteskunde garaian ere nabaria zen. Maizterrek ez zuten erabateko boto askatasunik; etxea eta lurrak gorde nahi bazituzten, beharrezkoa izaten zuten botoa nagusiaren alderdi politikoari ematea.

Zirkuluaren eta bertako tabernaren ardura hasieratik 1945era arte Franzisko Izagirre Peñak eta Agustina Otero Zeberioak izan zuten. Horiek, aldi berean, Erremedioko bainuetxearen nagusiak ziren. 1945ean senarra hil zenean, zirkuluaren ardura auzoko irakasleak hartu zuen, Martin Barandiaran Larrazak. Ordurako irakasle lanak utziak zituen arren, udalaren jabegoko etxe batean bizi zen, Kamion (Arrondon), eta, emaztearen laguntzarekin, bertara lekualdatu zuten karlisten biltokia. Etxearen atarian kartel bat jarri zuten, *Círculo tradicionalista y de las JONS* jartzzen zuena, eta Espainiako bandera eta Falangearena zintzilikatu zituzten.

Barandiaran jauna oso eskuindarra zen, lan handia egin zuen irakasle zenean bere pentsaera auzoan ezartzen. Gainera, euskara gorroto zuenez, dena gaztelaniaz egiten zuen, nahiz eta ikasleek ez ulertu. Haren jarrera zela eta, herrian ez zen oso maitea, eta etxean muntatu zuten tabernara bazkide gutxi batzuek aparte ez zen beste inor joaten.

Senar-emazteak adinean aurrera zihoazenez, Kamio etxeko lokala itxi, eta Francoren aldeko edo falangista bihurtutako karlistek berria ireki zuten Txomiñonen. Saiakera harekin ere, ez zuen indar handirik hartu, eta, denbora gutxiren buruan, betirako itxi zuten.

# 1936ko gerra Ataunen

---

Nafarroako erreketeeek Gipuzkoarako bidea hartu eta bertara sartu aurretik, Jose Antonio Agirre lehendakari jaunaren idazkari Joseba Rezola Arratibel Ordiziarraren aginduz, Aiako hainbat gaztek Kaxetako zubia bota zuten lehergailu bat ipinita. Haien helburua zen nafar erreketeei Gipuzkoara sartzeko zailtasunak jartzea. Horrez gain, Lizarrustiko errepidean —gaur egun Parketxea dagoen inguruan— pago batzuk bota, eta errepidean gurutzatuta ipini zituzten.

Herri txiki honetan udal-ordezkariek nahiz zirkuluko karlistek dena kontrolatuta zutenez, gertatuaren berri izan orduko jakinaren gainean jarri zuten Beasainen zegoen espainiar komandante militarra. Gauzak horrela, zigortu egin zituzten ekintzan parte hartu zuten gazteak. Bati, esaterako, astean behin Beasaingo komandantzian agertzeko betebeharrak ezarri zioten, eta, CAF lantegia militarizatu zutenean, bertara lanera joatera behartu zuten, gerrarako armamentu eta tresneria prestatzera. Beste batek Frantziara ihes egin behar izan zuen, eta, gerra bukatu eta urte batzuetara ere, han jarraitzen zuen, bere hiru seme-alabak amarekin Lazkaon bizi zirela.

Gerra 1936ko uztailaren 18an hasi zen, eta astebeteren buruan Santiago egunez sartu ziren Ataunera 300 bat nafar erreketee, falangista eta militarrez osatutako tropak.

Etxarri Aranatzen trena utzi ondoren, Jose Melcampo jaunaren aginduetara, errepidean jarri zitzaizkien eragozpenak zirela eta, Lizarrustitik Marumendirantz Aralegi aldera jo behar izan zuten, eta handik Arratetara jaitsi. Bitarte hartan, San Martin auzoko herritar gehienak arratsaldeko bezperetan zeuden elizan.

Herria erdi hutsik aurkitu zuten bada. Ordurako, gizarte mailako jardunetan murgilduta ibilitako herritar nazionalistak, udal-ordezkarriak, epaileak, dantzariak, batzokiko kideak eta abar, mendiko borda eta kobazuloetan ezkutaturik baitzeuden, gertatu zitekeenaren beldur.

300 bat gizonez osatutako tropa herrira jaitsi zenean, Martin Dorron-soro Barandiaran alkateordea aginte-makilarekin atera zitzaien zentral-

etxe ingurura. Soldaduen agintari zetorrenak udal-ordezkaritari hitzeman zion euskal nazionalistek eragozpenik jartzen ez bazuten ez zela ezer gertatuko herrian eta inori ez zitzaiola kalterik egingo. Erresistentzia edo eragozpenik gabe zeharkatu zuten, bada, herria eta gaua igarotzeko asmoz Bidebieta inguruko Laskain zelaian geratu ziren.

Gerrarien buruontzat nahiz ofizialentzat hurrengo egunerako bazkaria Auzmendienea etxeko tabernan eskatu zuten. Taberna hori gaur egun Bitor jatetxean dago. Soldadu arruntentzat, berriz, 300 “txusko” edo opil kontzejupera eramateko agindu zioten Sastegiko Julian Erauskin Maiza okinari. Langintza hartan hasiberria zenez, hainbesteko eskaria jaso zuenean izugarrizko poza hartu omen zuen. Baina zoriak onetik bezainbeste du txarretik, eta Auzmendienekoei nahiz Julian Erauskin Maizari eguna aldrebestu zitzaien. Itxura denez, Santiago gau hartan, Beasaindik etorritako “gorriek” Bidebieta ondoko Laskain zelaian zegoen troparekin liskarren bat izan zuten, tiro eta guzti, eta erreketeren bat hil ote zuten susmoa ere zabaldu zen herrian. Hori zela eta, hurrengo egunean, bazkaltzeko astirik gabe erreketek Ataundik alde egin zuten. Okinak opilekin zer egin zuen ez dakigu, baina Tomasa Aramendi Etxeberriak kontatua da tabernariak prestatuta zituen oilaskoak auzotarren artean banatu zituela ondorengo egunetan.

Esan bezala, Nafarroa aldetik erreketek heldu zirelako berria jaso zenean, herritarrak urduri eta kezkatan jarri ziren, baina, azkenean, lapurretez gain, ez zen bestelako gertaera garrantzitsurik gertatu.

San Martin auzoan Batzokia itxi zuten, eta bertan zeuden altzari, irrati nahiz gainerakoak eraman egin zituzten saltzeko asmoarekin; aulki bakoitza, esaterako, bi pezetaren truke saldu zuten. Nekazarien sindikatua ere itxi eta bertan zegoen guztia lapurtu zuten; arduradunek egindako kalkuluen arabera, bertan lapurtu zituzten produktuen balioa 17.000 pezetakoa zen.

Herriko gizarte mugimenduetan murgilduta zeuden gizona gehienek badaezpada ere gau hura senideen baserrietan, mendiko txaboletan edo leizezuloetan ezkutatuta igaro zuten. Gau bat baino gehiago ezkutataturik pasatu zuenik ere egon zen, bereziki beraien jokabidea zela-eta herrian nabarmenduta zeudenak: komunistak, errepublikarrak... Ez

zen gutxiagorako, hauteskundeetan botoa ezkertiarrei eman zietenen eta batzokian ibiltzen zirenen etxeak miatu baitzituzten.

Udal-ordezkarri eskuindarrek agintea hartu orduko, erreketeeekin bat egin eta euren aginduetara jarri ziren herriko *Círculo Tradicionalista* elkarteko karlisten onarpenarekin.

1931. urtean, udala ordezkarri errepublikarrez osatu zen, eta haiek ziren Ataungo arduradun politikoak 1936an gerra hasi zenean. Hala ere, esan beharra dago 1933an, euskal eskubide historikoak berreskuratzen ari zirelako eskuindarrek kargutik kendu zituztela. Baina 1936ko otsail-martxo aldera berriro euren karguetara bueltatu ziren; ez luzerako. Urte bereko uztailearen 30ean frankistek errepublikarrak karguetatik kendu eta beren burua izendatu baitzuten udal-ordezkarri.

#### **1936ko hasieran agintean zeuden agintari errepublikarrak eta uztailean kargua hartu zuten frankistak.**

##### **Ataungo azken udalbatza Errepublikarra\*:**

Alkatea: Flabio Larrakoetxea Barandiaran (Zaindegi)

Zinegotziak: Martin Dorronsoro Barandiaran (Arresenea)  
Manuel Aierbe Otaegi (Mantxintxu)  
Inazio Aierdi Goikoetxea (Denda Berri)  
Nikolas Zurutuza Mujika (Arratinea)  
Jose Franzisko Munduate Imaz (Artzate)

##### **Frankistek aukeratutako lehen udalbatza:**

Alkatea: Jose Antonio Aiestaran Loinaz (Errota Berri)

Zinegotziak: Migel Zurutuza Arratibel (Ugalde)  
Jose Antonio Apalategi Garmendia (Arbelditxo)  
Fermin Arana Navarro (Txominonea)  
Jose Inazio Munduate Agirre (Arzate Handia)  
Jose Urdangarin Barandiaran (Aldasoro)  
Juan Urdangarin Aierbe (Dorronsoro)

Udal-ordezkarri frankistak sartu zirenean, ordura arteko funtzionamendua aldatu zuten, hala nola:

\* AUA, 509-03

- Altxatutako indar armatuentzat diru-bilketa antolatu zuten.
- Aurreko Gorteak baztertutako irudi erlijiosoak berriz ezarri zituzten.
- Bandera errepublikarra kendu eta espainiarra jarri zuten. Ikurrina, berriz, legez kanpokotzat jo.
- Espainiako aberriaren aurkako funtzionarioei isunak jarri zizkieten.
- Alkatea gobernadore zibilak aukeratuko zuen.

Udal-korporazio berriak bando bidez, honako agindua zabaldu zuen:

- Etxe guztietako eskopetak edo edozein motatako arma guztiak, hurrengo egunerako udaletxean entregatu behar dira.*
- 20 urtetik 30 urtera bitarteko mutil gazte guztiek udaletxera agertu behar dute, eta "voluntarios forzosos" izendatu ondoren, guardia zibilen gidaritzapean instrukzioa harrarazi zieten.*

1936ko uztailaren 26an, berriro ireki zuten egun batzuk lehenago suntsitutako Kaxetako zubia, eta, segidan, Nafarroako erreketek etorri ziren kamioietan *¡Viva España!* oihukatuz. Tartean zen Lezaungo erre-torea, gerran izan zituen jokabideengatik ezaguna.

Egun haietako batean, erreketek *¡Viva España!* oihuka San Gregorio auzoa igarotzen ari zirela Sutegi tabernaren atarian zegoen neska-tal-deko norbaitek ezezko keinua egin zuela eta, gelditu eta erreketek batzuk kamioetik jaitsi ziren neskato hura —Karmen Arrese Zufiaurre— hiltzeko mehatxu eginenez, Lizarragabengoko erretorea buru zutela.

Neskatoak ihes egin zuen, eta ez zuten aurkitu, baina apaizak Sute-giri sua emateko agindua eman zuen. Herriko karlista bat parean tokatu zen, eta erreketek konbentzitu zituen neska gazteak egindako keinua ume-jolas bat baino ez zela izan, ez zuela gaiztakeriaz egin. Gogo txarrez, baina ontzat hartu zuten herritarraren hitza, eta besterik gabe beren bidea jarraitu zuten. Hori bai, hurrengo egunean tratatuko zutela esan eta mehatxatuz. Esan eta egin. Irailaren 7an, Etxarri Aranatzeko alkate karlista, Marzelino Jauregi, beste erreketek batekin batera, neska gaztearen bila etorri zen.

Neska errepide erdira atera, eta guraizeekin ilea moztu zion Etxarriko alkateak, laguntzeko ekarri zuen erreketek pistolarekin neskatoa apuntatzen zuen bitartean. Hurrengo igandean gaztetxo bere buru zuriarekin elizara joan zenean, algara eta iseka ugari egin zizkioten San Gregorioko erretoreak eta beste hainbat auzotarrek.

## **1936ko Gerra ataundarren hitzetan:**

Nerea Elias Mujika eta Ainara Gorostizu Mujikak *Eta gerra etorri zen* liburuan 36ko gerrak Ataungo eguneroko bizimoduan izan zuen eragina ondo baino hobeto aztertu zutenaz, ez dugu berriro gai beraren inguruan lan egin nahi izan; hitz ezberdinetan gauza bera argitaratzeak ez duelako zentzurik. Hori dela eta, garai hartan bizi izan zirenak oraindik gure artean direnez, 36ko Gerra haien hitzetan ezagutu nahi izan dugu.

Ondorengo lerroetan dituzuen aitortzak, batetik, *Ahotsak.eus* webguneke arduradunei eginak dira honako hauen eskutik: Martin Aldasoro Begiristain, Tiburtzio Izagirre Arratibel, Felipe Zurutuza Munduate, Felix Eskisabel Zurutuza, Felisa Arza Urdangarin, Marisa Dorronsoro Dorronsoro, Migel Eskisabel Arin, Luisa Mujika Zurutuza, Iñaki Arratibel Zurutuza, Luisa Dorronsoro Aierbe, Maria Rosario Agirre, Rufina Urbis-tondo Urdangarin, Juliana Begiristain Auzmendi, Juan Zeberio Agirre, Isabel Arana Barandiaran. Eta, bestetik, guk ere 2018ko udaberrian beste bost ataundar elkarrizketatu ditugu haien bizipenak jaso nahian: Joxe Bikuña Agirre, Jexuxa Barandiaran Eskisabel, Josefa Aierbe Aldasoro, Adelita Apalategi Arratibel eta Sabino Auzmendi Arratibel.

Elkarrizketatuei egindako galderen bidez, Gerra Zibilaren eta hark herrian izan zituen ondorioen ikuspuntu zabal bat jasotzen ahalegindu gara.

- **Nola gogoratzen duzu Gerra Zibilaren hasiera?**
  - **Felix Eskisabel Zurutuza:** Santiago bezperako arratsaldean [uztailaren 24an] sartu ziren erreketek aurrenekoz Lizarrustin; nafarrak ziren. Lizarrustin sartu eta Erremediotik barrena, Aitzarte inguruan, Agerreko gainean agertu ziren.

Herrian zeuden 2-3 errepublikarrak eta beste horrenbeste komunistak ezkutatuta zeuden, eta erreketek haien bila ibili ziren.

- **Sabino Auzmendi Arratibel:** Gerra hasi zenean, 10 urte nituen, Santiago bezpera zen, igandea. Mezetan geunden, bezperetan, eta Graziñe Berrin bizi zen apai-zak pulpitutik esan zuen militar nafarrak Agerrerraino sartu zirela eta zer pasa zitekeen ez jakinean, baserrietan bizi ginenoiz mezetatik atera eta ahal genuen tokirik ezkutuenetik etxera joateko esan zigun. Gure inozentzia guztiarekin, etxera bidean, mendi-gain batera joan ginen, bista-bistan. Hurrengo egunean mezetara joan ginenean esan ziguten Bidebietan tiroak izan zirela, botikan Lazkaoko markesaren semea egon zela kapitaina zelako eta tiroketetan eritu bat ere izan zela.
- **Maria Rosario Agirre:** Gerra azkar pasatu zen Ataundik. Errepublikaren aldeko batzuk bolotan ari ziren, eta, nafarrak sartu zirenean, herriko bikarioa joan zitzaien abisua pasa eta alde egiteko esatera; bestela hilko zituzten. Haietako batek lehengusu karlista zuen, eta hark etxean ezkutatu zuen.
- **Rufina Urbistondo Urdangarin:** Gure aitak etxean irratia zuen, eta Ataunera iritsi aurretik bertan entzun zuen gerra zetorrela.
- **Isabel Arana Barandiaran:** Santiago eguerdian, bazkaltzeko prest geundela gurasoek tropak etorri aurretik bazkaldu nahi zuten, eta bazkaltzen bukatzearekin batera etorri ziren. Bi mutil kamioiz Lizarrustira eramanean, eta han fusilatu zituzten. San Kintinoren tropa gerra-garaian denbora askoan egon zen Ataunen; bitarte horretan, eskola egunik ere ez zen egon.
- **Jexuxa Barandiaran Eskisabel:** Zaldi-gainetan eta kaki kolorez jantzita, dotore etorri ziren tropak. Soldaduek ez zuten goserik ekarri, bokadiloak botaz sartu ziren herrian; hori bai,

ura eskatzen zuten. Ni belauniko erdi ezkutatuta egon nintzen, momentuan bertan hil behar banu bezala. Soldaduak sartu eta gero herriko giroa asko aldatu zen.

- **Josefa Aierbe Aldasoro:** Artzamendin egoten ziren soldaduak, jende gaiztoa ziren.
- **Joxe Bikuña Agirre:** Tropak herrira sartu eta hurrengo egunean-edo egin zuten lehen lana udal-korporazioa aldatzea izan zen; aurrez zeudenak kendu eta beraien bandokoak jarri. Gerra momentuan etxeetako leihoetan koltxoiak jarri zituzten, balak barrura ez sartzeko. Mendian ezkutatuta egon ziren nazionalistak.
- **Tiburtzio Izagirre Arratibel:** Nazionalak sartu zirenean, jendea Ergoienan txaboletan ezkutatuta egon zen. Don Martin San Martingo apaizaren bila etorri ziren, baina, bikarioa karlista zenez, alde egiteko esan zien, bera egingo zela Don Martinen kargu. Gerra hasi berritan herriko bi mutil atxilotuta eraman zituzten, eta gehiago ez zen haien berririk izan.
- **Adelita Apalategi Arratibel:** Tropak sartu zirenean, bidea mozteko Kaxetako zubia bota zuten. Ume jendea San Gregoriotik Kaxeta aldera joan zen botatako zubia ikustera.
- **Gerrara, soldadu, herriko mutil gazterik eraman al zuten? Zure etxeko norbait eraman edo joan al zen soldadu?**
  - **Sabino Auzmendi Arratibel:** Gerora hasi ziren kintoak, mutil gazteak, gerrara eramaten. Erreketeei agindu zieten gerrara boluntario joanez gero, bueltan nahi zuten lanpostua izango zutela, baina gero ez zen hala izan, ez zuten ezer izan.

- **Josefa Aierbe Aldasoro:** Anaia bat erreketek joan zen, eta etxean haren zain egotea ez zen erraza. Soldaduak sartu zirenetik herriko giroa asko aldatu zen; garai tristea izan zen.
- **Joxe Bikuña Agirre:** Gure etxetik aita eta osaba eraman zituzten. Aita ez zen Gerra Zibil zegoakion baina urtebete beranduago, ama alargunaren semea baitzen eta etxean laguntza eman beharra zuela suposatzen zen. Osaba eraman zutenean, 7-8 urte egin zituen gerran soldadu, eta gu, neska-mutiko koskorak, baserriko atea aurrean zain egoten ginen, *Estellesa* noiz etorriko zen.
- **Gerra-garaian zenuten janaz zer gogoratzen duzu? Goserik pasatu zenuten?**
  - **Joxe Bikuña Agirre:** Morokila jaten genuen. Hau da, arto-irina urarekin nahastuta ore bat egiten genuen, eta gero esnari botatzten genion. Horrez gain, uretan egositako antxoak eta baba handiak ere jaten genituen.
  - **Luisa Dorronsoro Aierbe:** Miseria zegoen, baina gose larririk ez genuen pasatu; kaleko jendeak okerrago pasa zuen. Guk etxean hiltzen genituen txerri eta ardiak; sagarrak eta gaztainak ere bagenituen...
  - **Juliana Begiristain Auzmendi:** Taloa jaten genuen egunero, nahi adina irin ehotzen genuen Aiako errotan. Goizero eta gauero jaten genuen taloa, eguerdi batzuetan ere bai. Ogia, berriz, 15 egunean behin egiten genuen. Goserik ez genuen pasa; txerriak ere hiltzen genituen, arrautzak ere izaten genituen...
  - **Jexuxa Barandiaran Eskisabel:** Jateko, normalean, etxean egindako babarrunak izaten genituen.
  - **Josefa Aierbe Aldasoro:** Beti potajea eta patata jaten genituen. Tarteka txerriak eta arrautzak ere jaten genituen, baina behi

edo txahal haragirik inoiz ez umetan. Gure etxetik Ordiziaraino joanda gaude ogia erostera, Ataunen ez zegoelako.


- **Joxe Bikuña Agirre:** Baserrian behiak (ondorioz, esnea) artoa eta beste zituzten. Horregatik, goserik ez zuten pasa, baina nahi zutenik ere ez zuten. Oiloek urtean pare bat hilabetean egiten zituzten arrautzak, eta, urte guztirako gordetzeko, lurrezko ontzi batean karetan gordetzen zituzten.  
Etxean ereiten zen gari, arto eta babarrun kantitate bat entregatu egin behar izaten zen. Berez ere gutxi sortzen zenez, kantitate hori entregatutakoan ia ezer gabe geratzen ginen.
- **Errazionamendu-garaiaren zein oroitzapen duzu?**
  - **Martin Aldasoro Begiristain:** Errazionamendu-garaian ez zegoen harategi berririk irekitzerik; norbaitek utzitakoa hartu behar zen haren martxarekin jarraitzeko.
  - **Felix Eskisabel Zurutuza:** Errazionamenduarekin txahal bat ematen zuten herri osoarentzat. Gero familia bakoitzak berari zegokion zatia jasotzera joan behar izaten zuen egun zehatz batean. Horrez gain, azukrea, olio, ogia eta beste ere errazionamenduan banatzen zituzten; pertsonako edo familiako zenbaterakoa zehaztuta.
  - **Felisa Arza Urdangarin:** Errazionamenduan ematen zuten ogia beltz-beltza izaten zen, ezin izaten zen jan; guk txakurrei botatzen genien. Gure baserrian jana sobera izaten zen. Ardiak genituen etxean, eta gazta egiten genuen; bat hasi eta txarra bazegoen, bota eta beste bat hasten genuen. Kanean okerrago pasa zuten.
  - **Josefa Aierbe Aldasoro:** Kartilla hartuta joan behar izaten zen errazionamenduaren bila; han jartzen zuen etxean zenbat ginen eta zenbat produktu zegozkigun.

- **Adelita Apalategi Arratibel:** Errazionamendu-kartillak jendeak etxean izan ohi zituen normalean, baina Aiako bizilagunenak Kaxetan bertan gordetzen zituzten.
- **Estraperloa edo kontrabandoa ezagutu zenuen? Ibiliala zara? Nor ibiltzen zen?**
  - **Martin Aldasoro Begiristain:** Jende asko ibili zen estraperloan, mendiz eta errepidez. Baserritarrek txahalak Urdiaina edo Iturmendira eramaten zituzten saltzera. Gaeuz egiten zituzten bidaiak, eta gau osoa behar izaten zuten. Izan ere, txahalak, nekatuta, 500 metro egin, eta lurrean etzaten ziren. Asto, zaldi nahiz mandoak ere eramaten zituzten, eta bueltan gurdia patataz beteta ekartzen zuten.
  - **Tiburtzio Izagirre Arratibel:** Kontrabandoa ezagutu? Bai, bai, aspalditik. Altsasura, Iturmendira, Urdiaina... Oinez joaten zen jendea, mendian zehar, Saltsemendiko mikelete-etxea saihestuz.
  - **Juliana Begiristain Auzmendi:** Jendeak ekartzen zituen bai Nafarroa aldetik irina, patatak, ardoa... Mugan ezin zen mikeleteei deklaratu gabe ezer pasa; horregatik, gaeuz aritzen ziren. Txekorrak hiltzera ere gauean Urdiaina eramaten zituzten, hemen ezin baitzen hil, eta, gainera, han hobeto ordaintzen zuten.
  - **Isabel Arana Barandiaran:** Bibiana izeneko emakume bat ibiltzen zen kontrabandean; hark dirua egin zuen Nafarroatik generoa ekarri eta gero hemen salduz.
  - **Jexuxa Barandiaran Eskisabel:** Hemendik Nafarroara joaten ziren estraperloan genero bila; animalientzako pentsuak, janaria... Denetik ekartzen zuten. Ekarrirako generoak etxerako eta gero herrian saltzeko, denerako izaten ziren. Gizonezkoak bakarrik ez, estraperloan ibilitako emakumeak ere izan ziren.

- **Nola aldatu zuen gerrak Ataungo gizartea?**
  - **Tiburtzio Izagirre Arratibel:** Eskolako maisua karlista zenez, egun batean San Martingo eskolako mutikoak txapel gorriak eta korrea jeak jantzi (karlisten sinboloa), eta herrian desfilatu zuten. Eliza paretik pasatzean, “*Viva Santiago*” esan behar zuten. Egun horretan, maisuak eta gainerako buruzagiek Miravalles aurrean bazkaldu zuten, eta, itxura denez, bost opil faltatu ziren. Umeez jango zituztelakoan, egun guztian ezer jan gabe eduki zituzten.
  - **Sabino Auzmendi Arratibel:** Batetik bestera ibiltzeko *salvo-conductoa* behar izaten zen, ibiltzeko baimena, alegia. Egun batean, txartelik gabe harrapatu ninduten guardia zibilek, eta ordubete baino gehiago eduki ninduten geldituta.
- **Debekuak ere izango ziren gerra-ondoko gizartean, ezta?**
  - **Felipe Munduate Zurutuza:** Bai, *agarratuan* dantza egitea esate baterako debekatuta zegoen; apaizek debekatzen zuten. Harrapatuz gero, kongregaziotik (luistarrak, Mariaren alabak...) bota egiten zuten. Herrian soltean bakarrik dantza egiten genuen, baina Arantzamendiko erromerietan *agarratuan*. San Gregorion frontoian egiten zen erromeria, eta apaizak berak jartzen zuen gramolarekin musika; leku askotatik etortzen zen jendea jaietako erromerietara. Tarteka, soinujolea ere izaten zen.
  - **Sabino Auzmendi Arratibel:** Soinujolea etortzen zenean, dantzan *agarratuan* ibiliz gero, neskak kongregaziotik botatzen zituzten, baina gizonei ez zitzaien kasurik egiten. Herrien artean ere baziren ezberdintasunak, Lazkaon *agarratuan* dantza egiten uzten zuten, eta Ataunen ez.
  - **Jexuxa Barandiaran Eskisabel:** Kalejira dantzatzea ez zegoen onartua, baina Ataunen egiten genituen.

- **Maria Dorronsoro Dorronsoro:** Euskara ere debekatuta zegoen. Amak etxean doktrina eta kredoa euskaraz erakusten zizkigun, baina gero eskolan dena gaztelaniaz egiten ziguten. Neskek ilunpetan ezin genuen bakarrik ibili, eta zintzo errespetatzen zen; ibiltzekotan *bihurriren* bat ibiliko zen.

Sabino Auzmendi Arratibelek, gerora gerra egun haietan ikusitakoak paperera eraman zituen. Ez hori bakarrik, egun haietan gertatutakoei bertsoak ere ipini zizkien.



## Gerran ibili ziren ataundarrak

**Oharra:** *eskertzen atalean esan bezala, lan honi hasiera Inazio Munduate Arruabarrenak eman zion. Artxiboan eta dokumentazioan lan ugari egin zuen, bereziki 1936ko Gerra Zibilaren inguruan. Hori dela eta, berak egindako lana bere horretan ekarri nahi izan dugu ondorengo lerroetara; guk idazkera zuzendu, eta, atal batzuk testuinguruan kokatze aldera, azalpenak gehitu besterik ez dugu egin.*

Lan honen bidez gerra pairatu zuten ataundar biktima guztiak gogora ekarri nahi izan ditugu. Herrian borrokaldirik izan ez bazen ere, Inazio Munduate Dorronsorok aurkitu zituen datuen arabera, herritar ugari ibili ziren borrokan, beraien borondatez edota derrigortuta, bando batean zein bestean. Haietako askok, gainera, ez zuten etxera bueltatzerik izan, borrokan ari zirela edota gerrako zaurien ondorioz hil baitziren. Bost multzotan banatu ditugu gerrarekin harreman zuzena izan zuten biktimak:

- 1- Hildako erreketek boluntarioak
- 2- Gerran ibilitako erreketek
- 3- Francok aginduta joan eta borrokan hil zirenak
- 4- Francoren aginduz joan zirenak gerrara
- 5- Gerrariak

Guztira hogeita hamasei ataundar hil ziren bando frankistaren frontean. Horietako batzuk beren borondatez joan ziren frontera, erreketek boluntario gisa, ideia karlistak defendatzera. Beste batzuk, ordea, Frankok behartuta. Azkenik, Euskal Gudarostean sartu eta errepublikaren alde borrokatu ziren soldaduak ere izan ziren Ataunen; horietako 28 borrokan zebiltzala hil ziren.

## Hildako erreketek-boluntarioak

Izen-abizenak	Noiz eta non jaio	Noiz eta non hil	Informazio osagarria
Aierbe Arza, Felipe Antonio	1913-06-15 Lauztiturrieta baserria	1938-04-10 Caceresko frontean	Arapiles 2 Batailoian zebilela, Caceresko frontean hil zen, eta haren gorpua Rozalejosko hilerrian lurperatu zuten.
Aierbe Zurutuza, Bernardo	1909-11-29 Lauztiturrieta baserria	1938-01-06 Teruel	<p>1936ko abenduaren 23an afiliatu zen Oriamendi Tertioko 4. konpainian, sarjento. Frontean zebilela, bala batek egindako zaurien ondorioz hil zen.</p> <p>Karlisten aldezkarian hauxe ageri da:</p> <p><b>Bernardo Aierbe Zurutuza, afférez muerto gloriosamente en el frente luchando por la Religión y España, ha hecho el sacrificio de su vida muriendo gloriosamente en el frente, habiendo sido elegido por Dios para ir a formar la guardia eterna.</b></p> <p><b>Su cadáver ha sido traído a esta villa y depositado en el Círculo Tradicionalista, verificándose el día 10 su conducción, con asistencia de las autoridades locales, el teniente de alcalde D. Francisco Dorronsoro Barandiaran, el delegado local de la F.E.T. y de las J.O.N.S., D. Pedro Zurutuza Elizalde, pelayos y margaritas del Círculo Tradicionalista, milicias auxiliares de Beasain y tomaron parte también las autoridades de aquella villa y el pueblo en masa.</b></p> <p><b>Los funerales por el alma del finado tuvieron lugar en la parroquia el jueves día 13.</b></p> <p><b>A la familia del mártir hacemos presente nuestro dolor y le deseamos la resignación cristiana. Pedimos a nuestros amigos sus oraciones por el descanso de su alma.</b></p>

<b>Arratibel Bazterrika, Migel</b>	1919-09-12 Ergolene-ko Arbidizar Garakoa baserria	Ez zen gerran hil, 1976an batzik.	Ordizian zapatagintza ofizioa ikasten ari zela, bere gogoz sartu zen Oriamendi tertzioko 3. konpainian, eta gero, <i>Legazpi</i> 23 batailoian ere ibili zen erreketen. 1938ko otsailaren 25ean martxoaren 16ra arte erietxean egon zen, Avilesen (Asturias), eskuineko belauanean hartutako zartada baten zauriak sendatzen, eta, ondoren, hamabost eguneko baimena eman zioten suspertzeko. Berririo frontiera itzultita, uztailearen 10ean zauritu eta Avilesko ospitalera eraman zuten.
<b>Arratibel Etxeberria, Kandido</b>	1910-06-05Ergoleneko Sorkoin baserria	1938-07-12 Onda (Castellon)	1936ko azaroaren 21ean afiliatu zen Zumalakarregi Tertzioan txapelgorri, eta, bertan zebilela, Levanteko frontean aurkariek egindako zaurien ondorioz hil zen ospitalean.
<b>Auzmendi Barandiaran, Felix</b>	1912-12-24 Aia auzoko Larburu baserria	Teruelgo frontean hil zen	
<b>Auzmendi Urdangarin, Franzisko</b>	1921-05-21 Elormendietxe	2006-12-12 Valladoliden hil zen	Oriamendi Tertzioan afiliatu zen txapelgorri.
<b>Goikoetxea Mendizabal, Esteban</b>	1913-01-01 Aldekoetxea baserria	1938-01-22 Zaragoza	<i>Amerika</i> 23 erregimentuan zebilela zauritu, eta erietxean hil zen.
<b>Imaz Mintegiaga, Migel Antonio</b>	1915-06-11 Barandiaran Handia baserria	1937-06-22 Galdames	1936eko abenduaren 1ean afiliatu zen Zumalakarregi Tertzioan, txapelgorri. Bizkaiko San Pedro de Galdames herriko Garai auzoan, eskuineko sorbaldan sartutako bala batek zauritu zuen, eta ospitalera zeramatela hil zen. Haren gorpua jaioterria ekarri, eta bertan lurperatu zuten.
<b>Izagirre Anselma, Ezeziel</b>	1910 Tolosan jaio zen, baina Sariarte Garakoan bizi zen	1938-01-07 Zaragoza	1936ko urriaren 16an afiliatu zen Zumalakarregi Tertzioan, txapelgorri. Teruelgo frontean borrokan zebilela egin zizkioten zaurien ondorioz, Zaragozako erietxean hil zen. Gorpua herrira ekarri eta ohizko elizkizuna egin ondoren, bertako hilerrian lurperatu zuten.

<p><b>Jauregi Begiristain, Tomás</b></p>	<p>1915-03-07 Aiaiko Errota</p>	<p>1938-01-12 Teruel</p>	<p>Oriamendi Tertzioan afiliatu zen 1936ko urriaren 16an, kabo. Geran Bizkaian, Santanderren eta Asturiasen sarjentu ibili ondoren, Teruelen zebilela, balakada batek jota hil zen. Hona hemen gurasoen eskutitzez bidalitako dolumin mezua: <b>A Francisco Jauregui Apalategui y Juana Beguiristain Aldasoro</b> <b>El Jefe Provincial de la Milicia Nacional, al tener conocimiento de la heroica muerte de su hijo Tomás Jauregui Beguiristain, cabo de Reguets de la 4ª compañía del Tercio de Oriamendi, caído gloriosamente por Dios y por España el día 12 del actual en el frente de Teruel, les expresa a Vds. su más sentido pésame, esperando les sirva de consuelo haya muerto por tan nobles ideales.</b> <b>Dios save a España y guarde a Vds. muchos años.</b> <b>San Sebastián, 15 de enero de 1.938</b> <b>Año Triunfal</b> <b>El Jefe Provincial de la Milicia Nacional.</b></p>
<p><b>Munduete Etxeberria, Juan Migel</b></p>	<p>1910-12-03 Ertzilegi baserria</p>	<p>1937-07-24 Madrid</p>	<p>Batalion Sicilia 8 batailoian zebilela, Bruneteko frontean hil zen, Madrilén.</p>
<p><b>Munduete Maiza, Raimundo</b></p>	<p>1909-11-17 Aizate Handia baserria</p>	<p>1937-06-15 Bizkaia</p>	<p>Infanteriako Amerika 23 erregimentuan ibilitako erreketen hau Bizkaiko frontean hil zen zaurien ondorioz. Ondoren, Derioko hilerrian lurperatu zuten.</p>
<p><b>Urbiztondo Maiora, Juan</b></p>	<p>1912-07-25 Aritzandieta txiki baserria</p>	<p>1937-11-18 Donostia</p>	<p>Geran zauritu ondoren, Donostiako erietxe militarrean zegoela hil zen, gaixotatuta sun batek jota.</p>
<p><b>Urdangarin Alerbe, Agustín</b></p>	<p>1909-05-28 Dorronsoro baserria</p>	<p>1937-10-17 Asturiak</p>	<p>Nafarroko lehen brigadako soldadu hau Asturiasko frontean zebilela hil zen.</p>
<p><b>Urdangarin Imaz, Juan Jose</b></p>	<p>1914-07-02 Aldarreta Azpikoa</p>	<p>1938-06-23 Bribiesca, Burgos</p>	<p>Fronterako prestatzen ari zen granada bat lehortuta hil zenean.</p>

<p><b>Urdangarin Munduate, Jose Antonio</b></p>	<p>1911-01-12 Auzmendi baserria</p>	<p>1937-06-04 Gasteiz</p>	<p>Oriamendi Tertioko 4. konpainian afiliatu zen 1936-10-16an. Gerra Zibila bete-befean zela, falangista borroko batzuek hiru gazte nazionalista zekartzaten bahituta, Lizarrustin tirokatzeko asmoarekin, baina ez ziren ausartzen hiltzera. Atauna sartu zirenean, herri-zaintzan zegoen taldearekin topo egin zuten, eta, norbait prest ote zen galdetu zutenean, Jose Antonio Urdangarin gaztea prest agertu zen. Erroiondoko borda inguruan hirurak exekutatu ondoren, bide ertzeko erretenean utzi zituen haien gorpuak. Aurrez zaurituta egondakoa bazen ere, berriro gerrara joan, eta, Amorebietan zauritu ondoren, Gasteizko ospitalera eraman, eta bertan hil zen.</p>
<p><b>Urrestarazu Albisu, Joakin Antonio</b></p>	<p>1916-11-27 Asigarragako Barberone etxea</p>		<p>Gerran zebilela hil zen.</p>

**Gerran ibilirikako erreketek**

Izen-abizenak	Noiz eta non jaino	Informazio osagarria
Agirre Arratibel, Jose Antonio	1915-08-22 Aiaualde baserria	1936ko abenduaren 28an erreketean afiliatu zen, kabo. Pedro Ramirez alferrez jaunak Donostiako FET y de las JONS gudu taldearentzako eskutitz batean zibonez, gaixotuta Teruelgo Cella herriko ospitalean zegoen 1938-03-14an.
Agirre Etxabe, Mikel	1911-10-10 Astigarretxe baserria	
Aierdi Goikoetxea, Zelestino	1909-05-19 Elormendietxe	Sendagile ikasketak bukatuta, alferrez graduarekin soldadu zegoela, 1937ko martxoaren 6an Zumalakarregi Tertzioan afiliatu, eta sendagile lanetan aritu zen Gerra Zibilean.
Aiestaran Aierdi, Inazio Antonio	1909-12-20 Amuñain Garakoa baserria	Gerra bukatuta, militar izaten jarraitu zuen, eta erretiratu aurretik teniente izatera iritsi zen.
Aldasoro Maiza, Jose	1920-03-15 Iberondo baserria, Aia	1936-10-23an Oriamendi tertzioan afiliatu zen txapel gorri. Gerran zebilela, 1938ko urtarrilean, gaixotuta erietxe militar batean egon zen.
Arratibel Aierbe, Antonio	1915-05-07 Iberondo Barrena baserria	1938ko abuztuaren 19an, Oriamendi Tertzioko 4-ean afiliatu zen txapelgorri.
Arratibel Aierbe, Andres	1917-10-07 Iberondo Barrena	1936-12-23an Oriamendi Tertzioko 3. konpainian afiliatu zen, txapelgorri.
Arratibel Barandiaran, Felipe	1915-11-24 Barandiaran baserria	1936-11-9an Oriamendi Tertzioko 3. batailoian afiliatu zen, kabo. 1938ko otsailean, Teruelen zauritu eta Logroñoeko ospitalera eraman zuten.
Auzmendi Mendizabal, Fermin	1906-03-09 Amundarain baserria	1936ko abenduaren 23an Oriamendi Tertzioan afiliatu zen, txapelgorri. 1937-03-31n zaurituta Donostiako Mola erietxe militarera eraman zuten eskuineko hanka moztuta, eta, azaroan Zestoako ospitalera bidali bazuten ere, berriro Mola erietxera joan behar izan zuen.
Jose Etxeberria Zabala	1910-12-06 Abaltzisketa	Aian ezkonberria zela boluntario joan zen gerrara, eta Araban, Legutioko borrokaldi batean zaurituta, 1936ko abenduaren 8an hil zen. Aiako hilerrian lurperatu zuten.

<b>Galparsoro Aierbe, Jose Inazio</b>	1905-06-20 Mantxintxu baserria	Erreketek tradizionalista hau 1936-08-29an afiliatu zen Oriamendi Tertzioan, kabo. 1938ko otsailean, Bilboko enietean eskubiko sorbaldan zauria sendatzeko zegoela, martxoaren 24an, etxera bidali zuten hama-bi egunerako, apirilaren 5ean itzultzeko aginduarekin. 1949an fraile agustindar sartu zen Madrilen. Urte batzuetan Mallorkan egon ondoren, berriro Madrilera itzuli, eta bertan hil zen, 1962-06-04an.
<b>Imaz Mintegiaga, Franzisko</b>	1916-09-12 Barandiaran Handia	Oriamendi Tertzioan afiliatuta, gerran ibili zen erreketek.
<b>Imaz Zurutuza, Pedro Jose</b>	1900-04-23 Sariarte Garakoa	1936-10-16an Oriamendi Tertzioan afiliatu ondoren, patrulia buru eta sarjentu ibili zen gerran.
<b>Izuetza Aranburu, Jose</b>	1918-06-03 Lazkaon jai, baina Saniagoenean bizi zen.	1936-12-28an Oriamendi Tertzioan afiliatu zen, txapelgorri. 1938ko urtarrilaren 7an, Teruelgo frontean, ezkerreko besoan zauritu, eta Gasteizko seminarioan prestaturiko erietxera eraman zuten; ondoren, zortzi eguneko baimenarekin, ebera etorri zen suspertzera. 1938ko abuztuan, X Izpiak egiteko zain zegoen Donostiako Mola ospitalean.
<b>Jauregi Begiristain, Markos</b>	1918-10-04 Jauregi Berri edo Kaxeta etxea	1936-10-16an Oriamendi Tertzioan afiliatu zen, txapelgorri. 1938ko abenduan, ezkerreko izterra zaurituta, Kataluniako erietxera eraman zuten, eta, Urteberri egunez, Donostiako Mola erietxe militarera. Hamabost egun bertan igaro ondoren, Zumaiako ospitalean egon zen sendatu arte.
<b>Lasa Iburguren, Leon</b>	1897-10-12 Artzubi etxea	Ezkondua eta bost seme-alaben aita zela, Ordiziako Arrieta jaunaren eraginez, 1937ko apirilaren 9an Oriamendi Tertzioan afiliatu zen, kabo. 1926tik, Ordiziako <i>Círculo Tradicionalistako</i> bazkide zen; hilean, 1,75 pezetako kuota ordaintzen zuen.
<b>Munduete Etxeberria, Jose Franzisko</b>	1906-01-07 Ertzilegi baserria	1936-06-14an Oriamendi Tertzioan afiliatu zen, txapelgorri. Nafarroako 2. brigadan ibili zen frontean.
<b>Zeberio Aranburu, Jose</b>	1917-03-21 Atxurrena baserria	Teruelgo borrokaldietan ibili zen. Alderdi haietako negu gogorrak gainditu ezinean gorriak ikusia. Jasan ezinezko eguraldi hotz haietan, oinak izoztuta zituztela, bata bestearengana hurbilduta igarotzen omen zituzten gauak. Goibelduta eta adorenik gabe aurkitzen zen gau ilun haietako batean, honela esan omen zion bere lagun zen Kaxetako Marcos Jauregiri: <b>Hok dituk ibillarok! Ez altzak iruitzen askoz hobe gendukela hil da zeruan bageunde?</b>

<p><b>Urrestarazu Zurutuza, Jose</b></p>	<p>1918-04-13 Totasoro baserria</p>	<p>1936-04-16an Oriamendi Tertzioan afiliatu zen, txapelgorri.</p>
<p><b>Zurutuza Imaz, Jose</b></p>	<p>1916-03-19</p>	<p>Oriamendi Tertzioko 4. batailoian afiliatu zen, kabo. 1937-02-23an, Arrasateko fronteian (Miravalles auzoan), bala batek zauritu zuen, eta Bergarako erietxera eramán zuten eskuineko izier-hezurrea hautsita. Pixka bat indartu edo suspertzeko, irailaren 11n, hamabost egunerako etxera bidali zuten, baina berehala Donostiara joan zen, <i>Jefatura Principal de San Sebastian</i> unitatean elkartzera.</p>

### **Francok aginduta joan zirenak**

Beste herri guztietan bezala, 1936ko uztailearen 30ean, indar frankistekin osatutako Ataungo udalbatzak dei egin zien 18-26 urteko gazte guztiei, tropa faxistetan Francoren alde borrokatzeko.

Bakoitzaren iritzi eta pentsaera kontuan hartu gabe, denak bere alde borrokatzera behartu zituen diktadoreak. Ordurako, alde bateko eta besteko gudarosteak osatuta zeuden boluntarioekin, eta, agindu haren ondorioz, hainbat etxetan egoera kezkarriak sortu ziren: langileak gutxitu ziren.

Gerrak berez duen krudeltasunaz eta sufritutako izugarrikeriaz gain, herritar gazte haiek:

- Behartuta eraman zituzten, eta borrokan euren ideien aurka ibili behar izan zuten.
- Frontearen beste aldean, bere senide, lagun edo herritarren bat egon zitekeen beldurrak larritu, mindu eta nahigabetu egiten zituen.
- Gerra bukatu ostean, batzuk Frankoren aginduz, zazpi urtean ere egon behar izan zuten haren agindupean.

Deitutako batzuk *excedente* edo soberakin izendatuta, berehala etxeratu ziren, beste bakar batzuk ihes egin zuten errebeloian, baina gehienek, agindua betez, 6 edo 7 urtez borrokaldi askotan ibili behar izan zuten: Asturias, Santander, Burgos, Teruel, Madril, Toledo ...

Hona hemen, Frankoren aginduz gerraritzara behartuta joandakoetatik aurkitu ditugun hildakoak:

Izen-abizenak	Noiz eta non jaino	Informazio osagarria
Apalategi Balerdi, Jose Antonio	1916-04-07 Sariarte azpikoa	4. Brigada, Division 35, 4. Estafetako soldadua. Madrilo frontean hil zuten, 1938ko azaroaren 3an.
Arin Dorronsoro, Inazio	1912-01-02 Telleri/Azpikoa	Brigadas Navarrasko partaide zela, Jose Solchaga Zala jeneralaren agindupean Asturiasera sartzeko borrokaldi gogor bat eduki zuten 1937ko irailaren 5etik 12 arte, Mazuko izeneko mendiri hegalean, Santanderren. Bertan zauritu eta sendatzera Llanesera (Asturias) eraman zuten; 1938ko irailaren 14an hil zen.
Arruabarrena Imaz, Jose Martin	1914-08-01 Ajarresta	Baiten 24 Batailoian sarjento zebilela egindako zaurien ondorioz, Legutian hil zen (Araba), 1938ko abenduaren 27an.
Arza Begiristain, Juan Inazio	1913-11-13 Sorozabal	Segoviako frontean zebilela zauritu, eta 1937ko ekainaren 10ean hil zen hango erietxean.
Auzmendi Arratibel, Antonio	1918-08-28 Urdangarin Txiki	Santanderren izandako borrokaldi batean hil zuten.
Auzmendi Etxeberria, Juan Felipe	1911-08-16 Urdangarin Handia	Alhucemas 5. Kompainian zebilela zauritu ondoren, Griñongo erietxera eraman zuten (Madril), eta hantxe hil zen, 1937ko otsailaren 6an.
Auzmendi Imaz, Lukas	1903-12-18 Erroondo Berria	Behartuta eraman zuten gerrara, eta bertan hil zuten.
Azurmendi Bazterrika, Jose		Bilboko borrokaldian hil zuten, 1937ko abuztuaren 5ean.

<p><b>Barandiaran Etxeberria, Martxial</b></p>	<p>1918-06-30 Salette baserria, Arondo</p>	<p>Gerra piztu zenerako, Beasaingo CAF lantegian ari zenez, komandantzia militarren menpean, gerrarako armamentu ugari ekoizten aritu zen (kalkulatuzen da beste hainbat materialen artean, 260.000 granada eta 70.000 hegazkin bomba prestatu zituztela lantegi hartan).</p> <p>Beste gazte gehiago bezala, behartuta eraman zuten gerrara Francoren alde borrokatzera. Beste batzuen artean honako oroitzapen hauek kontatzen zituen:</p> <p>1938ko ekainetik azarora arte, <i>Teruelgo Terra Alta</i> izeneko lurraldeetan gertatu ziren <i>Gerra Zibileko borrokaldi garrantzitsuenak</i>.</p> <p>700 metro inguruko altuera duen mendikate hura garrantzitsua zen bertatik igarotzen zelako, <i>Cavalls</i> eta <i>Pandols</i> mendikate artean, <i>Alcañiz</i> eta <i>Teruel</i> arteko ibilbidea.</p> <p>Hiru mendi koskor zeuden: <i>Cavalls</i>, <i>Pandols</i> eta <i>Torner</i>. <i>Erdiko mendira sarrarazi gintuzten, eta nork irauin han!, bi aldeetatik eraso eta tiroak gemituela.</i></p> <p>Gurekin batera, mallorkar asko geneuzkan gure batailoian, eta haiak mukizapi zurak atera eta gornietara errenditu ziren. Beste batzuek, berriz, atzeraka jo genuen, beste asko eta asko hil egin zituzten, eta beste batzuk preso hartu zituzten.</p> <p>Beste batzuekin batera, <i>nik alzera egin nuen, eta han, ze kristoi!, batailoia erarrastorik ez. Lau egun egon ginen bertan, eta halako batean, batailoia herrian zegoela jakin genuen.</i></p> <p><i>Ordurako, lehen komandantea eta beste batzuk Sierra Cavals hartan geratu ziren.</i></p> <p><i>Komandante berri bat etorri zitzaigun, 'extremeñoa', legionarioa, gainera, tipo onal. Hark formatu gintuen, eta 30 lagun bakarrik [batailoia 800 / 1000 lagunekoak izaten dira normalean].</i></p> <p><i>Atzeratu ginelako eta beldurra sartzeko, herriko kanposantura eraman gintuen komandante berri hark; aurretik galiziar bat eta atzetik beste 29ak.</i></p> <p><i>"Para el escarmiento de los demás", hura fusilatu behar genuela agindu zigun. "Nunca había que dar la espalda al enemigo, sino siempre frente, había que ir adelante, que la justicia militar hacia eso".</i></p> <p>Beste edozeinek adina erru izango zuen ba galiziar hark ere, baina "militari" gizonak zer balio duen...</p>
<p><b>Barandiaran Lasa, Jose Antonio</b></p>	<p>1917 Iturriza etxea, San Gregorio</p>	<p>Apendizitis baten ondorioz, Bartzelonako erietxean hil zen, 1939ko otsailaren 25ean.</p>
<p><b>Begiristain Aranzasti, Jose Antonio</b></p>	<p>1908-04-23 Urkullaga, Aia</p>	<p>1938-02-22an hil zen.</p>

<p><b>Dorronsoro Zeberio,</b> <b>Juan</b></p>	<p>1911-12-31 Txatanene, Asti- garraga</p>	<p>Gerra hasi zenean, albaitariza-ikasketak bukatuta, herrian ari zen lanean. Honela kontatzen zuen bere oroitzapenak eta igarotako gorabeherak: Albaitariza-ikasketak 1934an bukatu ondoren, Flabio Larraakoetxea Barandiaran jauna alkate zegoela, albaitarizarako izendatu ninduten, herritarra eta euskalduna nintzela baloratuta. Gerra Zibila etorri zenean, herriko beste gazte guztiak bezala (zazpi kintada hartu zituzten), soldaduskara joan behar izan nuen, behartuta Francoren alde borrokatzera. Hiru urte igaro ondoren, elxera itzuli eta aste batzuetara, ikustaldi batekik etxerantz nenitorrela, nahiz eta nik ez jakin horrelako kargunik zeukanik, topo egin nuen gure herriko <b>FET y de las JONS</b> erakundeko falangisten buru izendatu berria zen herritar batekin. Elkar agurtzean deseroso zegoela adierazi nahian, hauxe esan zidan: "Juan, etzak gaizki hartu, baina gobernadorearen agindu zorrotza jaso berriak gaituk, eta herriko beste gehiagoren aitean hi ere Responsabilidades Politicaseko listan sartu haugu, hi ere nazionalista artekoa hintzen eta. Ustekabeko berri hark hainbateko amoru eta haserrea sortu zidan, berehala urundu nintzen esanez: "Saltsa hortan banauzue, ongi egin dizuela". Jokabide hark adierazi zidan nolako morala zeukaten haiek. Gerran hiru urtez goriak pasa ondoren, gaztetatik izan nituen ideietatik, Andaluzia aldera desterratu nahi ninduen. Jainkoari eta abokatuak egin zuen defentsa onari esker, Laskaris Conmeno greziar epaile jaunak erabaki zuen nere kontrako auzia: Falangeari isuna ordaintzea. Arrazoit batengatik eta bestegatik pasatu nituen nahigabeez gain, abokatu gastu eta isuna ordaintzen nire lehen lan-urteko irabaziaz joan ziren. Gerora herriko "jaunxoen" aldetik sumatzen nuen jarrera gaiztoa ikusita, Ataunen jarraitzeko denbora neurtua neukala atzemanda negoen, eta Lazkaoko hutsunea betetzeko eskaini nintzen. Beharrezko ziren agiriak biltzen hasita, "Certificado de Adhesión al Movimiento" beharrezko nuen, eta Ataungo "Jefatura Local de la Falange" erakundeak ukatu egin zidan. Kazikada harengatik arriskuan jarri zitzaizdan nere etorkizuna, eta, bailarako zenbait buruzagiri jokabidea azaltzean, denak "sorbaldak" altza zizkidaten. Agerian zegoen bada eraso madarikatu bat zela hura. Asteazken batean Ordiziako azokan, soldaduskan elkarrekin ibilitako lagun batzuekin egin nuen topo. Falangeko goi-karguekin hartu-eman handia zeukatela eta, elkarrekin ibilitako aitez z jaunarengana joateko esanez berotu ninduten. Horrelaxe, harengana joan, eta aurkeztu ondoren agertu nion nere egoera. Segidan eskaini zidan bere laguntza, eta Donostiako buruzagiarengana joan ginen biok. Berehala agertu zen ofiziala eskuetan zertifikatuarekin, beste zeribait behar ote nuen galdetuz. Nire esker ona agertu ondoren, agurtzekoan hauxe esan zidan: "Como no pongan orden entre estos carcas, nos amargan la Victoria". Azkenean, Lazkaora joateko aukera izan nuen.</p>
---	--	--

<b>Etxeberria Aranburu, Bizente</b>	1917-01-22 Ustatxo Garakoa	Bizkaiko borrokaldietan zebilela hil zen 1937ko uztailaren 13an. Haren gorpua jaioterrira ekarri ondoren hilerrian lurperatu zuten.
<b>Imaz Goena, Domingo</b>	1915-06-27 Amandarain baxerria	Teruelgo frontean gerran ibilitakoa.
<b>Imaz Oiarbide, Juan</b>	1918-05-05 Igarzarate, San Gregorio	Beste gehiago bezala behartuta eraman zuten gerrara, eta hilik suertatu zen.
<b>Munduete Begiristain, Jose Felipe</b>	1912-11-28 Mortagaztelu Berri, San Gregorio	Teruelgo borrokaldietan zebilela, Zinka ibaiko urtegi bat lehertu eta ur-korronteak eraman zuen 1937an.
<b>Munduete Imaz, Franzisko</b>	1911-02-25 Ainberri	Zapatagile ofizioa ikasi berri, bere kontura lanean hasteko asmoa zuela, behartuta eraman zuten. Teruelgo borrokaldietan hil zen, 1938an.
<b>Munduete Imaz, Julian</b>	1913-09-14 Ainberri	Hona hemen Franco behartuta eraman eta borrokan ibilitako soldadu honen oroitzapenak: "Lehenengo egunetan, konpainiako kapitainak nahiko arerra jatorraren hartu gintuzten; janaria ere ongi ematen ziguten, baina erregimentuetan banatutakoan gogortu egin ziren gure aginte edo mandoak, urritu baita ere ematen ziguten janaria; gosea eruz pasa behar izan genuen.  Herri askotako euskaldunak suertatu baginen ere, elkar ezagutzen ez genuenez, susmo eta beldurrez, ez genuen bata besteareriko konfiantza handirik.  Diziplina gogorra ezartzen ziguten militar haiek, eta, konturatzen baziren agindutakoa ez zenuela betetzen, zeure bizia arriskuan jartzen zenuen, ez baitzuten kezka edo eskrupulurik edozein hil edo garbitzeko.  Teruel aldean, negu hotz eta gogor hura zero azpitik 15-18 gradura igaro behar izan genuen. Eguna zabaldu orduko hasten zen mugimendua, kamioien eta armamentuaren zaratarekin.  Horrelakoa zen egunero jasotzen zen mezua, hornitu edo ekipaturik etsaiaren bila aurrera joan behar genuen, eta aherria hil, zure aurka zebilen anaia batekin aurkitu zintezkeela pentsatu gabe. Askotan bidean topatzen zenituen zure kideak, lurra hilda, eta, hala ere, zuk aurrera jo behar! Egoera hartan ez zen harrizketa, bakozak bere heriotzak ere askotan pentsatzea.

<b>Munduete Usabiaga, Jose Joakin</b>	1918-05-25 Ustatxo Garakoa	Tenuego borrokaldietan zebilela hil zen 1938an.
<b>Urdangarin Imaz, Juan Jose</b>	1914-07-02 Aldarreta Azpikoa	Granada bat eskuetan lehortuta hil zen Bribieskan (Burgos), 1938ko ekainaren 23an.

### **Gerrara Francoren aginduz joan zirenak**

Orain arte lerroratu ditugun horiez gain Francoren aldeko matxinatu kolpezaleek mobilizatu eta eraman-dako herritar gazteen kopurua ugariagoa den arren, guk honako hauek zaurta ditzakegu\*

<b>Izen-abizenak</b>	<b>Jaiotetxea</b>	<b>Jaioturtea</b>
Agirre Arratibel, Jose	Arbilleta	1920-11-1
Agirre Maiza, Manuel	Aizkorondo	1919-03-06
Aierbe Arza, Inazio	Lauztiturrieta	1911-10-24
Aierbe Dorronsoro, Manuel	Eskisabel	1914-03-16
Aierdi Etxeberria, Juan Fko.	Lauztiazpikoa	1912-10-26
Aizpurua Etxeberria, Zelestino	Kalakasenea	1920-01-19
Apalategi Tolosa, Felix (6)	Arbeldizar Azpikoa (Mitxelene)	1919-09-12
Apalategi Tolosa, Fermin (7)	Arbeldizar Azpikoa (Mitxelene)	1914-07-02
Arratibel Etxeberria, Felix	Urbiltarte (Ergoiena)	1908-11-18

\* AUA, 496-08

Arratibel Etxeberria, Joakin	Urbitate (Ergoiena)	1912-08-18
Arratibel Etxeberria, Jose Antonio	Urbitate (Ergoiena)	1919-03-21
Arrese Zufiaurre, Jose	Sutegi	1920-05-17
Arruabarrena Aierbe, Benito (1)	Anbunea	1913-09-15
Arruabarrena Aierbe, Teodosio (2)	Anbunea	1919-05-29
Arruabarrena Aierbe, Juan	Anbunea	1917-03-24
Auzmendi Arratibel, Antonio	Urdangarin Txikia	1918-08-28
Auzmendi Arratibel, Inazio	Urdangarin Txikia	1919-11-19
Barandiaran Eskisabel, Juan	Alezio	1920-06-15
Barandiaran Urrestarazu, Biktoriano	Bedama	1913-12-02
Bikuña Mundeate, Jose Maria	Okarizti	1910-01-26
Eskisabel Etxeberria, Juan	Espilla	1914-03-27
Eskisabel Etxeberria, Rogelio	Espilla	1909-09-15
Eснаоla Esnaola, Jose Maria	Suki Txikia	1917-03-29
Etxeberria Barandiaran, Fernando	Larditxiki	1913-05-30
Etxeberria Urbiztondo, Juan	Azaola zaharra	1912-04-27
Galparsoro Aierbe, Juan	Urezandi	1914-07-11
Goikoetxea Baztarrika, Juan (3)	Iturtxo	1917-03-07
Imaz Garmendia, Fermin	Aiztondo	1920-07-07
Imaz Mintegiaga, Martin (4)	Barandiaran Handia	1913-12-14
Imaz Oiarbide, Antonio (5)	Igarzarate Berria	1913-06-12
Izarrola Izagirre, Julian	Ordizia / Gomensoro	1915-11-11
Tolosa Begiristain, Jose	Aritzandieta Handia	1920-12-20

Urbizondo Auzmendi, Felipe	Arizandieta Txikia	1920-12-30
Zaldúa Zufiaurre, Ramon	Bidebieta	1918-08-31
Zaldúa Zufiaurre, Juan	Bidebieta	1920-08-14
Zurutuza Zubeldia, Serafin	Etxe Zuri (Ergoiena)	1906-10-12

- (1) Legazpiko Patrizio Etxeberria SA lantegia militarizatu zutenean, aurretik bertako forjan aritua zenez, berehala etxeratu zuten gerratik bertara lanera joateko.
- (2) Madril inguruko, Buitrago, Guadarrama, Lozoya herrietan ibili zen zazpi urte luzez.
- (3) Gerran zauritu zutelako, “*mutilado de guerra*” izendatu zuten.
- (4) *Mutilado de guerra* izendatu zuten, gerran bala batek egindako zauriengatik.
- (5) Teruelgo frontean ofizialen sukaldaria izan zen.
- (6) Borrokaldi batean hanka zauritu ondoren, moztu egin behar izan zioten, eta, beste gehiago bezala, “*mutilado de guerra*” izendatu zuten.
- (7) Valentzian zebilela, egoera hura eraman ezin zuenez, desertatu eta ihes egin ondoren, Frantziara pasatu, eta, Lucciane Tlus anderearekin ezkontuta, han bizi izan zen hil arte.

## Gudariak

Izen-abizenak	Noiz eta non jaio	Informazio osagarria
Agirre Barandiaran, Inazio	1912-07-30 Perutxonea, San Gregorio	Eigetako Intxorta mendian borrokan zebilela hil zen, 1937ko apirilaren 24an.
Agirre Munduate, Franzisko	1913-08-31 Aia Etxeberri	Saseta Batailoiko gerraria izan zen.
Agirre Munduate, Manuel	1919-03-27 Jauregi Berri edo Kaxeta	UGT-Largo Caballero Batailoi errepublikarrean lerrokatuta ibili zen.
Agirre Zeberio, Jose Antonio	1893-09-11 Erroiondo Berri, Aia	Ezkonduta zegoen Gerra Zibila piztu zenean. Haren ideiak zirela eta, Frantziara ihes egin zuen. Emaztea bere sendiarekin Lazkaon bizi izan zen urte askoan senarra etorri bitartean.
Aierbe Aierbe, Felipe Inazio	1888-08-01 Lauztiturrieta	Mikeletoa izanik, 1936ko Gerra Zibila piztu zenean. Orioko hondartza txikiaren parean zegoen kaxetatik, barrako itsas trafikoa zaintzen zuen, besteak beste. Mikelete gehienak bezala, errepublikaren alde egin zuen borroka, eta, Gipuzkoako kanpaina bukatu zenean, Bizkaian zebilela, faxisten eskuetan erori, eta 1938ko martxoaren 19an hil zen. Haren heriotzaren inguruan zalantzak agertzen dira. Batzuek diotenez, Bilboko espetxe batean hil zen, eta beste batzuek diote, berriz, gaitzak jota Bilboko ospitale batean hil zela. Dena den, frankistek hil zutela garbi dago, nahiz eta ez jakin zergatik hil zuten. Haren sendikoek diotenez, Jauriaritzak aginduta, Orioko kutzako dirua eraman zuenaren salaketa zuen bere gain.
Aierbe Zufiaurre, Juan	1914-06-23	Gasteizko Montaña Flandes 5. batailoian Tomas Meabe izeneko 1. Konpainian soldaduska egin ondoren, UGT-Pablo Iglesias Batailoirekin lerrokatu, eta frontean borrokan zebilela zauritu zuten; hala, Bilboko Gurutze Gorriaren erietxean zegoela hil zen, 1936ko urriaren 29an.

<p><b>Aierdi Beobide,</b> <b>Narziso</b></p>	<p>1888-10-29 Urkuola</p>	<p>Gazte zela, bere lehengusu Kandido Arozena jaunak arduradun izendatu zuen Orion zeukan adreilu-lantegian, eta ezkondu ondoren bertan bizi izan zen.</p> <p>Abertzalea zen Narziso. EAJko kidea izanik, errepublika garaian, baserriz baserri boto-bila ibilitakoa zen <i>Ferro</i> ezizeneko lagun batekin.</p> <p>Gerra hasi eta falangistak herrira sartzerako, Ferrok ihes egin zuen; Narziso, berriz, bere ustez errunik gabe-koa zenez, herrian geratu zen.</p> <p>Beste herri askotan bezala, herriko agintariak aldatu egin ziren, eta, herri-ordezkari berrien iritziz, Narzisoren ibilbide politikoa delituzkoa zenez, erreketeeek atxilotu egin zuten.</p> <p>Udaletxeko ziegan sartu zuten, Aginagako beste gazte batekin, eta, bertan egon zen artean, etxekoek jatekoa eraman behar izan zioten.</p> <p>Egun batean, gazteari aita etorri zitzaion bisitara. Ordurako, aitak bazekien semea hil egingo zutela, eta hantxe agurtu ziren azkenekoz. Haren ama edo izeba ofortuarekin joaten zitzaizkion bakoitzean, ziega zainzen zeuden erreketeeek honela esaten zieten: "<i>Total para lo que le va a servir...Le van a matar mañana</i>". Baina azkenean Narziso heriotzatik salbatu egin zen.</p> <p>Orion aginte militarra zeukan komandantea, Epifanio Echeverria, Inazio Zaldua Irizar lazkaolariaren etxean bizi zen, eta, adiskidetasun handia zutenez, Narzisoren etxekoek harengana jo zuten bere bizitzaren alde bitarteko egin zezan eskatuz.</p> <p>Inazio Zalduari esker lortu zuten bizirik ateratzea, baina zigorraz ez zen erabat libratu.</p> <p>Etxea errekiatuta eduki zuten ondorengo urte batzuetan, eta gero ere, etengabe mehatxatzen zutenez, beldu-rraz etxetik kanpo lo egiten zuela ibili zen bolada luze batean.</p>
--	-------------------------------	---

<p><b>Aierdi Goikoetxea, Markos</b></p>	<p>1911-11-15 Munduate, San Gregorio</p>	<p>Abertzalea eta herriko Batzokia ireki zenetik horko kidea zen. Gerra Zibila hasi zenean, gehienbat gipuzkoarrez osatutako Amaiur Batailoian izena emanda, Gernikako Euzko Gudarostearen kuartelean zen, Kandidate Saseta Etxeberria buruzagi zutela eta Jose Maria Lasarte Arana komandantearen agindupean. Igarotako une larri, ibilaldi triste eta estu haien berri ematearen aldekoa ez bazen ere, inoiz familian kontatu izan zituen gerran jasandako krudelkeriak.</p> <p>Kontatzen zuenez, beste batailoi bateko gerrari lagun batekin mezu bat eramatera zihoala tirokatu zuten, eta, eraso hartatik ihes egin nahian, pareta batera igo zen, eta, jaisterakoan erorita zauritu zenez, erietxe batera eraman behar izan zuten.</p> <p>Mendian edukitako borrokaldi batean atxilotutako soldadu faxista bat zaintzea agindu ziotela ere aipatzen zuten. Gaztea negarrez erreguka aurrean jarri zitzaionean, bihotz-bigundu eta ihes egiten utzi zion.</p> <p>Amaiur Batailoiak, beste batzuen artean Urduña eta Bilboko borrokaldietan hildako eta zauritu ugari izan zituen arren, aurrera jarraitu zuen, baina azkenean Kastro Urdialesen faxisten menpean erori zen.</p> <p>Atxilotuta, 2058/39 diligentzietan agertzen denez, Burgosen epaitu zuten, eta Langile Batailoira zigortu; ondoren, 1940ko otsailean, Miranda de Ebroko (Burgos) batailan, atxilotuen biltegi edo depositura eraman zuten. Gero, Arañones (Huesca) eta Canfranc-aldera bidali zuten 23. Langile Batailoira, eta azkenean, Bilboko Eskolapioetan moldatutako espetxean zeukatela, aske utzi zuten. Izan ere, beste hainbat gudarrien gisan, ez zegoen bere aurkako akusaziorik.</p> <p>Patrikan sosik gabe eta orientazio edo norabide faltan, Bilboko hirian noraezean zebilela, bere lehengusu Zelestino Aierdi Goikoetxearekin topo egin zuen. Familia abertzaleko semea bazen ere Zelestino, sendagile militarra zen, eta Francoren tropako kapitaina. Elkar ikusi orduko bereganatu zen, eta, lagun batzuekin zegoenez, hainek agurtu bitartean zegoen taberna batean itxaroteko agindu zion. Egonaldia luze egin bazitzaion ere, Zelestinok konpondu zizkion Markosi etxeratzeko zituen arazo guztiak.</p>
<p><b>Apalategi Dorronso-ro, Domingo</b></p>	<p>1911-12-04 Muñoeta, Ergolena</p>	<p>Jaioterria utzi eta Markinan (Bizkaian) bizi zela, gerrarizara joateko asmoz Saseta Batailoian lerroratu zen bere borondatez, eta Solubeko borrokaldian zauritu zuten.</p> <p>Loluko ospitalera eraman, eta, ahaleginak egin ondoren, 1937ko maiatzaren 8an hil zen. Ondoren, Derioko hilerrian lurperatu zuten.</p> <p>Gerrari bakoitzak izendatuta zeukatzen soldataren azken hamabost aldikoa jasotzeko zuenez, soldata jasotzeko zutenen zerrendan agertzen da, 165 pezela jasotzeko zituela.</p>

<b>Apaolaza Mujika, Antonio</b>	1914-08-19 Urkolan bizi arren, Mutiloan jaioa	1936ko uztailaren azken egunetako batean, bizikletan errepideetik etxera zihoazela, gauero zainza egiten zuten erreketetropakoekin topo egin, geldiarazi eta errepublikarren alde armak hartzearen salaketapean bahitu egin zuten. Iruñera eraman, eta Ezkabako San Cristobal espetxean sartu ondoren, salatariaren zama leporatuta, 1936ko irailaren 3an fusilatu zuten Iruñeko Gaztelu plazan.
<b>Apaolaza Mujika, Jose</b>	1917-04-26 Urkolan bizi arren, Mutiloan jaioa	Amaieur Batalioiko soldadua bera, Lemoako Bizkargin inguruko borrokaaldian erori, eta Loiuko ospitalera eraman zuten. Zaurien ondorioz, 1937ko maiatzaren 15ean hil zen, eta Derioko hilerrian lurperatu zuten.
<b>Aranburu Aranzasti, Raimundo Silbestre</b>	1891-03-15 Intxausti Berri	Errepide bat eraikitzen Asturiasera joan zen, eta, bertako batekin ezkontuta bizi zela, Gerra Zibila piztu zela jakin zuen. Beste askok bezala, badaezpada ere mendian ezkutatzea erabaki zuen. Handik egun batzuetara, herriko erretore jaunaren aholkuz exheratuz, eta hurrengo egunean tirokatuta hil zuten.
<b>Arratibel Barandiaran, Zoilo</b>	1908-06-26 Perutxonea	Ezkonberria zela, gerrara joan zen Carlos Marx Batalioian lerratuta, eta bertan hil zuten.
<b>Auzmendi Barandiaran, Jose Migel</b>	1916-06-28 Larburu, Aia	Saseta Batalioian lerratuta ibili zen.
<b>Auzmendi Bazterrika, Klaudio</b>	1895-08-24 Auzmendi-enea, Iztator	Gerraritzarako prestatuta, Iruñizko batalioian ibili zen.

<p><b>Barandiaran Begiristain, Matias</b></p>	<p>1902 Soroazabal, San Gregorio</p>	<p>Itsasondoko meategietan lanean zebilela, 1936ko gerra piztu zen, eta, senar-emazteak abertzaleak izanik — EAJren aldekoak eta biziki erlijiosoak —, gerraritzari heldu zion faxistak Goierrin sartu zirenean, haien zigor eta umiliazioetatik alde egin nahian.</p> <p>Ordurako Itsasondon bizi ziren, eta alkandora zuria, mila-arraizko prakak, txapel beltza eta euskal ikurraren margoz apainduriko gerrikoa jantzita prestatu zen gerrara joateko.</p> <p>Haren emazte eta haurrei besarkada bana eman ondoren, ehizerako ibiltzen zuen eskopeta hartuta, bere lagun Agustinen bila atera zen, aurpegia malkoz blai, Beasaingo frontera joateko.</p> <p>Etiketk joan zen egunetik, emazteak egunak negar batean igaro zituen, eta, gauero, lotara joan aurretik, etxeko denak sukaldean bilduta, errosario luze bat errezatzen zuten.</p> <p>Beasaindik gerra-soinua, hegazkinen burrunba eta danbateko handiak entzuten ziren.</p> <p>Larrialdi haiek pasa eta hilabete ingurura, Matias exera itzuli zen erabat nekata, eta lehengo irribarrenik gabe. Ez zen lehengo gizona; aurpegian oinazea sumatzen zitzaion.</p> <p>Etxeok horrela uste bazuten ere, ez zen gelditzeko asmoz etorri; Tolosa defendatzera zihoazen, eta, etxekoak arriskuan zeudela ikusita, babesleku baten beharra zutenez Itsasondoko goiko baserri batera (Letarrena) igotzea nahi zuten.</p> <p>Handik egun batzuetara, Letek ekarriako albisteek ziotenez, Agustín eta biak Elgeta aldean zebiltzan Bizkaia defendatzen, eta, miraria bazirudien ere, biak oso ongi aurkitzen ziren.</p> <p>1937an, Matiasen anaiak, Martinek, Donostiara eramán zituen ama (koinata) eta seme-alabak.</p> <p>Martin, harenbeste bi anai bezala (Jose Migel eta Fermín), karlista zen, erreketea, eta errepublikaren kontra matxinatutakoen aldekoa, baina, hala eta guztiz ere, nonbait odolaren indarrak aginduta, ondo portatu zen.</p> <p>Ordurako Martinek, Donostian, Easo plazako 7.ean, La Bella Easo izeneko taberna-pentsioa zeukan bigarren solairuan, eta koinata bere sendiarekin 5. solairura eramán zuten.</p> <p>Durangoko bombardaketaren hurrungo egunean, 1937ko apirilaren 1ean, Matias bertara joan zen Agustinekin, haren arreba lekaima ikustera. Barrenean zeudela, Kondor Legioak bombardaketari ekin zion, eta zulo batean sartu behar izan zuten babes bila.</p> <p>Hegazkinak desagertu zirenean eta aitxatu eta lekaima laguntzera joan zirenean, Agustinen arreba hilda aurkitu zuten hondakinen artean.</p> <p>Egun batzuz biak herritarrei laguntzen aritu ondoren, aitxatuekin edukitako gatazka baten ondorioz, mendiria inhes egin behar izan zuten. Egunez gordeta egon eta gauz ibiliz lortu zuten Agustinen sendikoek Deban zuten baserriira iristea. Eta, handik aurrera, errazagoa izan zen Donostira hurbiltzea.</p> <p>Etzeratuta bertan gelditzeko asmoa agertu zuenean, haren anai Martinek beregain artsiak handiak hartuz, etxe azpian zeukan sotoan gordetzeko aukera eskaini zion. Egunez bertan gordeta egoten bazen ere, gauz ostiatua garbitu eta hurrungo egunerako gauzak prestatzen aritzen zen. Denbora pasatu ahal, ezkutalekutik ateratzen hasi zen, eta, pixkanaka beldurra galduta, Herrerako bengoetxetarren olio findegian lanean hasi zen, eta bertan jarraitu zuen bizi-tza osoan. Haren anai Martinek, berriz, Amara utzi eta Bulebarrean ireki zuen hain ezaguna den Barandiaran-kafetegia.</p>
---	--	---

<b>Barandiaran Iturbe, Jose</b>	1920-11-13 Urresu	Itxarkundiaga batailoiko gerraria, Santoñan atxilotu eta Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparruan eduki zuten tuberkulosiak jo zuen arte. 1941eko ekainaren 5ean Legazpian bizi zen. Gero, bere anaia Jose Migelek, Legazpiko erretoze zenak, arazo handiak eduki zituen, frankisten esanetara makurtzen ez zelako.
<b>Barandiaran Zurutuza, Franzisko Maria</b>	1894-11-14 Urresua	García Hernandez batailoiko, Mixto Ingenieros 1ean izena eman ondoren frontiera sartu zen. Gorbea mendiko borrokaldean zauritu zuten, eta, horren ondorioz, 1937ko apirilaren 5ean hil zen.
<b>Beldarrain Barandiaran, Jose Migel</b>	1901-08-20 Etxeaundia, Arrondo	Gerrara joan, eta 1937ko apirilaren 30ean hil zuten.
<b>Eskisabel Munduate, Felix</b>	1900-02-25 Iruña	Felix Otxoa zuen bere jatorrizko izena, eta Iruñean jaioa zen, 1900eko otsailaren 25ean. Ataungo bikote batek hartu zuen semezat, eta euren izen-abizenak ezarri zizkieten. CAFeko lantegian moldagarritan lanean ari zela, Legazpiko Patrizio Etxeberria lantegira bidali zuten bere ofizioari zegozkion lan berezi batzuk egitera, eta han ezagutu zuen gero bere emazte izango zena. Bere pentsaerari zintzo, Ordiziako ANV alderdiak udaletxeko zinegotzi eta ordezkari izendatu zuen 1933-1936 urteen bitartean. Aldi berean, Gipuzkoako Aldundiko diputatu izan zen. Gerra Zibila piztu zenean, Jose Antonio Agirre lehendakariaren idazkariak, Ordiziako Joseba Rezola Arratibelek, nahiz alderdi ezberdinetakoak izan, bere bila zebiltzala adierazi zion, eta ihes egin behar zuela. Tentuzko aholku hura bere onerako izango zen ustez, eta, Ordiziako bere lagunei berria jakinarazi ondoren, emaztea eta Peñi semea hartu, eta ihes egitea erabaki zuen; hala, Santanderren isasontzi bat hartu, eta Frantziara pasatu zen sendiarekin. Erbesteartuta zegoela eskaini zizkieten lagunzei esker, Bordeleko kaian Pierre Lefort izeneko dike flotagarrian lana aurkitu zuen, eta herri hartan kokatu zen sendiarekin. 1939an, II. Mundu Gerra piztu zenean, alemanek bere fitxa eskuetan zutela jakinarazi zitoten, eta Ameriketara joatea gomendatu; beldurtuta, aholkua onartu zuen. Abiatu aurretik, egoera berriera moldatu behar zuten. Hendaiara aldatu ziren, eta, bertan bizi zirela, 1939an hemen jaio zen alaba Garbifne. Hasieran Margarita irletara joateko gonbita jaso bazuen ere, Joseba Rezola lagunak kable batean bidaltako albitsean, Mexikora joateko agindu zion. Denbora gutxirako izango zela uste zuen, egun batzuetako gorabehera, hemengoa berehala bukatuko zela-koan, Frankori egurra emango zieten itxaropenarekin. Hala, "oporraldi" bat igarotzera zihono antzera, hamabost urte luze igaro zituen han. Bitarte hartan, emaztea eta seme-alabak Hendaiara geratu ziren; gorriak ikusi zituzten batere laguntzarik gabe. Hamabost urte luze erbesteratuta igaro ondoren, azkenean itzuli zen Ordiziara, etxeratze behar zuten agiriak Ordiziako Mariano Galarzak eta Patxi Iturriozek Madrillgo Segurtasun Ministerioan lortu ondoren.

<p><b>Goikoetxea Urrestarazu, Franzisko</b></p>	<p>1906-07-07 Ermentari baserria, Arondo</p>	<p>Abertzale jatorra izanik, herriko ekinzetarako lankide porrokatua genuen, eta herriko Batzokiaren sortzaileetako bat izan zen.</p> <p>Ofizio zurgina, Beasaingo <i>Eskisabel y Cia</i> altzari lantegiko teilatua eraikitzen ari zela erori eta hil zen 1939an. 1931ko uztailaren 7an lehen aldiz ikusi zuen Ezkioko Ama Birijña, eta bertan sortu zitzaizkion estuasun eta eman zituen ikuskizunen ondorioz, ospe handikoa bihurtu zen.</p> <p>Gehienetan, herriko lagunekin joaten zen Ezkiora, eta, bere adimen edo ezaguera erdi galduan jartzen zenean, suspertzeko gela batera eramaten zuten.</p> <p>Urte bereko abuztuari, soldutako zuhaitz batez baliatuta, gurutze luze bat prestatu zuen, eta urriari, bere inguruan egurrezko oholza bat, Ama Birijña agertzen zen gunean.</p> <p>Berrogei minutuz ezaguertarik gabe egon ostean, lau mandatu eman zizkiola adierazi zuen.</p> <p>Esan zuenez, hauetako hirugarrena, Donostia inguruan bizi eta bere deitua J.B.A. hizkiak zituena rentzat goizeko hamarretan Ama Birijñari eskaitutako mesede batezela adierazteko zen.</p> <p>Aipatutako J.B.A. hori, Urrietako Udalean idazkari lanetan ari zen Juan Bautista Aierbe Irastorza jauna zen, eta Ezkioko erretore zen Juan Jose jaunaren anaia.</p> <p>Esandakoa zela eta, ospe, ezagupide eta lagun arte zabala lortu zuen, eta "Patxi Santu" deitzen zioten. Base-ri-atarira kanpotik etortitako jende multzoa inguratzen zitzaion, bere eskuei muxu bat emateko.</p> <p>Bolada hartan, batetik bestera ibiltzeko, Pilar Arrieta izeneko bilbotar elizkoi batek berebil bat jarri zion bere txoferrarekin.</p> <p>Benigno Oreja Eloseggi sendagile tradizionalistarekin ere hartu-emanak zituen, eta 1933ko azaroan Jesus Leizaolari, Marcelino Orejari eta Jose Antonio Agirre lehendakariari, Jainkozko mezuak eskaini zizkieten.</p> <p>Baina denak ez ziren gertatzen iragarri zituen bezala eta batzuk sinezkaitez agertzen zirenez, errepublikako agintariek, Santa Agedako zoro-elxera bidali zuten azterketa sakon batzuk egitera; dena den, segidan etxeratu zen. Irañetako (Nafarroa) Luis Iturrzun jaunak, bere lagun handia eta bera ere igarlea zenak, apiriletik iragarri zuen altxamendu militar baten arriskua, eta azkenean uztailaren 18an sortu zen Gerra Zibila.</p> <p>Lehen esan dugun bezala, abertzalea izanik, Patxi, beste lagun batzuekin batera, Arratetako harrobiko bolboategitik dinamita eta lehergailuak harrapatu zituzten.</p> <p>Gertaeren ondorioz eta hartu beharreko edo nahitaezko neurriak hartu gabe arduragabekiaz jokatu zutelakoan, harrobiko nagusietako bat, Benito Dorronsoro Arratibel, bahituta espetxeratu zuten. Zortzi egunen buruan, aske utzi zuten, epaileak erabakia hartu arte.</p> <p>Lapuritutako lehergailu zati batekin, Kaxetako zubia leherrazti eta lurperatu zuten, eta errepeidea itxi, eragozpen gehiago jarzteagatik Nafarroatik zetozen erreketeei.</p> <p>Gainontzekoa beste ekintza baterako gorde zuten, Ermentariakoak Musa zeritzon parajeko gaztainadian ezkutatuta.</p>
---	--	--

Udazkenean, Etxabeltzeko Jose Antonio Barandiaran Agirre —Patxiren osaba—, Ermentariko Josefa Goikoebea Urrestarazurekin Arrendoko Barberone etxean ezkondu ta zegoena, ohi bezala gaztainadi hartara garo eta orbel biltzera joan zen batean, gordeta zeuden lehergailuak aurkitu zituen.

Agintariei jakinarazi zitzaizen orduko, Guardia Zibila agertu ziren bertara, berria egiaztatzea, eta, segidan, bahituta eraman zuten Jose Antonio Barandiaran espetxera.

Iloba Patxi, Iarrituta, laguntza eske, itzal handia zeukaten adiskideengana jo zuen, eta, haien ahalmenari esker, hamar egun atxilotuta egon ondoren, aske utzi zuten Jose Antonio.

Bestalde, haren lagun mina, Ainberriko Hilario Munduate, Amalur Bataioian ibilia bera, atxilotuta zeukaten Bilbon. Horren anaia Julian, berriz, Francok behartuta Teruelgo borrokaldietan zebilela, gaixotu egin zen, eta sendatzea etxera etorri zen; hemen, berriz, euren ere ama gaixorik aurkitu zuen, eta gainditzeko itxaropenik gabe. Julianek, anaia Hilariok ama hil aurretik ikustea nahi zuenez, Patxirengana jo zuen hura espetxetik ateratzen laguntzeko, eta hura berehala onartu zuen ahalginduko zela.

Bilbora joan beharra zen, eta, hara bidaiatzeko, *salvoconducto* edo igaro-agiria eta berebil bat behar ziren. Julian arduratuko zen agiriakeskuratzen; horretarako, herriko agintariengana (Círculo Tradicionalistako burki-deetara) jo zuen eskaerarekin, eta, ustekabez, ezezkoa jaso zuen.

Ez zen ikokidu haiek ukatzearekin, eta Beasainen zegoen Roberto Moriones komandante militar jaunarengana joatea bururatu zitzaion; hari kontatu zion herrian nolako zailtasunak aurkitu zituen.

Hiltz bat bera ere esan gabe, eskaini zion *salvoconductoa*, eta beste zerbait gehiago behar zuen galdetu zion. Ezezkoa entzun zuenean, komandante jaunak eskua luzatu eta agurtu zuen Julian.

Bidaiatzeko agiria lortu ondoren, berebil edo auto bat behar zuten, eta, herrian banaka zirenez, herriko sendagile Jose Izaga Goikoetxeaundia jaunarengana jo zuen Julianek.

Bazirudien medikua prest zela laguntzeko, baina bat-batean jaitsi egin zen emaztea, eta gurpilak menostuta zituen aitzakiaekin ez zion senarrari utzi.

Handik egun batzuetara, berriro ere gai berarekin ekinean aritu ostean, baietzkoa eman zion sendagileak.

Bideratu ziren bada Bilborantz sendagile jauna Patxi Goikoetxea eta Julian, anai presoarengana, ama gaixoa hil aurretik ikus zezan etxean.

Zuzenean Hotel Carlton entzuteisura jo zuten, eta bertan zeudela, Patxi aurretik deituta zeukan andere dotore eta lirain bat agertu zen (gero jakin dugunez, Ezkion ezagutu eta Bilboko Iparragiri kaleko 23an bizi zen Maria Uribe anderea zen). Hirurok agurtu ondoren, Patxi berarekin gelditu zen, eta, bitartean, atarian itxaron beste bi lagunek.

Ez zuen lortu hil aurretik ama ikustea, baina, handik egun batzuetara, Patxiren adiskidearen ahalginak lortu tako berri pozgarriak etorri ziren herrira. Hilario askatu zutela.

<p><b>Imaz Etxeberria, Migel</b></p>	<p>1914-02-19 Urdarano, San Margin</p>	<p>Donostiako Caja de Reclutasen izena eman zuen 1935eko abuztuaren 1ean, eta Montaña Sicilia izeneko 1. Batailoira igorri zuten. 1936ko otsailaren 12an, Franco eman zuen agindua onartu, eta, baldintzak betetzen zituelako, etxeratzeko baimena jaso zuen. Gazte abertzalea zenez, Amaiur Batailoian lerroratu, eta, bertan ibili zen borrokan beste lagun batzuekin batera, Santofia faxisten eskuetan erori zen bitartean.</p>
<p><b>Larraoetxea Barandiaran, Franzisko</b></p>	<p>Carmen de Areco (Buenos Aires)</p>	<p>Buenos Airesen jaioetakoa bazen ere, ama Ataungoa zuen, eta, alargunduta Ameriketatik itzuli ondoren, San Martin auzoko Dorronsoro-enea etxean bizi izan zen arrebarekin eta gerra aurretik alkate izandako Flabio anaiarekin. Batzokiko kidea, Aralar Batailoian ibili zen borrokan.</p>
<p><b>Munduate Imaz, Hilario</b></p>	<p>1901-01-14 Ainberri, San Martin</p>	<p>Muinetaingo abertzale hau gaztetatik EAJko kidea zen, eta haren partaideza nabaria zen aberriari zegoen gertakari guztietan. Herrian abertzaletasuna pizteko, dinamizatzaile handienetakoa izan zen. Ataunen dantzari txiki eta antzerki taldeak osatzekoan ere, bera izan zen eragiletako bat. Nola ez, herriko Batzokia eraikitzeakoan partaide izateaz gain, batzordekide izendatu zuten, eta, elkarte haren inguruan mugimendu sortzaile bat eratu ondoren, antzerkiak, jaialdiak eta hitzaldiak prestatu ziren herrian. Eskolan asko jantzitakoa ez bazen ere, aberriarekiko eta euskararekiko gogoetak egiten iaioa zen. Gerratean, Amaiur Batailoiko gudarri Asturiaseraino iritsi zen, eta 1937ko abuztuaren 26an atxilotu zuten Santofian. Gaixotasun bat zela eta, askatu egin zuten, baina euskal gobernua Biliboko Carlton Hotelean zeukan egoizetan jardun behar izan zuen bere laguntza ematen. Bere ibilbidearen delituagatik, 12 urteko espetxe zigorra ezarri zioten.</p>

<p><b>Munduare Eskisabel, Perdo Santos eta Jose</b></p>	<p>1902-01-17 1906-11-01 Zubiaurre</p>	<p>Gerra piztu orduko, biak Loiola Batailoian sartu ziren, eta, kamiolariakin, batailoiko soldaduentzako janari eta edariak banatzen zituzten.</p> <p>1936ko uztailaren 18an, altxamendua zela eta, Loiola Batailoian sartu eta anaia Josearekin batera gerrara joan zen.</p> <p>Borroka batetik bestera ibili ondoren, Gernikako bonbardaketako egunean (1937-04-26), bi anaia herri-sarre- ran egon ziren errepede etzeko ur-erretan batean ezkatuta, hegazkinak desagertu artean.</p> <p>Beti gogoan izan zuten egun hartako jokabidea, eta min jasanezina hartzen zuten gertatutako dena ikusitakoel ondorenean frankistak maltzurkeria osoz emandako azalpen eta kontaera kontrajariak aipatze hutsarekin.</p> <p>Eraso hura pasa ondoren, aurrera jarraitu zuten Bilbo eta inguruko beste herri batzuk eskuratu nahian, baina jipoi ugari hartu ondoren, Balmasedatik barrera Santoñako hondartzara iritsi ziren. Santander eta Asturias aldera jarraitu ordez, Euskal Gobernuko agintariak italiarrek itundutako Santoñako hitzarmenak zekartzan aukerak ezagutu zituztenean (nazionalen, italiarren edo alemanen eskuetan jarri), anaia bakoitzak bere bidea hartu zuen.</p> <p>Jose, nazionalistara entregatu eta uste baino lehen eberatu zen. Pello, berriz, italiarregana elkartu zen, eta Zaragozako espetxean sartu zuten; bi urte eta erdi luzez bertan egon behar izan zuen.</p> <p>Ebxeok denbora luzez bere arrastorik gabe egon ondoren, arrea lekaiameak egindako ahalegin batzuei es- ker, Zaragozako espetxean zegoela jakin zuten.</p> <p>Espetxeko zuzendariarekin hitz eginda jakin zuten, salaketa berezirik ez zuenez gero, bahitzaileak aske uzte- ko prest zeudela, baina horretarako herriko agintarien onarpenaren agiri bat beharrezko zela.</p> <p>Asko luzatu gabe, sendikoak agiri-eske joan ziren Ataugo <i>Círculo Tradicionalista</i>koengana, horiek baitziren garaila eta herriko agintea zeukatenak.</p> <p>Euren artean eztabaidatu zuten, eta iritzi kontrajariak agertu ziren; hala, adostasun batera ez zirenez iritsi, ukatu egin zien agiri. Azkenean, <i>Círculo</i>an itzal handia zuten Bidarteko Daniel Imhaxusti Dorronsorori esker lor- tu zuten espetxean zegoenaren jorkaera garbia egiztatzea eta horri esker berehala espetxetik ateratzea.</p> <p>Itzuli zenean, lehen aritutako lantokian (Legazpiko Patricio Echeverría) lana ukatu ziotenean, gerratean elka- rekin ibilitako Otegi abizeneko lagun batek lana eskaini zion Donostiako Egiako teilertia batean, baina lanera joan behar zuten egunean itxi egin zen lantegia.</p> <p>Egoera hartan, bere anaia Marzelinok beste bi bazkidearekin Dornarenean zeukan arotzegian lana eskaini zio- nean, jaioterrira itzuli zen emaztearekin.</p>
---	--	--

		<p>Bitarte horretan guztian, emaztea zain izan zuen Legazpin, bakarririk. 1936ko irailaren 19an, goizeko hamarretan zehatzago izateko, Tejero eta Saleta kapitainaren aginduetara sartu ziren frankista altxatuak Legazpira, uniformatuta eta armaz beteta. Haren haridurarako, Espainiako, falangeen eta erreketen banderarekin, hiru ataundar agertu ziren taldearen aurretik.</p> <p>Errepidearen biertzetan, hor ziren Gurutza Berriko Jose Migel eta Joakin Antonio Urrestarazu Albisu anaiak, Txomifoneko Justo Mendibe Arbelar errepede erdian zutela.</p> <p>Ez zen erresistentziarik egon, eta segidan Zumarragarantz jarraitu zuten.</p> <p>Ordurako bere senarra gerrarizara joanda zuelarik eta jakin-minak bultzatuta, beste batzuen artean kaleratu zen Maria Aruabarrena, eta, herritar haiek ikusi zituenean taldearen aurretik bandera haiekin, berezko deladar bat atera zitzaion esanez, <i>"eta hauegatik joanda nere senarra gerrara"</i>.</p> <p>Hitz haiek alboan zegoen bakarren batek entzun eta jaso zituen nonbait, bai eta agintariengana ere iritsi. Handik egun batzuetara, Atauna etortzeko asmoa hartu, eta bidaiatzeko beharrezko zen <i>salvoconductoare</i>ren eske udaletxera joan zenean, ukatu egin zioten, <i>"no se le concede el salvoconducto por ser muy nacionalista"</i>.</p> <p>Eragozpenaren ondorioz, senarra gerratik etorri bitartean Legazpian egon behar izan zuen. Bertan lan egiten zuten bi anaia harekin gelditu ziren, eta, beste "apopilo" batzuek hartuta, honietatik lortzen zuen diru-laguntzari esker irauin behar izan zuen senarra elxeratu bitartean.</p>
<p><b>Urrestarazu, J. Antonio</b></p>		<p>Amaiur Batailoiko gerraria.</p>
<p><b>Zurutuza Dorronsoro, Tomás</b></p>	<p>1912-12-21 Txuloa, Aia</p>	<p>Ixarkundiaga Batailoian gerrariztan zebilela hil zen.</p>
<p><b>Zurutuza Zubeldia, Migel</b></p>	<p>1918-09-29 Etxe Zuri, San Gregorio</p>	<p>Gipuzkoako 1. konpainian mobilizatuta, Astigarraga eta Irun aldeko zutabeetan ibili zen, eta, ondoren, EAK-PCE alderdiko MAOC batailoian borrokan zebilela, preso hartu, eta Bilboko plaza militarrean prozesatu zuten.</p> <p>Askatasuna lortu zuenean, Ameriketara joan zen.</p>

## **Elizaren martiriak eta apaizak**

Eliztarrek ere jasan zituzten gerraren ondorioak. Elizako edo eskolako ondasunak konfiskatzeaz gainera, apaiz eta lekaiame batzuek errepublikar-taldeen jazarpena jasan behar izan zuten. Ataunen bertan horrelakorik jazo ez bazen ere, Euskal Herriko mugetatik kanpo bi herri-tar hil zituzten: Justa Maiza Goikoetxea eta Jose Manuel Arin Dorronsoro.

### ***Justa Maiza Goikoetxea.***

1897ko uztailaren 13an jaio zen Urresumendiko Iparragirre baserrian.

1920ko abenduaren 5ean Gasteizko karitateko lekaimetan sartu zen, eta 1922an, Valentziako miseriakordia-etxera bidali zuten bertan aginduko zizkioten lanez arduratzeko.

1936ko Gerra Zibilean, Fronte Popularra indartsu eta garaile atera zenean, erlijiozkoen aurka antolatutako erasotik babesteko, Miseriakordia-etxea utzi eta hiriko Cambios kaleko etxe batean jarri zen bizitzen, beste hamaika lekaimerekin.

1936ko azaroaren 17an bahitu, eta Gravador Esteve kaleko Comisaria de la FAI izenekora eraman zituzten, eta, banan-banan deklaratu ondoren, hilaren 19an jaso zuten epailearen erabakia.

Komisaria utzi eta Alascuas herriko emakumeentzako espetxean eduki zuten. Azaroaren 24ko goizeko bostetan, kamioi batean hartu, eta, Valentzian, Paternako Pikaderoa delako gunera eraman ondoren, bertan hil zuten beste hamaika lekaimerekin batera.

Ez zelako politikan sartuta ibili eta Jangoikoarekiko bere bizia eman zuelako, 2001eko martxoaren 11n, Joan Pablo II.a aita santuak beati-fikatu egin zuen.

### ***Jose Manuel Arin Dorronsoro.***

1887ko irailaren 10ean jaio zen Arzate txiki baserrian.

Loiolako Jesuitetan sartu ondoren, Guardian, Oñan, Urduñan eta Gasteizen egon zen agindutakoak betetzen.

1932an errepublikar aginteak jesuitak desagerrarazteko agindua eman zuenean, Belgikan egon zen ezkutatuta, Marneeffe izeneko herri txiki batean, beste fraide batzuekin.

1936ko gerra piztuta zegoela, Madrilera itzuli zen, eta Goya kalean komunitate batean egon zen beste jesuita fraide batzuekin.

Gogo-jardun espiritual batzuetan Durangon egun batzuek igarota, Madrilera joan aurretik, jaiotetxera etorri zen azken aldiz, matxinada militarra altxatu zen bezperan. Bere anaia Felipe magistratu izateak ere, hainbat traba sorrarazi zizkion ezkertiarren artean. Azkenean atxilotu eta beste fraide batzuekin Modelo espetxean sartu zuten; ondoren, handik San Anton kartzelara pasatu zuten.

Denboraldi bat espetxean igarota, epailearen aurrera eramane zute-nean, jesuita zela aitortu zuen, eta Herri Auzitegi batek heriotza zigorra ezarri zion.

Madrildik hamabi kilometro ingurura exekutatu zuten, Paracuellos del Jarama herrian, 1936ko azaroaren 29an.

Euskal Herritik kanpo apostoluzan ari ziren apaiz batzuk Francok militarizatu, eta tropa nazionaletan borrokatzera behartu zituen; tar-tean, hainbat ataundar:

- Hospitaleko Jose Luis Lekuona Eskisabel apaiza, alferez izendatu zuten.
- Ustatxoko Jose Etxeberria Aranburu apaiza, Enlazetako batailoian.
- Lazkanotegiko Jose Franzisko Auzmendi Tolosa fraide pasionista, kapilau aritu zen.
- Txomiñoneko Joakin Lizarraga Barandiaran, fraide korazonista, Madrilen mobilizatu zuten.

Beste hainbat elizgizon abertzaleak zirelakoan salatu zituzten, eta, ondorioz, euren herrietatik alde egin, eta desterratu behar izan zuten. Idiazabalen 1870ean jaiotako Mateo Mujika Urrestarazu gotzaiaren kasua izan zen sonatuenetako bat, baina Ataunen ere izan ziren bide-gabekeria ugari jasan eta ondo ordaindu zutenak.

Ezaguna zen Gasteizko lehen gotzain euskaldun horrek Espainiako monarkiarekiko zeukan zaletasuna; alabaina, oso herrikoia zen, eta berak ezin zuen ukatu justiziaren banaketa.

1936 inguruan, 600 bat apaizgai zeuden Gasteizen, eta gotzain hark, aurrekoak bezala, debekatu egin zuen seminarioan politikaz hitz egitea.

Gaurko askok bezala, politika aipatzerik ere ez zuen nahi izaten, baina abantaila pertsonalak lortzeko garaian, aprobetxatu egiten ziren asko bezala, eta Mujika jauna ere beti eskuineko politikoen alde azaldu zen hasiera batean. Espainiaren alde eta batik bat Alfonso XIII.a erregearen alde (seminario berria inauguratzean eta abar). Haren agintaldian, batik bat hauteskunde garaietan, nazionalistak gero eta boto gehiago lortzen ari zirenean, "*nazionalistak ez zirela benetako kristauak*" esanaz baserritik baserrira ibili ziren erregearen aldeko elizgizon ugari, nazionalistei botorik ez emateko eskatuz.

Espainiako Elizako hierarkia frankisten alde nabarmendu eta agertu bazen ere, euskaltzale izateagatik salatu zituzten gure herriko zenbait apaiz, eta isunak jarri zizkieten; ondorioz, erbesterratu beharrean izan ziren. Ataka horretan aurkitu ziren ondoren aipatuko ditugun gizonezkoak.

### **Akilino Aierdi Goikoetxea**

Elormendi etxean jaio zen 1907ko urtarrilaren 3an. Gasteizko Seminarioan ikasketak eginda, 1929ko abenduaren 23an eman zuen lehen meza. Berehala, Molinedo-Arzentales herrira joateko izendatu zuten (Karrantza bailaran), eta 1931n handik Ispaster herrira aldatu zuten bertako erretoreari laguntzeko.

1936ko Gerra Zibilean, Amaiur Batailoian sartu zen, euskal gerrarien kapilautzan jarduteko, eta kapilau-kapitan gisa prestatu zuen bere zerbitzua.

Bertan egindako lan eta ahaleginengatik saritu ordez, garaile sentitzen ziren errebelde faxisten jazarpena jasan behar izan zuen.

Atxilotu ondoren, Emilio Valdivieso ohorezko alferez jauna epai argitzaile zela, "*Consejo de Guerra Sumarísimo nº 10640*" ireki zioten, eta "*elemento peligroso*" izendatuz ekin zion atxikidura-makinak bere jardunari.

Herriko alkateak —FET y DE LAS JONS erakundeko buruzagia bera— komandante jaunak eta epaile militarrek honela azaldu zituzten Akilिनok egindako lege-hausteak:

***“De lo que doy fe:***

***Elemento peligroso del pueblo. D. Aquilino Ayerdi Goicoechea, coadjutor hasta diciembre último, quien sentó voluntariamente plaza de capellán del Batallón Amaiur, fue inspirador y colaborador del diario “Euzkadi” y “Euzko languille”; ridiculizando y denunciando a los derechas de su localidad.***

***Fue inspirador de todos los directivos separatistas de esta. Vendía el semanario rabiosamente separatista “Jagui-jagui”. A sus trabajos, se debe la constitución del Batzoki de esta.***

***En las últimas elecciones presionó a los socios del Sindicato Agrícola, del que era consiliario, votaran a la candidatura rojo-separatista y en las visitas que hacía a esta localidad animaba públicamente a los separatistas diciendo que muy pronto quedarían exterminados los requetés. Se cree se halla en la zona liberada.***

***Don Angel Zabala Erezuma (párroco de Ispaster), contribuyó con esplendidez a todas las suscripciones del separatismo vasco pagando un aparato de radio para el Batzoki.***

***Venía a su nombre un paquete del semanario “Ekin” vendiendo por su cargo de 50 a 60 números semanales.***

***Expido a tres de noviembre de 1.938”***

Santoñako ituna hitzartu ondorenean, bertan eta Laredon itxaroten zeuden 38 kapilau gerrariak, *Keith* izeneko destruktore ingelesaren babespean itsasontziz Frantziara joateko asmoa bazuten ere, ez zuten lortu.

Destruktore horrek berak babestu zuen, uztaileko lehen astean, 36 kapilaurekin Bordelera egin zuen bidaiari, *Molton* itsasontzia.

Aipatutako 38 kapilau horiek ez zuten, bada, zorionik izan, eta 1937ko abuztuaren 28an ezustean harrapatu, eta Santoñako Dueso espetxean sartu zituzten.

Hemen hasi zitzaien Espainiako espetxeetan pairatu beharreko guruzpideak.

Talde horretakoa zen Tomas Aldekoa Etxeberria apaiza, eta horrek, idatzi batez, honela jakinarazi zuen nolako ongietorria edo harrera egin zieten:

*“Fuimos despojados de cuanto teníamos, dinero, relojes, plumas... cacheados desvergonzadamente quitándonos incluso los rosarios, las crismas, las cadenas con medallas al cuello... las maletas registradas abiertas y rajadas con cuchillo.*

*Así desparramaron por el suelo los Santos Oleos recibidos recientemente de la Diócesis de Dax (Francia), diciendo que mientras la población de Bilbao se moría de hambre, Los capellanes nos dedicábamos a acaparar aceite.*

*También llevaron los cálices y objetos de culto, haciendo creer al Director que “alguno” los había robado en la Iglesia para huir con ellos a Francia.*

*Asimismo se apoderaron del dinero de estipendio de misas..., el trato era común con todos los reclusos, el pelo a rape, limpieza de retretes y ojo al vergazo que más de un capellán tuvo que aguantar y sufrir en el calabozo.*

*Pero los carceleros no eran responsables de estas ignominias (irainak), sino el torturador de la voluntad de sus jefes y autoridades que apoyaron esta guerra. El propio Director de la cárcel de El Dueso, no nos concedía ni en privado, ejercer nuestro ministerio.”*

Handik egun batzuetara, irailaren 8an, *Junco Mendoza* epaile militar ezagunak ordurako prestatua zuen horien prozesua, eta galdeketari ekiteko asmoarekin agertu zitzaien; hurrengo egunean, 38 kapilauen erantzunen lapurpena *Consejo Sumarísimo de Urgencia* delakoari agertzeko.

Kontuan izanik 38 salatu zirela, ziurtatu daiteke halako bizkortasunarekin ez dela inoiz prestatu auzirik.

## **SENTENCIA**

*En la plaza de Santoña a nueve de septiembre de mil novecientos treinta y siete, II Año Triunfal, reunido el Consejo Permanente de Guerra nº 2, para ver y fallar la causa nº 22 instruida por el Procedimiento Sumarísimo de Urgencia contra Jose María Dañobeitia Arruza y TREINTA Y SIETE MAS, por el supuesto delito de Rebelión Militar; todos mayores de edad.*

*Da cuenta, oído el Ministerio Fiscal y la Defensa,*

*Que Aquilino Ayerdi Goicoechea, en el mes de Diciembre se presentó como Capellan voluntario siendo destinado al batallón Amayur, cobrando 500 pesetas primero y 800 después y asimilado a Capitán, simpatizando con el Nacionalismo Vasco y siguiendo en todo la trayectoria que a dicho partido marcaban sus dirigentes.*

### **CONSIDERANDO**

*Que los hechos reseñados en el primer resultando de esta Sentencia constituyen el delito de Adhesión a la Rebelión, previsto y penado en el párrafo segundo del Artº 238 del Código de Justicia Militar, siendo de apreciar los efectos agravantes del Artº 173 del mismo Código con referencia a los procesados.*

*Vistos los artículos citados, los Bandos de 28 de julio de 1.936, 5 de enero y 26 de agosto de 1.937 y disposiciones de general aplicación:*

### **FALLAMOS**

*Que debemos condenar y condenamos al procesado Aquilino Ayerdi Goicoechea, a la pena de doce años y un día de reclusión temporal; a todas accesorias correspondientes de inhabilitación absoluta durante el tiempo de la condena y al citado procesado, a la responsabilidad civil subsidiaria que se fije en periodo de ejecución de esta Sentencia.*

*Así por nuestra Sentencia lo pronunciamos, mandamos y firmamos.*

*Manuel Maldonado, Jose Gil,  
Rafael Moreno eta bi irakurri eziñezkoak.*

Epaileak hartutako erabakiaren ondorioz, taldeko bi apaizi 30 urteko espetxe zigorra ezarri zioten. Taldeko beste bostentzat, 20 urte eta egun bateko zigorra, eta beste seirentzat, 12 urte eta egun batekoa. Azkeneko horien artean zen Akilino jauna, eta gainontzekoak aske utzi zituzten.

Deigarri deritzogu leporatutako salaketagatik hainbateko zigorra ezartzea.

Zigortuak Dueso presondegian egon ziren hasiera batean, baina, berehala, Langraiz, Dueñas, Carmona eta beste presondegi batzuetara eramán zituzten.

Gerra bukatu eta urte batzuetara, Armadako Ministerioak eta *Comisión de Revisión de Penas* erakundeak, *Sumarísimo* direlako prozesuak berraztertzen hasi ziren.

Azterketak horiek txorakeriazko eta desberdinak izan ziren. Nahaste-borraste handi bat izanik, batzuek askatasuna lortuta ere, itxaron behar izan zuten desterrua non izango zuten jakiteko.

Ezarritako zigorrak berraztertzeko sortu zen batzordeak Akilinori zegokiona ere aztertu zuen. Hona hemen batzordearen iritzia eta Elizbarrutitik bidaltzeko edo desterratzeko aipamena:

***VI Cuerpo de Ejercito – Sección de Justicia – Número 10.449-2<sup>a</sup>***

***Excmo. Sr.***

***No habiendo llevado a cabo ningún hecho delictivo el encartado en este procedimiento, Aquilino Ayerdi Goicoechea, procede a V.E. a tenor del artículo 396 del C. de J.M. termine lo actuado sin declaración de responsabilidad y decretando su archivo.***

***Debe ponerse en conocimiento del Obispo de la Diócesis por medio de testimonio del particular, los antecedentes nacionalistas por sí cree conveniente su destino fuera de las Provincias Vascongadas, en el ejercicio de su Ministerio.***

***Si V.E. resuelve como se propone, vuelva este procedimiento a su Instructor para notificación, cumplimiento y demás trámites.***

***V.E. no obstante, acordará***

***Burgos, 15 de mayo de 1.939 – Año de la Victoria***

***El Auditor***

Berehala bere erabakiarekin, Burgosko goi-agintariak erantzun zion iradokizun edo proposamen horri:

*Burgos, 3 de junio de 1.939 - Año de La Victoria.*

**DECRETO**

*Conforme con el precedente dictamen y por sus propios fundamentos, termino sin declaración de responsabilidad, las presentes Diligencias de la plaza de Bilbao, instruidas contra el sacerdote Aquilino Ayerdi Goicoechea si bien, en lo que a este último se refiere, pongase en conocimiento del Obispo de la Diócesis, los antecedentes marcadamente separatistas del citado.*

*Para cumplimiento, notificación, curso del oportuno testimonio que se cita y demás tramites, vuelva lo actuado a su Juez Instructor.*

**El General Jefe,**

Azkenean, Kordobako Lucena herrira desterratu zuten Akilino Aierdi 1940an, eta han apaizgintzari zegozkion lanak bete, eta, bere musika afizioak bultzatuta, Lucenako abesbatzako zuzendaria izan zen. Askatasun murriztua eduki arren, gizartean murgilduta zegoen, eta, bere bultzakadari esker, bi auzotan etxe berriak eraiki zituzten; gainera, Santo Domingo eliza berri, eta eskola patronatu multzo bat bideratu zuen.

Andaluziako herri hartan, Zaldibiako Bilore enpresak, garbitasunerako xaboiak egiten zituzten lantegi bat zeukan, eta maiztasun handiarekin joaten ziren bertara aranatar nagusiak.

Akilinok esaten zuenez, elkarrekin hainbat egun alai izan zituzten, eta hangoek emandako berotasun eta laguntza errukitsuari esker eraman ahal izan zuen berekin edukitako jokabidea eta nahigabeak.

Lucenan hogeitau hiru urte igaro zituen, eta azkenean lortu zuen bere herrira itzultzeko baimena. Donostiako Sanatorioko kapilau-lanak egiteko izendatua, bertan jarraitu zuen apaizgoan 1977ko urriaren 7an hil zen arte.

**Manuel Apalategi Zurutuza**

1901eko apirilaren 13an jaio zen Murkondo auzoko Sabiaga baserrian.

1914an, Altsasuko kaputxinoen konbentuan sartu zen, bere osaba Andres kaputxinoak horretarako bideak egin ondoren.

Lau urte bertan igaro ondoren, Zangozako konbentura eraman zuten, eta 1918ko ekainaren 18an, bertan jantzi zuen fraide jantzia Aita Bonifazio Ataun izena hartuta.

Euzko Gudarosteko lehendabiziko kapilau izanik, soldaduentzat hainbat hitzaldi eman zituen. Horien artean, 1934ko martxoan Oiarztunen eman zuena, eta, diotenez, hiru mila entzule bildu omen ziren.

Hitzaldi gehienak euskaraz egin zituen, eta denak idatzita eta gordeta edukiagatik, gerra hasi eta berehala, Gurutzaldi Santuak erre egin zizkion.

1934an *Zeruko Argia*-ko zuzendaria zen, eta bertan idatzi zituen lehenengoz, erlijioaren inguruko gaiak.

1936ko urriaren 24an, Mutrikuko portutik abiatu eta Donibane Lohizunera ihesi joan zen (Jose Migel Barandiaran ere berarekin zen), eta handik Okzitaniako Tolosara. Ordurako euskal kulturaren munduan murgilduta zebilenez, Eusko Jaurlaritzaren Parisko *Eusko Deia* aldizkarian hasi zen olerki edo poematxoak zabaltzen.

Erbesteratu ondoren buruhauste eta korapilo handiak sortu zitzaizkion, batetik Aberriaren egoeragatik eta bestetik kaputxino buruek eta Eliza ofizialak azaldutako joeragatik.

Leizaola jaunaren bidez, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Kultura Sailak, Espainiako Kontsul jaunari baimena eskatu ondoren, Kataluniara bidali zuten 1937ko martxoan.

***“Ruégole con el mayor encareamiento facilite pasaporte a D. Manuel de Apalategui, residente accidentalmente en esa. Se trata de persona de absoluta confianza que ha dado pruebas más que suficientes de afecto a nuestra causa. Lleva para Cataluña misión especial que le ha encargado el Departamento de Cultura del Gobierno de Euzkadi”.***

Frantziako hiritar agiria lortu zuen 1937ko abenduaren 15ean, eta Okzitaniako Tolosa hirian bizi izan zen, baina osasunez pattal xamar zebilen.

Bestalde, Tolosako kaputxinoen buruzagiek ez zituzten ontzat hartzen Bonifazio Ataunen jokabide abertzaleak, eta haien asmoa zen “des-terratuta” Argentinara bidaltzea.

Otsailaren 12ko gutunean hara zer agertzen zion aipaturiko agintariari:

*“Sekulan ez nuen sinetsiko honelako maltzurkeriarik, txarkeriarik eta azpikeriarik inork izan zezakeenik. Negar egiten det Ebanjelioaren kontrako hainbeste ikuskizun negargarriarekin.*

*Gauza asko eta saminak kontatuko nizkizuke baina ez da horretarako garaia. Erabakia dago denok Kristoren auzitegian eman beharko dugula kontu”.*

1938ko abenduaren 7an Marsellatik irten zen Argentinako Buenos Aires hirira iristeko. Hemen apaiz lanari lotuta, Nueva Pompeya izeneko parrokia batean jardun zuen lanean, Buenos Airesen, 1948an Kordobara (Argentina) joan arte.

Kordoban, Mendozan eta Buenos Airesen ibilia, apaizari zegozkion lanez gain, eginkizun askotan jardun zuen: hitzaldiak ematen, sindikatuko aholkulari moral, jostungintzako langileen federazioaren sortzaile eta aholkulari, Erljioen Historiako irakasle, aldizkari sortzaile, *Instituto Americano de Estudios Vascos* buletinaren zuzendari eta abar.

Betidanik zuen Euskal Herriratzeko asmoa, eta, erromes sail batekin etorri nahi izan zuenean, galarazi egin zioten, baina Espainiako konsulatuan 660 pezeta ordaindu ondoren pasaporte eman ziotenean, Europara etorri zen.

Hala ere, Espainiako agintariak Erroman zegoela jakin zutenean, 1954ko aginduz, honela adierazi zioten: **“Prohibida la entrada aunque lleve pasaporte en regla”**. Ondorioz, erbestean jarraitu behar izan zuen.

1977an, Nueva Pompeyako eliza nagusian berealdiko omenaldia egin zioten apaizgintzako 50 urteak ospatzeko.

Euskal Herrira etortzeko nahia, ordea, areagotzen ari zitzaien, eta bazekien bestalde Spainian amnistia hotsak bazirela eta Iruñeko kaputxino buruari honako idatzi hau igorri zion:

***“Amnistia giro honetan fraile txiro hau, 1936ko gerra zela eta Ordenako Nagusiek erbesteratutako fraileentzat amnistia eskatzen dizut apalki, anaidiko nagusiek ezarritako desterruan hil naizela iñork esaterik ez nuke nahi.***

***Zuregandik amnistia lortzen badut sorterrira itzuliko naiz; bestela, hementxe hilko naiz nire desterru bikoitzean”***

Kaputxino buruak ondo hartu zuen bere egarria eta nahi zuenean etor zedila erantzun zion.

1977an Argentinatik itzulita, Donostiako kaputxinoetan bizi zela, berriro Euskal Herriko kultur munduan murgiltzen hasi zen.

Hainbat hitzaldi eta idazlan egunkari askotan egin ondoren, Donostian hil zen, 83 urte zituela, 1984ko abuztuaren 17an.



### **Jose Domingo Arin Arin**

Albizzarden jaiotako apaiz hau bere apostolutza Oiartzunen betetzen ari zela, atxilotuta, Iruñeko Ezkabako presondegian eduki zuten bahituta.

Bertatik aske utzi, eta Iruñeko seminarioan zegoela, 1940an, Fruizera (Bizkaia) bidali zuten eliz-agintariek.

1954an, Ataungo S. Gregorioko erretore izendatu zuten.

### **Juan Arin Dorronsoro**

San Gregorioko Telleri azpiko baserrian jaio zen, 1892ko abenduaren 12an.

1905ean latina ikastera joan zen Lekarozko (Nafarroa) Nuestra Señora del Buen Consejo ikastetxera eta Filosofia eta Teologia ikasketak Gasteizko *Seminario Conciliar* delakoan egin zituen.

1917ko ekainaren 24an eman zuen lehen meza, eta berehala jaso zuen Arabako Arzubiagara joateko destinoa. Hiru familia bakarrik bizi ziren bertan, eta hurrengo urtean, Garaioara bidali zuten. Herri hori hamabost etxez osatuta zegoen. 1919an Ataungo San Martin parrokira etorri zen, eta bertan jarraitu zuen 1973ko irailaren 1ean hil zen arte.

Jose Migel Barandiaranen lagun handia izanik, antropologia eta aztarnak biltzeko zaletasun haundia piztu zion maisu handiak, eta lan ugari egin zuen arlo horretan. Hainbat tresna eta material aurkitu zituen Aitzkoaten eta beste leize batzuetan, eta gaur egun Donostiako San Telmo museoan aurkitzen dira.

1926tik 1932ra, Gasteizko *Anuario de Eusko Folklore* urtekarian argitaratu zituen lan batzuk:

- “Maderamen en las construcciones antiguas”
- “Establecimientos humanos y las condiciones naturales”
- “Establecimientos humanos y zonas pastoriles”
- “Toponimia del pueblo de Ataun”
- “Toponimia de carácter religioso”
- “Ataun I y II, Ikuska 1951-1952 Sara eta Bayonne”.

1955 eta 1961era, Eusko Folklorek Donostian argitaratu zituen beste lan batzuk:

- “Catálogo espeleológico de Guipuzcoa-Sector Ataun” Munibe 1955 – Donostian.
- “Toponimia y vida rural en Ataun”
- “Notas acerca del pastoreo tradicional de Ataun”
- “La labranza y otras labores complementarias en Ataun”
- “Industrias rurales en Ataun: la del lino y la del carbon”.
- “Clero y religiosos de Ataun”. Lan hori 1964an argitaratu zen Jose Migel Barandiaranen hitzaurrearekin.

“*Pertubador ó amotinador*” salaketapean, San Martin parrokian zegoela, 1.000 pezetako isuna ezarri zioten.

### **Jose Migel Barandiaran Aierbe**

San Gregorio auzoko Perune zarra baserrian jaio zen, 1889ko abenduaren 31n.

Itziarko Urtiaga kobazuloan lanean ari zela jaso zuen gerra piztu zenaren berria, eta, sortzen ari zen giroa kezkarria zenez, Bilbora joatea erabaki zuen.

Eguna kobazuloan jardun ostean, Lekeitiora joatea erabaki zuen, eta ondoren Saturrarango apaiz seminaria. Seminarioa, gudarien kuartel bihurtuta zegoen, eta bertan agintean zegoen Manuel Irujo; harengana jo zuen apaizgai ikasketak egiten ari ziren hainbat gazte bertatik ateratzeko ahaleginak egitera.

Apaizgintzan ari ziren gazte haiek seminariotik atera ondoren, J.M. Barandiaran Mutrikuko kaira joan zen, eta iluntzeko 21:00etan *Itziar* izeneko itsasontzian, beste 45 iheslariekin batera (horien artean Aita Bonifazio de Ataun kaputxinoa), Donibane Lohizunera alde egin zuen.

Azkainen egun batzuk igaro ondoren, Belokeko beneditarren monasteriora jo, eta bertan Pierre Dop historialariak Saran egin beharreko ikerketa-lanetara gonbidatu zuen. Kasu egin, bertara joan eta azkenean, hor gelditu zen jaioterrira itzuli artean.

1939ko urriko lehen egunetan, *Columbia University of New York* eta *Universidad de Santo Tomás de Manilatik*, katedra baterako eskaintza egin zioten, baina ez zeritzon eroso, eta ez zuen onartu.

Euskaldun exiliatua izateagatik, frantses apaizek ere askotan susmo txarrez edo zalantzarekin hartzen zuten, eta jokabide mingarri ugari ikusi behar izan zituen.

Honela zioen berak:

***“He trabajado en el pueblo vasco porque en él he nacido y porque soy vasco. He amado a mi pueblo, pero no con exclusivismo.***

***A muchos se les ha juzgado con este razonamiento:***

***El partido político que ha cultivado el estudio del problema vasco es el Partido Nacionalista Vasco; fulano, cultiva el mismo estudio; luego es nacionalista vasco, es decir separatista.***

***Pero tengo una gran satisfacción por no haber incorporado mi actuación a ningún partido político”.***

1940an, Alemanek II. Mundu Gerra deklaratu zuten; irailaren 1ean, Hitlerrek Polonia inbaditu zuen.

Hortik egun batzuetara, Ingalaterrak eta Frantziak desafio edo erronka bota zieten alemanei, eta hilaren 17an, Errusiak poloniarren aurka ekin zionean egoera are gehiago nahastu zen.

Frantzian eragin handia izan zuen gerra hark. Baionako euskal gobernuaren ordezkari itxi egin zuten frantsesek. Gobernuak 20 urtetik 48ra arterako euskaldun errefuxiatuak Gurseko (Akitania) konzentrazio esparrura eramateko agindu zuten, baina, gotzai jaunak prefektuarekin egindako ahaleginari esker, apaizak agindu horretatik kanpo gelditu ziren.

Orduan, beste 25 apaizekin batera, Normandiara bidali zuten exiliatuta, baina hango gotzainaren gustukoak ez zirenez, Bordelera itzultzeko bideak egin zituzten, eta, besterik gabe, Akizeko bidea hartu zuten.

Alemanek mehatxatuta zegoenez, Akizetik ateratzeko aholkatu zion bertako alkateak, eta, agiria lortu ondoren, berriro Sarara itzuli eta bere iloba Pilarrekin batera Bidartea etxean jarri zen bizitzen.

Gerra Zibila amaitu zenean, antropologo eta etnologo gisa nazioartean ezagun eta ospetsua izanik, zenbait madrildar ikertzaileek hara

gonbidatu zuten segurtasun-berme osoak eskainita, baina aleman intelektualekin hartu-eman onak zituenez, ez zitzaizkion gonbidapen haiek tentagarri suertatu, eta Saran jarraitu zuen.

1952an, errepresaliarik izan gabe jaioterrira etortzeko moduan izango zela ziurtatu zioten Salamancako Unibertsitatean katedra bat eskaini ziotenean. Ordurako, erbestean hamazazpi urte igarota zituenez, eskaintza hura onartu egin zuen, eta, itzultzeko asmoa hartu zuenean, gaixotasun baten ondorioz, Donibaneko erietxe batera eraman behar izan zuten ebakuntza bat egitera.

Lau hilabete pasatu ondoren, Salamancako Unibertsitatetik deika jarraitzen zuten, eta, berriro ere berme osoa eskaintzen ziotenez, etsietsian onartu, eta azaroaren 3an, Catedra Larramendi inauguratuz eman zituen lehen ikastaroak Salamancan.

Madrilgo Unibertsitatetik eskaintza gehiago ere izan zituen, baina azkenean Iruñeko Unibersitateko Etnologia Vasca katedra onartu zuen, asteen bi egunetan ikasgaiak emateko.

Ordurako, Ataunen Sara etxe berria prest zuen, eta urriaren 13an itzuli zen bere herrira. Geroztik, Gaztiñarre eta Igartu aldeko eguneroko ibilaldiekin ase zituen hainbat urtean gogoan izandako bere paraje hunkigarriak.

### ***Jose Paskasio Bikuña Agirre***

1882ko maiatzaren 31n jaio zen, Agerre Aundian, eta, 1907an apaiztuta, Arabako Eginora destinatu zuten; 1910ean, Adunara; eta 1915ean, Aia auzoko erretoretza kargua hartu zuenean, eraikitzen ari ziren eliza berriaren lanak bukatu zituen.

Gerra Zibilean erreketeez Lizarrustirako errepidearen ertzean tirokatu edo fusilatutako hiru ezezagunen gorpuak bertan utzita zeudela jakin zuenean, gizakiak zirela-eta auzoko gazte batzuei eskatu zien hilerrira eramateko, eta bertan lurperatu zituzten. Jokabide hura zela-eta, 1937an frankistek abertzaletzat hartu zuten, eta, herrian sortu ziren esamesen ondorioz, 1.000 pezetako isuna ezarri eta Gaztelura bidali zuten, zigortuta. Harekin bizi zen arrebari ere, beste 1.000 pezetako isuna ezarri zioten.

Azken urteetan, iloba Teodoro Bikuña Sukia Mutiloan erretore zegoela, haren ondora bidali zuten apaiz laguntzaile, eta bertan hil zen 1957ko apirilaren 23an.

### **Teodoro Bikuña Sukia**

Agerre Aundian jaio zen, 1906ko urriaren 2an. 1931ko ekainaren 30ean, lehen meza eman ondoren, Basabera destinatatu zuten, Arabara.

Hurrengo urtean, Beasaingo Garinera; 1938an Bedaion zen; 1940an, Mutiloan; eta 1957tik Zumaian bete zuen bere apaizgoa, 1987ko ekainaren 29an hil zen arte.

1936ko Gerra Zibilean, nazionalista eta “*perturbador ó amotinador*” gisa salatu zuten.

### **Jose Antonio Etxeberria Aranburu**

1908ko otsailaren 2an jaio zen, San Martingo Ustatxo Garakoan.

1935ko ekainaren 24an lehen meza eman ondoren, Gasteiztik hogei kilometro ingurura dauden Arabako Zigoitia, Akosta eta Zestafe herrietara destinatatu zuten. Bertan urtebete inguru pasatuta, Bilbotik hemezortzi kilometrora igorri zuten, Bizkaiko Fruiz herrira. Han zegoela, inguru haietan bete-betean ziren Gerra Zibilaren erasoak, eta gertutik ikustea tokatu zitzaion.

1941ean, Bizkaiko Alonsotegi herrira destinatatu zuten, eta hor jardun zuen heriotza heldu zitzaion arte.

### **Miguel Maria Lasa Bazterrika**

San Gregorio auzoan jaio zen, Ugalden, 1896ko irailaren 16an, eta, Burgosko seminarioan ikasketak egin ondoren, 1920ko abenduaren 18an apaiztuta, Corresera izendatu zuten, Arabara. 1923an, Ursuaranera; 1926an, Zumarragara, eta, bertan zegoela, Gasteizko seminarioan preso egon zen bere iritzi politikoak zirela eta. 1937an, Pasai San Pedrorra bidali zuten. 1951tik 1979an hil zen arte, Eibarren egon zen.

**Martzelino Rezola Etxeberria**

Albizzarden jaiotako apaiz hori San Gregorio auzoko apaiz lagun-tzailea zen, eta, azken hauteskundeetan botoa nazionalistei eman zuela eta, Ataungo agintariak 1.000 pezeta (6 euro) isuna ezarri zioten.

Gerra Zibila bete-betean zegoela, erreketek batek deia dartzutako *!Viva España!* erantzun gabe gelditu zelako, tirokatua izateko arriskuan egon zen. Nahiz eta azkenean ez zen ezer gertatu. Hori gertatu eta zortzi egunera, etxea erregistratu zioten.

**Pedro Zurutuza Altolagirre**

Gomensoro auzoan jaio zen, Arinen, 1899ko maiatzaren 21ean. Eliz-ikasketak Gasteizko eta Burgosko seminarioetan eginda, 1924ko apirilaren 21ean eman zuen lehen meza.

Oteon (Araba) eta Urrexolan egon ondoren, 1929an Astigarragara destinatu zuten, eta 1936an politikoaren akusazioarekin, Ondarretako kartzelan sartuta eduki zuten; gero, Aizarnazabalera destinatu zuten, baina 1937an, berriro zigortuta, Gaubeara (Araba) desterratu zuten.

1942an, Zaragozako Kartujan gaixotuta zegoela, Lazkaoko beneditarretara etortzea lortu zuen, eta bertan egon zen hil arte.

**Heriotzak Ataunen**

Erreketeak Santiago egunez sartu ziren Nafarroatik. Esana dugu egun bat besterik ez zutela igaro gure herrian eta Ataunen heriotzarik ez zela izan, baina esaldi hori zuzendu edo hobeto formulatu beharrean gaude. Herrian gertatutako borroketan ez zen inor hil, borrokarik ere apenas egon zelako, baina inguruko herrietan bahitutako zortzi mutil gazte ekarri zituzten frankistek tirokatzera.

Gertaera horiek denak Beasaina eta Ordiziara tropa frankistak sartu ondoren gertatu ziren. Abertzaleen etxeetatik harrapatutako altzari eta gainerakoak kamioietan Nafarroara garraiatzen zituzten bitartean, kamioi haietan beraietan abertzale izatea beste deliturik ez zuten mutil gazteak ere garraiatzen zituzten. Maiz salaketarik gabeak, auzitara eraman gabe, agintarien aginduz tiroa bota eta amildegian behera bota zituzten.

Hemen bildu ditugu frankistek Ataunen hildako zortzi mutil gazte haiei buruz ditugun datuak:

**Ezezaguna:**

Hilotza sasiarte batean aurkitu zuten, tirokatuta. Hain zuzen ere Lizarrustin, Nafarroako noranzkoan, Kaxetara iritsi aurretik, Agaunza ibaia Mandabitako zubitik pasa eta gora igo ondoren, Beltsuas esaten dioten parajea.

**Jesus Bujanda Martinez**

Gazte zela Goierrira etorri bazen ere, Nafarroako Viana herrian jaioa zen. Olaberriko neska batekin ezkondua, CAFeko lantegian aritu zen. Horrez gain, herriko ostatua ere beraiek zuten, bertan bizi ziren.

1936ko abuztuko arratsalde batean, Beasaingo CAF lantegian lanean ari zela, frankistek beste lagun batekin atera zuten. Lankide batek zioenez, txamarra hartzera joan zenean “*para este viaje no vas a necesitar*” esan zieten borrero faxista haiek.

Inguruan lan egiten zuen olaberriar batek eman zion albistea emazteari, onena beragatik erreztatzea izango zuela esanez.

Sendikoek uste dute berriemaile hark zerikusituzena eduki zuela heriotza horrekin eta herriko beste batzuekin.

Fusilamendua ikusitako aiar batek esanda, sendiak bazekien kamioi batean Lizarrusti aldera eraman zutela, eta jaitsi ondoren tirokatu eta hil zutela. Lekukoa, kamioia joan arte ezkutuan egon zen, eta ondoren auzoko erretorearengana joan zen berri ematera. Segidan bien artean gorpua auzoko hilerrira eraman eta bertan lurperatu zuten.

Sendikoak non ehortzi zuten ezagutu nahian hasi zirenean, sarraski haren erantzuleek trabak jarri eta ikertzea galarazi zieten. Ez hori bakarririk, dolua agertzea ere debekatu zieten hainbat erasoren bitartez.

1940an bere alargunak berriro ezkontzeko asmoa hartu zuenean, senarraren heriotza agiririk ez zegoenez, Tolosako epaitegian lortutako datarekin inskribatu zuten heriotza agiria Olaberrian: 1936ko abuztuak 9.

**Marzelo Lasa Zeberio**

Olaberriko Bengoetxea Garako baserrian jaio zen, 1918ko urriaren 5ean.

Herriko erregistro zibileko heriotza-liburuan agertzen da (7. zenbakia, 34. folioa) 1936ko abuztuaren 25ean hil zela Lizarrustiko errepidean arma batekin tirokatuta egin zizkioten zaurien ondorioz.

Liburu batean ere ageri da gertaera haren berri:

*Fallecio en Lizarrusti el día veinticinco de agosto de 1.936 a consecuencia de heridas de arma de fuego, según resulta de información testifical y reconocimiento practicado.*

*Esta inscripción se practica en virtud del expediente instruido en el Juzgado de 1ª Instancia del Partido y aprobado por el mismo”.*

Marzelorekin batera eraman zuten Jose Lasa Ormazabal gaztea ere, Olaberriko Azarola baserrian jaioa 1910eko urriaren 20an. Hark zioenez, kamioetik jaitsi eta tirokatzeko lerroan jarri zutenean, ausardia osoz hiltzaile haiei eraso egin zien. Ezustean harrapatu zituenez, kokilduta mugitu ezinean geratu ziren, eta mendiz mendi ihes egitea lortu zuen. Ondoren, segurtasunik ez zuelako, neurriak hartu behar izan zituen, baina ez zuen eragozpen handirik izan bere bizitzan.

**Hiru gazte ezezagun:**

Lizarrustirako errepidean, zehazki, Erroiondo baserriko borda inguruan, hango errebolta edo bihurgunean, hiru gazte hil zituzten tirokatuta. Ziur esaterik ez badago ere, badirudi hiru haietako bat Itsasondoko zela eta beste biak Ordiziakoak.

Zorigaitzeko gertaera hura honela izan zen: Atauna hiltzera ekarri zituzten bahitzaile faxistak ez ziren ausartzen tiroa botatzera eta ordu-rako San Martin auzoan zaintza lanetan zeuden taldekoei boluntario bat eskatu zieten hiru gazte haiek tirokatzeko.

Eskari hura entzun orduko, herriko gazte bat prest agertu zen tirokatzeko, eta, gune hartara bideratu ondoren, sutarma hartu eta tirokatu egin zituen gazte errugabe haiek.

Hurrengo goizean, 1936ko irailaren 24an, Arbilletako J. Agirre Arratibel eta bere arreba, udazkenean ohikoa zen bezala, mando batekin jaiotetxerako garoa biltzera zihoazela, Kamio etxera iritsi aurretik, gizon armatu batekin topo egin zuten. Honela kontatzen zuten gertaera hura:

*“Nori begiratzen diok? Segi aurrera! esan zien euskaraz borrero hark. Gaztea izanik [16 urte zituen], ez nuen armarik ezagutzen eta ezin det zehaztu zer motatakoa zen, baina hori bai, arma errepide gainean tinkatuta zuela errepide erdian zutik eta tente ikusi genuen gizon hura.*

*Berarengana inguratzean konturatu ginen errepide hertzeko erretenean hiru gizona zuten gorpuak zeudela hilotzuta. Berrero “zaindari” hark deiadar gogor bat egin zigun esanez: zer egiten duzue zuek?, ospa hemendik, agudo!*

*Erabat beldurtuta, laster alde egin genuen gune hartatik, gorago geneukan gaztainadi aldera.*

*Lehenengo iratz edo garo karga prestatu genuenean, beste bide batetik [Erroiondo atzetik] etxera bidali nuen nire arreba mando kargatuarekin nik beste karga bat prestatzen nuen bitartean”.*

Ondorenean gorputz haiekin zer gertatu zen ez dira gogoratzen senide horiek. Aiako erretore zen P. Bikuña Agirre jaunak gertatutakoaren berri izan zuenean arduragabeko gaizkile haiek abandonatuta utzi zituztenak gizakiak zirenez, auzoko gazte batzuk bidali zituen gorpu haiek jaso eta hilerrira eramateko mandatuarekin, duin ehorzteko.

*Egun harekin garbi oroitzen naiz, esaten digu Felipe-neko Bernarda Lasa Agirre andereak.*

*Egurrezko zerraldo berri eta garbi batzuetan ekarri zituzten gorpuak. Bertan zeuden itxaroten auzoko erretore jauna eta auzoko ehorzlea zen nire aita.*

***Bertara inguratzen utzi ez bazidan ere nire aitak, erre-tore jaunak hileta otoitzak egin ondoren non lurperatu zituzten gorpuak garbi gogoratzen naiz”.***

Aiako Andre Mariaren Ikustaldia Elizako 2. heriotza liburuko 39. orrian, honela idatzita agertzen dira ehorzketa hauen inskripzioak.

***“En el barrio de Aya a veintitres de septiembre de mil novecientos treinta y seis, yo el infrascrito cura ecónomo de la Iglesia Parroquial de la Visitación de Nuestra Señora, mandé dar sepultura eclesiástica a tres cadáveres desconocidos pasados por armas. Se hallaron en la carretera frente a Erroiondo. Se les hizo oficio de sepultura y fueron inhumados en este día en el cementerio de esta Parroquia en presencia de los testigos D. Pedro Arza y Don Felipe Lasa”.***

#### ***Emeterio Garmendia Lasa***

Ordiziako jaiotza-erregistro liburuan agertzen denez, 1906ko mar-txoaren 3an jaio zen “*Cuartel del Sur nº 11*” bizilekuan.

Indar faxistakoek bahituta gure herrira ekarri ondoren, 1936ko urriaren 8an tirokatuta hil zuten Lizarrustira doan errepidean, Pazelai esaten zaion parajea.

Tirokatu aurretik, aitortza sakramentua jaso zuen Olaberriko I. Alus-tiza apaiz jaunarengandik, eta, Aiako erretore zen P. Bikuña jaunaren aginduz, auzoko hilerrira eramanda, ehorzketa errezoak egin eta lur-peratu zuten.

Honela agertzen da auzo horretako heriotza-liburuan:

***En el barrio de Aya a ocho de octubre de mil novecientos treinta y seis, yo el cura ecónomo de la Iglesia Parroquial de la Visitación de Nuestra Señora, mandé dar sepultura eclesiástica al cadaver de Don Emeterio Garmendia Lasa, natural de Villafranca de Oria, treinta años de edad, sol-***

***tero, de profesión jornalero, fallecido por haber pasado por armas.***

***Se encontró su cadaver en la carretera de Paizelai. Recibió el Santo Sacramento de la Penitencia administrado por D. Ignacio Alústiza, coadjutor de Olaverria.***

***Se le hizo oficio de sepultura y ha sido inhumado en este día en el cementerio de esta parroquia.***

### **Zezipio Insausti Zubiarrain**

Beste bost edo sei gazterekin batera (kopurua ezin dut zehaztu) kamioneta baten gainean eraman zuten Olaberrian jaiotako Z. Insausti gaztea Lizarrusti aldera, bertan tirokatzeko asmoz, ataundar falangistak izan ziren borrero exekutatuak.

Aipatutako Zezipio jauna Bidarte Aundiko D. Insausti Dorronsoro karlista jaunaren ahaideko edo lehengusua izanik, berehala eman zieten gertaeraren berri.

Daniel Bilbon bizi zen, eta, ingeniaria izanik *Altos Hornos* lantegian lana egiten bazuen ere, bere jaioterriarekin galdu gabeko lotura gordezten zuen gertaeraren berri ingurutik jarraituta.

Gure herriko *Círculo Tradicionalista* elkartearen sortzailetakoa izan zen, eta, horretarako eskainitako dirulaguntza oparotsuagatik, ohorezko lehendakari izendatu zuten.

Elkarte honetan ospe handia zuen, eta haren iritziak beti onartuak izaten ziren.

Azken hauteskundeetan, nazionalistei botoa ematearen salaketarekin eta oinarrizko epaiketarik egin gabe atxilotu eta tiroz hiltzera eraman zituztenen berri jaso zuenean, berehala bidali zituen Lizarrustira bere menpeko batzuk erahilketa haiek galaraztera.

Bitartekari haiek iritsi zirenerako, gazte bat tirokatuta hilik zuten, baina, bidalitako mandatua obedituz, Zezipio eta beste gazte haiek aske utzi zituzten.

Jose Bazterrika Munduate jaunak kontatua.

## Ondorioak

### **Herriko funtzionarioak kargutik kentzea:**

Estatuko gobernadore orokorraren aginduz, 1937ko martxoaren 18an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Diputazioaren menpe zeuden funtzionario batzuk lanik gabe geratuko zirela abertzaleak zirelako; bereziki, mikelete, kaminero, botikario, sendagile, alondero eta telefonistak.

Gerratea pil-pilean zela, *Junta Carlista de Guerra y Jefatura de Requetese*ko delegatuak bidalitako informean, *Glorioso Movimiento Salvador de Españaren* aurrean Ataungo funtzionario batzuek edukitako jarreraren berri ematen zuen.

*“La Comisión de Hacienda Municipal que suscribe a quien por acuerdo del Ayuntamiento de ocho de noviembre último se encomendó el estudio de las sanciones que debieran aplicarse en virtud de la disposición de 13 de septiembre de 1.936, publicada en el Boletín Oficial de la Junta de Defensa Nacional de España y cumpliendo dicho acuerdo y en vigor dicha disposición sobre aplicación de sanciones a funcionarios públicos cuando aconsejen tales medidas, sus actuaciones antipatrióticas ó contrarias al Movimiento Nacional, ha examinado las diversas disposiciones sobre la materia teniendo a la vista las circulares del Excmo. Sr. Gobernador Civil General de Guipúzcoa y de Vizcaya y ateniéndose a la última del 8 del mes actual, tiene el honor de someter a la consideración del Ayuntamiento la proposición siguiente:*

*Que se suspenda temporalmente de empleo y sueldo hasta que se tramite el expediente individual cuyo resultado resolverá en su día el Ayuntamiento con la obligación de ejercer el cargo respectivo en el interior, se promueva, se tramite y se resuelvan dichos expedientes individuales a los siguientes funcionarios”*

Bakoitzaren espedienteak ikusi ondoren, Ataungo udal-ordezkariek aho-batez erabaki zuten hainbat funtzionariori lanpostua kentzea euskal nazionalisten laguntzaile zirelako. 1937ko apirilaren 28an jakinarazi-zieten erabakia kargutik baztertu zituzten ondorengo funtzionarioei:

*M. Kortabarría Palacios*

*J. Izaga Goikoetxeaundia*

*M. M. Imaz Peña*

*F. Mujika Zeberio*

*Botikarioa*

*Sendagilea*

*Alondero eta tanborileroa*

*Atabaleroa*

Udal-ordezkariak botikarioaren kargugabetzeaz eztabaidan hasi zirenean, Kalakaseneko J. A. Urdangarin Barandiaran zinegotzi jauna bere aulkitik altxa eta udaletxetik irten zen, eta, berriro sartzeko deituagatik, ez zen itzuli.

Beste berririk ez da ageri udaletxeko aktetan, baina botikarioak gerora ere jarraitu zuen herriko botikez arduratzen eta zerbitzua ematen.

Bestalde, udalbatzarrekoek M. M. Imaz Peña alondero eta tanborileroa kargutik kendu ondoren, bere familiaren egoera behartsua ezagutzen zutenez, gutxieneko beharrak betetzen laguntzeko, 1.800 pezeta (10,85 euro) ematea erabaki zuten urte hartan, eta, espediente politikoagatik kargugabetuta egon ondoren, 1942ko maiatzean, berriro onartua izan zen bere kargurako.

Izaga sendagile jaunaren eztabaidari ekin ziotenean, berriz, Txatañeneko F. M. Dorronsoro Barandiaran jauna atera zen udaletxetik, seme bat sendagile zeukala eta ez zuela erabakian partedun izan nahi argudiatuz.

Sendagile jaun horrek errekurtsioa jarri zuen Ataungo Udalbatzak hartutako erabakia, eta urte bereko azaroaren 22an Espainiako Ministerioak indargabetu egin zuen Ataungo Udaletxeak hartutako jokabide edo erabaki hura. Ondorioz, honako erabaki hau hartu zuen udalak:

***“Considerando que esta resolución plantea a la Corporación un caso de equidad porque al propio tiempo, por las mismas causas y del mismo modo que el citado médico se destituyó a otros funcionarios, los que por no haber***

***recurrido a la Superioridad ven ahora confirmadas sus destituciones.***

***Considerando que para remediar esa desigualdad de situación, el Ayuntamiento desea someter a revisión los expedientes de los citados funcionarios destituidos que no recurrieron.***

***Considerando que a pesar de que ninguna disposición ni situación adquirida de Derecho obstaculiza este propósito, conviene consultar el caso con la Superioridad y se acuerda dirigir oficio al Excmo. Ministro de Interior en súplica de que manifieste si existe alguna razón que impida al Ayuntamiento llevar a cabo esa revisión, y en caso de que no exista, autorice a la Corporación para practicarla”.***

Beste funtzionarioek, ez zutenez errekurtsorik jarri, kargugabetuta jarraitu zuten. Eta egun horretan irakurri zen, baita ere, Tolosako Udalak hartutako erabakia.

Ordizian, beste horrenbeste gertatu zitzaion Dorronsoro base-rrian 1870ko azaroaren 13an jaiotako Andres Eskisabel Urdangarin jaunari; bertako udalbatza karlistek kale-garbitzaile lanpostutik kendu zuten.

Donostiako Udaletxean ere jokabide berarekin langile sail handia errepresaliatuta kaleratu zuten, eta horien artean, honako ataundar hauek ere bai<sup>113</sup>:

<b><i>Agirre Munduate, Santiago</i></b>	<b><i>1895-07-24</i></b>	<b><i>Aia Etxeberria</i></b>
<b><i>Aranzasti Agirre, Jose Antonio</i></b>	<b><i>1895-01-11</i></b>	<b><i>Erroiondo Zarra</i></b>
<b><i>Arratibel Zurutuza, Diego Antonio</i></b>	<b><i>1892-07-20</i></b>	<b><i>Iberondo Barrena</i></b>
<b><i>Dorronsoro Zeberio, Jose Migel</i></b>	<b><i>1897-03-20</i></b>	<b><i>Aiaugalde Aundia</i></b>
<b><i>Zurutuza Agirre, Jose Bautista</i></b>	<b><i>1885-04-05</i></b>	<b><i>Arin Etxeberria</i></b>

Gerra Zibila bukatu ondorenean, Francok berehala hartutako agindua betez, aurrerantzean udal-agintari guztiak probintziako gobernadore zibilak ipintzen zituen udal-agintariak, erregimen frankistari fidel izango

113 [www.donostia.org/info/ciudadano/ddhh](http://www.donostia.org/info/ciudadano/ddhh)

zirela ziurtatzearren. Hala, gainerako ideia politikoak zituztenei karguak betetzea debekatzen zieten.

Gizartean beldurra zegoen, eta, ondorioz, inor ez zen ausartzen agerian politikaz hitz egitera.

Zabaltzen ziren berriak erregimenak aldatuta edo aldrebestuta jasotzen ziren, eta, norbaitek egia ezagutu nahi zuenean, ezkutuan entzun behar izaten zuten *España Independiente*, Frantziako Paris irratia edo Londresko BBC irratia, gaztelaniaz eskaintzen zituzten irratsaioetan.

Frankismoa legeztatu nahian, etengabe egin zituzten gizarterako lege berriak.

Bitartekoak zituzten, eta, edozein diktadurak bezala, agintea eta menpekotasuna sendotu nahi zuten euren ikuspegia ezarrita.

Erabili zituzten bitartekoen artean, bi nabarmendu ditzakegu, gizartean eduki zuten eraginagatik eta eman zitzaaien garrantziagatik.

- a) NODO, joera jakineko albiste eta dokumentalen agerpena zinema-areto guztietan pelikula hasi aurretik. Garai hartan Ataunek zinema-aretorik ez bazuen ere, Beasaina edo Ordiziara joandakoan, ezinbestekoa zen erakustaldi hura jasatea.
- b) Herrialde bakoitzeko hizkuntza erabiltzea galarazi zuten.
- c) Irakaskuntzarako liburu guztiak agintarien kontrolpean zeuden eta erabat mugatu zen euren eduki eta erabilpena. Zentsura zorrotz batek kontrolatzen zuen dena, eta askotan Irakaskuntzako Ministerioak zenbait gai erabiltzea galarazten zuen.

Zentsura ez zegoen bakarrik liburuetan, kultura-arloko idazlanetan ere ezartzen zuen bere agintea, eta Espainiako idazle askok euren lanak erbestean argitaratu behar izan zituzten.

Beste arlo batera pasata, 1936-1939 arteko Gerra Zibil honen garaile ateratzeko, baliabide handiak behar izan zituzten Francok eta haren inguruko faxistek.

Horren ondorioz, gerra bukatu osteko urteetan, gizakiarentzat beharrezko diren oinarrizko janari eta produktu gehienek eskasia edo urritasuna igaro behar izan zen gure herritarren artean.

Fronteetan, aurrez aurreko erasoaldietan ehundaka mila gizon eta emakumeren heriotzak jasan behar izateaz gain (milioi inguru esaten dute), hainbat gaixotasun eta negar-malko ugari isurarazi ziren, herriak erabat desegin zituzten, eta miseria eta ezin bizi arterainoko goseak bizi-baldintza menostu eta gainditu ezineko bizitza batera eraman gintuen gerraosteak.

Beherakada izugarria izan zen jarduera produktiboetan; era guztietako material eta gaiak falta ziren; bigarren errepublika garaian sortutako berritze-prozesuan atzerakada handia izan zen, eta industria-produkzioa %30 jaitsi zen; nekazaritzan, %20.

Frankok, gerratean garaile ateratzeko egin zituen zorrak atzeratuta, Estatuak ordurarte zituen urre eta dibisa guztiak xahutu zituen.

Errepublikako gobernuak zirkulaziotik gordeta zituen erreserbata-tik, 13.251 milioi pezeta ezkutatu ziren, eta beste 10.356 milioi pezetatan zorpetu zen bankuekin.

Ondorioz, ekonomiaren garapena ohiko ez zen mailara erori zen, kontsumoa ezeztatzeraino; hala, lehen mailako elikagaiak urritu ziren, eta, genioen bezala, herritar xumeen gabezia edo pobrezia ugaritu egin zen.

Hori aldatu nahian, Francok bere ideia autarkikoak ezarri zituen, eta berez baliatzeko gai zela adierazi eta bermatu.

Hona hemen haren orduko esaera bat:

*“La experiencia de nuestra guerra tendrá que influir seriamente en todas las teorías económicas defendidas hasta hace poco como si fueran dogmas”.*

Honako lege berri hauek ezarri zituen:

- Armadak eta Elizak errepublikaren aurretik zituzten berezitasunak berriro ezarri zituen.
- Militarrak bateratu zituen, eta Frankok berak bereganatu zuen aginte osoa.
- Jesuiten elkarte berriz eratu eta lehengo jabego guztiak itzuli zizkion.
- Egunkari- eta prentsa-legea aldatu, eta zentsura ezarri zuen.
- Dibortzioa edo ezkontza hausteko legea kendu zuen.

- Errepublikako gobernuak desjabetutako lurak lehengo jabeei itzuli zizkien.
- Labore-merkatua estatuaren zaintzapean jarrita, *Servicio Nacional de Trigo* erakundea sortu zuen.
- Industriagintza piztu nahian, Instituto Nacional de Industria – INI erakundea sortu zuen ekonomia suspertzeko asmoz.
- 1939ko urtarrilaren 10ean, Espainiako erregimen frankistek *Comisión General de Abastecimientos y Transportes* erakundea sortu zuten, populaziorantz ezinbesteko ziren janari eta jeneroz hornitu eta gosea kentzeko.

Estatuaren kontrolpean jarri zen dena, eta nekazari edo produktore guztiek etxeko uzta estatuak prestatutako antolamendu eta erakundee-tara eramatera behartu zituzten.

Orduan sortu zituen Espainiako Estatuan hornidura-azokak eta horrelako beste zenbait erakunde, elikadurari zegokion kontrol osoa berak edukitzeko.

Ezarri zen sistema berriari errazionamendua deitu zioten, eta herriko udal-agintariak, alkatea buru zela, bideratu eta kontrolatzen zuten horniketa.

*Delegación Provincial de Abastos* erakundearen ardurapean eta gerran garaile atera zirenen eskuetan uztean, karlista, falangista, erreketek eta haien ingurukoak, zuzenki baliatu ziren euren honerako banaketaren ardura hartu zutenean.

Bi kartilla jarri ziren martxan, bata haragiarentzat eta bestea gainontzeko janarientzat. Familiako buru bakoitza udaletxean aurrez jasotako kartillatxo baten jabe zen, eta familiako kide kopuruaren arabera, jasotzen zituzten une bakoitzeko neurri eta kopuruetan zegozkien elikagai eta produktuak.

Sendi bakoitzaren diru-sarrerak eta egoeraren arabera, hiru maila edo kategoriatako kartillak egon arren, nori zer eman erabaki udal-ordezkariek erabakitzen zuten.

Herriko dendari banatzaileen izendapena ere herriko agintarien onarpenarekin egiten zuten, eta, esan beharrik ez dago, garaile edo erre-

gimen frankisten alde edo girokoak zirenei eskaintzen zitzaizkiela beti postu haiek.

Janarien biltegi orokorrak probintzia bakoitzeko hiriburuetan zeuden, eta handik herri bakoitzeko alondegira garraiatzen ziren janariak gero herritarrei banatzeko.

Teorian oso ondo eratuta bazegoen ere, kontrolik ez den lekuan beti gertatzen dena, eskuartean zebiltzanek euren “laka” eta etekina atera ohi zuten.

Elikagaien banaketak kalitate eskasekoak eta egiaztapen gutxikoak ziren, eta ustelkeria zabaldu zen berehala, merkatu “beltza” deritzona sortuz.

Lehenago esan bezala, janariak urritu zirenez, errazionamendu bidez konpondu nahi zen orduko eskasia hura, baina kaletar eta industrietako langileen artean —nekazariak nahiz eta zainduta egon, euren uztarekin errezago moldatzen ziren— diru-eskasia izugarria zegoen, eta hainbat alditan, eskubidea edukiagatik jaso gabe uzten zituzten egokitutako hainbat jenero, dirurik ez zutelako.

Jaso gabe gelditutako janari edo produktu haiek dendariaren esku gelditzen ziren, eta tabernei edo diruz osatutako familiei saltzen zizkieten.

Adibidez, litro olioia 80 pezetatan (0,48 euro) eta kilo azukrea 12 pezetatan (0,07 euro) saltzera iritsi zen.

Jokabide lotsagarri hura, teorian, zigortuta zegoen, baina orduko agintariek isilpean pasatzen zuten, eta tartean zebiltzan denak baliatzen ziren euren etekina ateratzeko, betiere ezinbestekoak ziren elikagaiak lortu ezinean zeuden herritar umil eta xumeen gain.

Honako janari hauek gogoratzen ditugu: haragia, azukrea, olioia, arroza, batata (patata itxurako tuberkulua), bakailaoa, txokolatea, tabakoa, jaboia eta abar. Haurrak zeuden sendietan, kafea kendu eta azukrea bikoiztu eta esne kondentsatua hartzeko aukera izaten zen, eta salneurria Abastosek izendatzen zuen.

Jakin-minak bultzatuta, argitasunak bilatzeko lan honetan ari garela, balio batzuen zebaiterainokoa aurkitu dugu, eta hona hemen 1942ko eta 1945ko balio batzuk.

Produktua	1942 (kiloaren balioa)	1945
Olioa	4,80 pezeta	3,90 pezeta
Patata	0,90 pezeta kiloa	0,52 pezeta kiloa
Garbantzua	2,40 pezeta kiloa	3,50 pezeta
Babarrunak	---	3,25 pezeta
Arroza	2 pezeta	3,50 pezeta
Txokolatea	5,59 pezeta	10 pezeta
Azukrea	4 pezeta	5,50 pezeta
Esne kondentsatua	---	4 pezeta potea
Gari irina	---	3,50 pezeta
Xaboia	3 pezeta	4,25 pezeta
Kafea	---	23 pezeta
Behi okela	---	4,55 pezeta
Txahal okela	---	5,15 pezeta
Txerrikoa	---	7,05 pezeta
Bakailao gatzatua	---	8,50 pezeta

Gari irina lortzeko zailtasun handia zegoen, eta esan dugun bezala dena *Servicio Nacional de Trigo* erakundeak kontrolatzen zuen. Ondorioz, ogiaren balioak, etengabeko aldaketak izaten bazituen ere, gutxi gorabehera, kilokoa bi pezetan saltzen zen. Kontrolpean zegoen beste janari bat haragia zen. Kartillarekin, 100-150 gramo hilean eta **pertso**-nako jaso zitekeen, baina balio garestikoa eta aldakorra izanik, askok ez zuten jasotzen.

Hona hemen balio batzuk:

	Janarien balioak	
	1940	1949
Kilo haragia	5,32 pezeta	15,35 pezeta
Kilo gantza	2,55 pezeta	5,90 pezeta
Kilo txekor-hezurra	0,85 pezeta	0,90 pezeta

1958ko abenduaren 30ean, *Comisaria General de Abastecimientos* erakundeak bidalitako 1.417 zenbakiko zirkularraren aginduz, olioaren salmentarako salneurri berriak finkatu zizkion udalari.

- Olioia ontziratu gabe 21,95 pezetalitra (0,13 euro)
- Soja-olioa ontziratu gabe 16,80 pezetalitra (0,10 euro)

Salneurri haiek herrian errazionamendua saltzeko baimendutako dendarientzat ziren, eta horiek, herriko zergetan, litroko 0,15 pezeta ordaindu behar zioten udalari. Agindu hori Jose Maria del Moral gobernadore zibilak izenpetu zuen<sup>114</sup>.

60ko hamarkadan, Argentinatik ekarritako haragi izoztua ere eskaintzen zuten, eta eskoletan, berriz, haurrak indartzeko, esne-hautsa eta gazta.

Oraindik, orduko hainbatek gogoan dute arrautza frijitu bat bi senideren artean banatzen zutela; garagar xigortuarekin prestatzen zuten kafearen ordezkio infusioa, eta, patataren ordezkioarekin —hau da, bata-tarekin— eta arto irinarekin, morokilak eta taloak egiten zituztela.

Ataunek gaztainadi handiak zituen, eta udazkenetan kamioiakadak eramane ohi zituzten saltzera Ordiziako azokara.

Salmentako baldintzak eta prezioak bertako udalak izendatzen zituen. Hona hemen agiri bat.

*Hago saber que por disposición de la Autoridad Superior, queda terminantemente prohibida la salida de la castaña fuera de la Provincia y el precio de tasa de misma queda establecido en 65 céntimos el kilo y 2,25 pesetas el celemín.*

1953an, “Lujo” deiturarekin, Ataungo Udalak urteko 200 pezetako zerga berria ezarri zienean dendariei, honako janari-denda hauek zeuden orduan:

- Nekazarien Sindikatua
- E. Korta Aierdi (emakumea)

114 AUA, 414-06

- P. Etxeberia Munduate (emakumea)
- J. Kerejeta Izagirre (gizona)
- T. Kerejeta Zurutuza (gizona)
- J. M. Aierbe Barandiaran (gizona)
- B. Izagirre Peña (gizona)
- E. Urdangarin Agirre (gizona)
- J. I. Aierbe Dorronsoro (gizona)
- S. Barandiaran Elizalde (emakumea)
- B. Dorronsoro Arratibel (gizona)
- K. Dorronsoro Zabaleta (gizona)
- F. Albizu (Ergoiena, emakumea)

Azkenean, 1962ko maiatzean desegin zen ofizialki errazionamendu-zerbitzua.

## Gerra eta emakumeak. Gogoeta

---

Lan hau irakurrita badirudi Ataunen “sorrera” garaietatik hasi eta gaur eguneraino emakumeek ez dutela garrantzirik eta zerikusirik izan herriko bizitzan. Ukaezina da historian osoan emakumearen figura itzalean egon dela.

2018ko urtarrilean lan hau nire eskuetara iritsi eta taldean emango zitzaion jarraipena erabakitzen ari ginenean, lanbideez eta gerraz gain, emakumeek Ataunen izandako pisua ere aztertzea oniritzi genuen. Handik denbora batera, ordea, Ataungo Beka deialdia atera zen, eta azterketa gaia “emakumea Ataunen” izan zen. Gauzak horrela, berriro taldean elkartu eta erabaki genuen ez zuela zentzurik aldi berean gai berari buruz bi ikerketa egiteak. Baina gauzak nola diren, azkenean bekaren epaimahaiak 2018an bekarik ez ematea erabaki zuen. Hori horrela izanik, labur-labur bada ere, emakumeek izandako garrantzia ekarri nahi izan dugu lerro hauetara.

Sarritan, asko pentsatu gabe, iruditzen zaigu gizonen kontua dela gerra, emakumeek ez zutela zerikusirik izan, baina ez da hori horrela. Egia da lan honetan gizon-izen ugari atera direla XVIII. mendean Konbentzio Gerran borrokan ibili zirenetatik hasi eta XX.ean 36ko Gerran ibili zirenetaraino. Sasoiko mutilak denak, 18-60 urte bueltakoak.

Etxeko gizonak, aitak, semeak, anaiak eta abar gerrara borrokatzera joaten zirenean, etxean langileak falta izaten ziren, eta eguneroko martxarekin jarraitzeko emakumeak ezinbesteko bihurtzen ziren. Normalean egiten zituzten etxeko lan, ume-zaintza eta baratzekeoz gain, soroko lanak egitea eta animaliak gobernatzea ere beraiei egokitzen zitzaien. Gainera, ezin dugu ahaztu gerretan janari-urritasun garaia izaten dela eta duela oso gutxira arte familiak handiak izan ohi zirela. Beraz, etxean “bakarrik” geratu ziren emazte eta ama haiei magia egin eta aho asko elikatzea egokitu zitzaien. Familiek eta gizarteak aurrera egingo bazuten, zutabe garrantzitsuak izan ziren. Horrez gain, ez dugu ahaztu behar gerran zauritutako soldaduak artatu eta erizain-lanak egin zizkietenak ere emakumeak izan zirela. Eta, askotan, herrietara

iritzi eta tropentzat tabernetan jana eskatzen zutenean, prestatzaileak ere emakumeak izaten ziren.

Hori gutxi balitz, leku desegokian suertatuz gero, errepresio gogorra jasaten zuten: soldaduen sexu-erasoak, tratu-txarrak eta irainak. Nahiz eta emakumeekin zerikusia zuten beste hainbat kontu bezala, isilean gorde sozialki deuseztatu egingo zituzten beldurrez. Aita, senarra edo semea Errepublikaren aldekoa izatea nahikoa delitu zen emakume haientzat. Modu hartara, gizona zigor bikoitza ezartzea zen frankisten helburua; hau da, Errepublikaren alde borrokan zebiltzan edo arrazoi harengatik atxilotuta zituzten gizona sufrimendua areagotzea. Aipatu ditugun tratu-txarrez gain, emakumeei gehien ezartzen zieten zigorra ilea moztearena zen, kaskazuri uztea. Sabino Auzmendik kontatu zigunez, Ataunen ilea moztu zieten emakumeak bat baino gehiago izan ziren, eta hasieran, herritarren burlen beldur, etxean geratzen baziren ere, denborarekin buruan zapiak jarri eta kalera ateratzen ziren. Gaur egungo pentsaeratik, ilea moztea ez zaigu oso zigor larria iruditzen, baina kontuan izan behar dugu XX. mendearen ia amaierara arte ile luzea ikur femeninoa zela. Beraz, ilea moztea ikur femeninoa kentzearen parekoa zen; luze irauten zuen nabarmenkeria, gainera, lehengo luzerara iristeko denbora asko behar baitzuen.

Basakeria haien helburua emakumeak otzantzea zen. Izan ere, II. Errepublikaren garaian emakumeak berdintasunerako bidean urratsak ematen hasiak ziren, eta erregimen frankistak emakumeak etxean nahi zituen; emazte eta ama. Hori lortzeko, emakumeei errepresioa ezarri ez ezik, eskolaren eta elizaren boterea ere baliatu zituzten, emakumeei umetatik beraiei zegokien rola zein zen erakusteko.

Gerra Zibilean frontean borrokan ibili ziren emakumeak ere izan ziren, baina Ataunen ez dugu gerrako lehen lerrora joandako nesken berririk.

